

# JAKIN

FELIX PLACER  
ELIZAREN AZKEN ALDIOTAKO HISTORIA  
EUSKAL HERRIAN (1975-1995)

JOSEBA INTXAUSTI  
ELIZA ETA EUSKAL KULTURA

PAULO IZTUETA  
IRAKASKUNTZA KATOLIKOA  
HEGO EUSKAL HERRIAN

ASKOREN ARTEAN  
ELIZA KATOLIKOA EUSKAL HERRIAN  
KONTZILIOAREN ONDOREN

JOXERRA GARZIA  
INIGO ARANBARRI  
IMANOL AGIRRE  
LONTXO OIHARTZABAL  
KIKE AMONARRIZ  
EGUNEN GURPILEAN

95

UZTAILA-ABUZTUA 1996



# JAKIN

95

UZTAILA-ABUZTUA 1996



*Aldizkari hau ARCEko kidea da*  
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)

---



*Gipuzkoako Foru Aldundia*  
*Kultura eta Euskara Departamentua*

---



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

# AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	11
	FELIX PLACER ELIZAREN AZKEN ALDIOTAKO HISTORIA EUSKAL HERRIAN (1975-95)	39
	JOSEBA INTXAUSTI ELIZA ETA EUSKAL KULTURA	65
	PAULO IZTUETA IRAKASKUNTZA KATOLIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN	87
	ASKOREN ARTEAN ELIZA KATOLIKOA EUSKAL HERRIAN KONTZILIOAREN ONDOREN	149
E	GUNEN GURPILEAN	149
	JOXERRA GARZIA IÑIGO ARANBARRI IMANOL AGIRRE LONTXO OIHARTZABAL KIKE AMONARRIZ	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON  
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,  
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ  
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN  
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1996ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.000 pta.	—
Ale arrunta	850 pta.	1.225 pta.
Ale bikoitza	1.050 pta.	1.500 pta.
<b>KANPOAN</b>		
Harpidetza	5.500 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	925 pta. (40 FF)	1.400 pta. (60 FF)
Ale bikoitza	1.150 pta. (50 FF)	1.725 pta. (74 FF)

# SUMMARY

## THE RECENT HISTORY OF THE CHURCH IN THE BASQUE COUNTRY

*FELIX PLACER*

According to Felix Placer the Church in the Basque Country has had a complex evolution within a context of the difficult situation the Basque Country has gone through in the last twenty years—from

the end of Franco's time. Placer analyses the attitude adapted over these years by the various religious institutions towards the complex sociopolitical situation in the Basque Country.

## THE CHURCH AND BASQUE CULTURE

*JOSEBA INTXAUSTI*

Joseba Intxausti's article analyses the Basque Country's policy, throughout its entire history, concerning Basque Culture and particularly the Basque Language. In his conclusions, he un-

derlines the fact that the Ecclesiastical Hierarchy has maintained very different even contradictory postures concerning popular culture at different moments in history.

## CATHOLIC TEACHING IN THE BASQUE COUNTRY

*PAULO IZTUETA*

The main objective of Paulo Iztueta's work is to describe the situation concerning Catholic teaching in Basque Society. To this end, he first points out the important role private schools have in the Basque Country and secondly he

offers a detailed account of the Church's influence in these private schools. The author also underlines the weakness of Basque Language teaching within these Catholic schools.

THE BASQUE CHURCH FOLLOWING THE SECOND VATICAN COUNCIL  
*VARIOUS AUTHORS*

In our last publication on the Church in the Basque Country, we quoted several authors on the subject of the evolution of the Church in the Basque Country following the Second Vatican Council. The authors of these articles are: Esteban J. Agirre, Eugenio Agirretxe, Pello Apezetxea, Joseba Arregi, Joxe Agustin Arrieta, Jean Louis Davant, Begoña Eskisabel, Jesus Esnal, Xabier Ikobaltzeta, Julen Kalzada, Iñaki Mendiguren, Martin Orbe, Jose Antonio Pagola, Maixux Rekalde and Julen Urkiza.

NEWS TODAY  
*VARIOUS AUTHORS*

# ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 95. zenbakia da eta 1996ko laugarrena.

Eliza da zenbaki honetako gai nagusia. Euskal Herriko eliza katolikoa, zehatzago esateko. Eliza katolikoak azken hamarkadatan Euskal Herrian izan duen bilakaeraren azterketa egin nahi izan dugu lan monografiko honetan. Hiru artikulua nagusi eta hamabost iritzi jaso ditugu horretarako.

Felix Placerrek sinatua da lehenengo idazlana. 1975. urte-tik 1995. urtea bitarteko epean Elizak Euskal Herrian izan duen bilakaera korapilotsua aztertu du Placerrek. Ikuspegi orokorretik begiratuta egin du azalpena, Elizako hierarkiak euskal errealitate soziopolitikoaren aurrean hartutako jarre re i arreta berezia jarriz.

Elizaren hizkuntz politika hartu du gai nagusitzat Joseba In-txaustik, «Eliza eta euskal kultura» artikuluan. Elizaren his-toriaren hastapenetatik hasita, herri-kulturei buruz eta, batik



bat, euskal kulturari eta euskarari buruz Elizak eta elizgizonek izandako jokabideak eta egindako lanak izan ditu aztergai.

Irakaskuntza katolikoak euskal gizartean duen pisuari buruzkoa da hurrengo lana, Paulo Iztuetak izenpetua. Irakaskuntza pribatuak zer garrantzia duen zehazten du lehenengo, sare pribatuaren barruan eliz erakundeek zer presentzia duten agertzeko gero. Datu zehatzen bidez adierazten du erakunde bakoitzaren ikastetxe-kopurua, ikasle-kopurua eta gela-gaitasuna zein den.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren Eliza katolikoak Euskal Herrian egin duen bideari buruzko iritzi ezberdinak jaso ditugu dossierreko azken atalean. Honako hauen iritziak plazaratzen ditugu: Esteban J. Agirre, Eugenio Agirretxe, Pello Apezetxea, Joseba Arregi, Joxe Agustin Arrieta Egiguren, Jean Louis Davant, Begoña Eskisabel, Jesus Esnal, Xabier Iko-baltzeta, Julen Kalzada, Iñaki Mendiguren, Martin Orbe, Jose Antonio Pagola, Maixux Rekalde eta Julen Urkiza.

*Egunen Gurrpilean* sailean, ohi bezala, Kultura, Literatura, Ikuskizunak, Unibertsitatea eta Soziolinguistika alorretako gaiak dituzte hizpide, hurrenez hurren, Joxerra Garziak, Iñigo Aranbarrik, Imanol Agirrek, Lontxo Oihartzabalek eta Kike Amonarrirek.

# G AI NAGUSIA

---

FELIX PLACER

ELIZAREN AZKEN ALDIOTAKO HISTORIA  
EUSKAL HERRIAN (1975-1995)

JOSEBA INTXAUSTI

ELIZA ETA EUSKAL KULTURA

PAULO IZTUETA

IRAKASKUNTZA KATOLIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN

ASKOREN ARTEAN

ELIZA KATOLIKOA EUSKAL HERRIAN  
KONTZILIOAREN ONDOREN

# ELIZAREN AZKEN ALDIOTAKO HISTORIA EUSKAL HERRIAN (1975-1995)

*FELIX PLACER*

---

**E**uskal Elizaren historiako azken hogei urteok oso bilakae-  
ra korapilatsukoak gertatu dira, Euskal Herriak, Ipar eta  
Hegoaldean, bizi duen gatazka-prozesuaren barruan. Kon-  
tuan hartuz azalpen sintetiko eta objektiboa egiteak da-  
kartzan zailtasunak, aldi honetan adierazgarrienak derizkiedan  
alderdiak aurkeztu nahi nituzke, ikuspegi diakroniko eta oroko-  
rretik begiraturaz.

## AURREKARI GERTUKOENAK: 60KO HAMARKADA

Elizak Euskal Herrian azken urteon luze-zabalean eraman-  
dako ibilbidera hurbiltze-lan egokia egiteko, kontuan hartu

beharrekoa da, gutxienik, aurrekari gertukoena den historia-ko zenbait alderdi. Hori horrela, azken aldiko eliz prozesuen azalpenerako adierazgarrien iruditzen zaizkidanak aurkeztuz hasiko naiz.

#### ERREPRESIO-EGOERAREN SALAKETA

60-70ko hamarkadek, 75a arte, bultzada berria jaso zuten euskal apaizterriako zati baten aldetik Euskal Herriak bizi zuen egoera sozial eta politikoen salaketan. Bi faktore dira, «*Memoria dirigida a S.S. Pío XII por varios miembros del clero vasco*» idazki famatuaz gero (1944.11.25)<sup>1</sup>, klandestinitatean esateko gordea zegoen erreakzio hau esplikatzen duten giltzarriak. Lehenik eta behin, erregimen frankistaren errepresioaren aurrean, eliz konpromezuari buruz euskal apaizterriaren zati baten, ekiteko eta salatze erabakiaz gain, gero eta kontzientzia handiagoa. Bestetik, erabakigarria gertatu zen Vatikanoko II. kontzilioaren bultzada, Joan XXIII.ak bere *Mater et Magistra* (1961) eta *Pacem in Terris* (1963) entziklika ezagunetan aurkeztutako planteamenduak ahazteke.

Espainiako Apezpiku guztiei, Nuntzioari eta Vatikanoko Estatu Idazkaritzari, izenpetzen zuten guztien zerrenda eta guzti, bidali zitzaien «339 euskal apaizen idazkiak» Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako apaiz-kopuru esanguratsu baten jarraieraz garrantzitsua adierazten du. Hiru ataletan zatitzen den agiri honetan, gizakiaren eta herrien eskubide naturalak berresten dira, Estatu espainiarrean gertatzen den zuzen-contrako egoera eta, zehazkiago, euskaldunen «arraza-, hizkuntz eta gizarte-errepresioaren jazarpena» salatzen dira. Gogor errepresioa eta gaitzestua izan zen agiri honetatik hasita, manifestu eta salaketa- nahiz protesta-ekintza ugari gertatu ziren, Euskal Herria jasaten ari zen egoera politiko eta soziala zelata-eta<sup>2</sup>.

Hamarkada honetan hainbat jarrera ari zen nabarmentzen apaizterriaren beraren baitan. Batzuek ezarritako erregimenaren aldeko eta esaneko jarraitzen zuten bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan gero eta indar handiagoz azaltzen ari zen nazio-

-zapalketamkontzientzia argiko apaiz-talde bat. Garrantzi eta oihartzun apartekoa izan zuten hamarkada honetan zehar burututako zenbait ekintzak. Aipatu beharrekoa, izandako garrantzi eta ondorioengatik eta «Gogor» taldeak sustaturik, 1968ko azaroan Bilboko Seminarioan (Derio), hirurogei apaizek 25 egunez egin zuten itxialdia. Ekintzaren helburua eliz erakundearen jardunbide politikoa salatzea zen («bera ere Euskal Herri Langileak bizi duen zapalkuntzaren alde onartzaile eta eragilea dela sentiarazteko gure eliz erakundeari»). Azken agirian «Ebanjelioari gehiago egokitutako Eliza» eskatzen zuten, «behar-tsua... askea... dinamikoa... sorterrikoa, Euskal Herrian txertatua...». Aipatzekoa baita Bizkaiko bost apaizek 1969ko maiatzaren 30etik ekainaren 2a arte gotzaitegiko bulegoetan egindako gose-greba. Poliziak ateraraziak eta atxilotuak, haietako bi hamabi urte eta egun bateko espetxe-zigorrez epaituak izan ziren gerra-kontseilu batean eta gainerakoak hamar urterako, Zamorako «espetxe konkordatorio» zoritxarreko ospetsuan: Elizaren eta Estatuaren arteko harremanen egoera eutsi ezinaren sinbolorik nabarmenena<sup>3</sup>. Auzi hari konponbidea emango zion indultua ere aurrikusi zen. Baina gartzelaturako apaizek beraiek uko egin zioten espreski halako «indultu apartekoari»<sup>4</sup>. Egoeraren larritasunak apaiz erbestaratuen eta Jose Maria Zirarda, Bilboko elizbarrutiaren Administratzaile apostolikoaren beraren arteko salaketak eragin zituen.

Erregimen frankistaren gero eta gainbehera handiagoak, 1970-75 urteen bitartean, euskal apaizterriko talde batek Euskal Herriaren kontrako hainbat zapalketa eta errepresio-motaren aurka eta, zehazkiago, «bere gizatartzeko egitekoa faltsutzen duen»<sup>5</sup> Elizaren zenbait alderdi salatuz mantendutako jarduerara sendoak nabarmentzen duen aldi bati bide eman zion.

Nafarroak eta Arabak izaera desberdina erakutsi zuten aldi honetan. Nafarroako apaiz talde adierazgarri bat alor sozio-laboraleko kontestazio zabalean sartuta egon zen, 1968az gero bereziki. Ugariak izan ziren aldi honetan «profeta»-salaketa<sup>6</sup> egiteko erak. Araban, 1960az gero industri garapen trinkoa hasi zen, ardatzak Gasteizen eta Laudion zituela eta inmigrazio handia eraginez. Langile- eta gizarte-arazoekiko sentibera-

tasun pastoralak, oro har, gora egin zuen aldi honetan eta 70eko hamarkadan garapen handia hartu zuen bi eskualdeetan, JOC eta HOAC mugimenduei eta Gizarte-Idazkaritzari esker. Une nagusia 1976ko martxoaren 3ko gertaeretan eman zen, Poliziaren esku hildako bost langileren ondorio eta guzti.

Aldi honetan zehar bi jarrera bereizi ziren euskal apaizen eta laikoen multzoan. Batzuk klase-arteko eta jite burgeseko nazionalismoaren aldekoak ziren. Besteak planteamendu sozialista eta marxistetara ireki ziren, jite iraultzaile eta abertzaleko bide ideologikoa urratuz. Garrantzikoa da adieraztea bazegoela baita apaizteriaren sektore nahiko zabala euskal nazionalismotik at eta planteamendu irekiak —inoiz baita aurrerakoiak ere— zituena, gizarte-arazoei zegokienez. Egon zen, noski, frankismoaren aldeko eta euskaldungoaren aurkako eta nazional-katolizismoaren zaintzailea zen gutxiengoa ere<sup>7</sup>.

#### LAIKO KONPROMETITUAK

Aldi honetan zehar, hurrengo urteetan sakonagoa egin zen erlijio-mailako aldaketa adierazgarria hasi zen laikoen artean. Horren lehen erakusleetakoa erlijio-jardueraren gero eta behe-rakada handiagoa izan zen; baina alderdirik garrantzitsuena sekularren apostolutza-mugimenduen konpromezu-motan nabarmendu zen. Arazoa, JOC eta HOAC taldeek gauzatu zuten batik bat eta, Euskal Herri mailan, JARC (Herri Gaztedi)<sup>8</sup> taldeak, fedearen eta konpromezu soziopolitikoaren artean izan beharreko harremanen inguruan.

Espainiako hierarkiak gogortu egin zuen bere jarrera, apostolutza-mugimenduetako kideen salaketa eta jarrera batzuk zirela-eta, horrela, geroago mugimenduon ahulezia eta militante ugari haietatik ateratzea sortaraziko zituen krisialdi sakona eraginez. Espainiako Gotzainen Osoko Bilkurak —une hartan Morcillo eta Guerra Campos (Ekintza Katolikoko gotzain kontseilaria) buru zituela— mugimenduon izendapen guztiak bere gain hartzea erabaki zuen, Ekintza Katolikoaren Jardunaldi Nazionalen ospaketa zela-eta (1966ko ekainaren 9-12). Ondorioz, apostolutza-mugimenduen egoera «egonkorra edo atzera-

koa»<sup>9</sup> izan zen hurrengo urteetan. Ekintza Katolikoako zenbait militante alderdi politikoetan edo sindikatuetan sartu zen eta zenbait mugimendu ere eraldatu egin zen, VOJ kasu: lehendabizi Asociación Sindical de Trabajadores bihurtu zen eta gero, Nafarroan eragin handia izan zuen Organización Revolucionaria de Trabajadores<sup>10</sup>. Besteek, 70-75 urteen inguruan, Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrak hasi zituzten.

#### EUSKAL HIERARKIAREN ERREAKZIO-AZTARNAK

Erregimenaren gehiegikerien aurrean isilik zegoen eliz hierarkiak, ezusteko erreakzioa izan zuen —ordura arteko ibilbideari bagagozkio— Gipuzkoan. Donostiako gotzaina zen Lorenzo Bereziartuak, Idazki Pastoral batean<sup>11</sup>, irmoki salatu zituen herri-agintaritzaren gehiegikeriak eta Elizaren aurkako prentsa-kanpaina gezurtia, eta elkarrizketaren premia adierazten zuen, gogorkeriari eusteko eta politikako eta gizarteko gatazkak arautzeko.

Ezin da aldi hau itxi, Antonio Añoveros, Bilboko gotzainaren «*El cristianismo, mensaje de salvación para los pueblos*» izenburuko Gutun Pastoral 1974ko otsailaren 24ko mezetan irakurtzeagatik sortu zen Elizaren eta Estatuaren arteko gatazka aipatu gabe. Ministerio Fiskalak «espainiar batasun nazionalari eginiko oso eraso larritzat» hartu zuen eta gotzainaren eta elizbarrutiko Bikarioaren postuz kentzea eragiteko zorian egin zen<sup>12</sup>. Hau zen pasarterik gatazkatuena:

Euskal Herriak, estatu espainiarreko beste herriek bezala, bere nor-tasunari eusteko eskubidea du, bere ondare izpirituala landuz eta garatuz, inguruko herriekiko harreman osasungarriaren kalterik gabe, bere bidezko askatasuna aitor lezan erakunde sozio-politiko baten barruan.

Gaur egungo egoeran, ordea, Euskal Herriak oztopo larriak aurkitzen ditu eskubide hori gozatzeko. Euskararen erabilera, irakaskuntzan, honen hainbat mailatan, zein komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista) murrizketa nabarmenen menpe dago. Era bateko eta besteko kultur agerpenak ere kontrol berezi baten menpe daude.

Eliza, elizbarrutiaren egoera zehatz honen erdian Kristoren salbamentu iragartzeko eta gauzatzeko, gure herrian ematen diren egoerak modu eratsuan alda daitezela eskatu eta bultzatu beharrean dago, aita santuen eta kontzilioko agrietan ematen diren oinarrien arabera.

## ELIZA IPARRALDEAN

Elizaren egoerak Iparraldean ibilbide berezia eramane zuten. Baionako elizbarrutiko apaizteria, zati handi batean, euskal gatazka eta arazoetatik at zegoen. Hala ere, Piarres Lartzabal apaizaren eraginpean, euskal nazio-asmoa gorpuztuko zuen *Enbata* sortu zen. Bere Itsasuko Gutunak (1963) herri- eta nazio-baieztapena adierazten du eta autodeterminaziorako duen eskubidea. *Enbata* euskal errefuxiatuekiko elkartasunagatik nabarmendu zen, gose-grebak zein manifestazioak eta, batez ere, errefuxiatuentzako laguntza eta babesa sustatuz. Era berean, 1963an jadanik apezpiku euskalduna eskatzen zuten Baionako elizbarrutiarentzat.

Lartzabal eta beste batzuen idealetan eta borrokan inspiratutako apaizteriaren gero eta sentiberatze eta kontzientziatze handiagoa «Anai-Artean, euskaldun kanporatuen laguntza»-ren eta «Herriarekin» izeneko apaiz-elkarteen sorreran gauzatu zen, Euskal Herriaren alde euskal herritar gisa gogoeta egin eta jarduteko, Iparraldean errefuxiatuekiko elkartasuna eta laguntza bultzatuz («*un refugié, un toit*»).

Baionako Vincent apezpikuak Katedralean egin zen hainbat gose-grebaen aurrean zera gogoratuz erreakzionatu zuen: pertsona hauen oinazeek eta eskubideek ez zutela inor utzi behar axolagabekeria eta eskuzabaltasuna eta abegikortasuna eskatzen zion Gobernu frantsesari, errefuxiatuen arazoiari buruz arretarazteko, elizak hartzea onartzen ez bazuen ere<sup>13</sup>.

Garai aurrekari honen amaiera gisa, zera esan genezake: euskal Elizaren baitan jarrerak era desberdin eta kontrakoetan ere gauzatuz joan zirela, euskal apaizen eta laikoaren hainbat sektore oso anitzetan. Alde batetik, zantzu espainolista argiko jarrera kontserbadoretan kokatutako sektoreak zeuden.



Bestalde, protesta-maila oso desberdinen arabera, Euskal Herriaren gizarte- eta nazio-eskubideak zaintzea eta errebindikazioa eskatzen zutenak, kulturari, hizkuntzari, adierazpen-askatasunari, herri gisa bizirauteari zegoakionez batik bat. Apaizteriaren eta laikoen gehiengoa Eliza ofizialaren ildo barruan kokatzen zen eta, Elizbarrutietako Gizarte-Idazkaritzak aurretik zirela, hasia zegoen jadanik jite sozialeko bide aurrerakoia gora ateratzen. Errebindikazio hauei lotuta, ez dira ahaztu behar Eliza memberaren barne-aldaketari buruzko eskaerak ere, Vatikanoko II.ak eskatutakoaren arabera, ekinbide irekiagoa eta partaidetzazkoagoa eta pastoralta Euskal Herriratuagoa eta behar-suenen eta zapalduenen aldekoa bultzatuz.

## ELIZA EUSKAL HERRIAN TRANTSIZIO POLITIKOA BITARTEAN

Eliz jarrerak, azken 20 urteotan zehar, konplexutasun handiz bizi izan dira: euskal Elizak, bere era bateko eta besteko jarreretan, lehen mailako egitekoa bete izan du eta betetzen jarraitzen du. Nire kontaketa laburbildu hau bi zati kronologikotan banatuko dut: lehena Francoren heriotzatik Estatuko Gobernua PSOeri eman zioten hauteskundeetara doan aldiak osatzen du; bigarrenak 1982tik gaur arte.

### GATAZKAZKO ERREALITATEAREN ELIZ ANALISIA

1975. urtea prozesu garrantzitsuek seinalatua ageri da, bai oro har Estatu espainiarrean, bai Euskal Herrian bereziki. Urte honetako gertakaririk adierazgarriena, Estatu mailan, Francoren heriotza izan zen, zalantzarik gabe, 1975eko azaroaren 20an.

Euskal Herriari dagokionez, eliz jarduerari bere ingurunea eta testuingurua damaioten gertaera sail bat hartu behar da kontuan. Aski bedi 1975eko martxoaren 25ean Gipuzkoan eta Bizkaian ezarri zen salbuespen-egoera<sup>14</sup>. Iruñea-Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko apaiz-kopuru handi batek egoera honen salaketa egin zuen, ekainaren 8an iragarri zen homilian, honelakoak esanez, besteak beste:

Ez da aski gogorkeriaren epai orokorra, datorren aldetik datorrella. Honek, besterik gabe, ez du ezer konpontzen eta gauzen egoera bere hartan mantentzeko erabili ohi da. Gainera ezin dira berdin baloratu gogorkeria mota guztiak, ikusi beharra dago, baizik, zein den lehendabizikoa, luzeena, beste guztien eragilea. Gure egoera zehatzean, duela urte asko, oinarrizko giza eskubideak zapaltzen eta herriaren zenbait sektoretatik kontra-gogorkeriazko erreakzioa sortarazten duen gogorkeria instituzionalizatua dago, agintetik egina. Eta azken gogorkeria honek agerpen bereziki larriak izan baditu berrikitan, itxurakeria da hura gaitzestea, aurretik eta indar handiagoz eragiten duten zergatiak gaitzetsi gabe.<sup>15</sup>

Hitzaurretik bertatik salatzen zuten salbuespen-egoera, «errepresio-neurria» zela jakinaraziz:

Gauzak konpondu ordez, larriago egiten ditu sakoneko arazoak eta gorrotoak zein mendeku-gogoak ernetzeko giro aproposa sortzen du; kristauak gaitzetsi besterik ezin dituen jarrerak.

Euskal gizarteak aldi honetan politika-, ekonomi, gizarte- eta kultur mailako garrantzi handiko arazoei aurre egin zien, horien aurrean batzuetan hauteskunde bidez definituz, bestetan kalean, hainbat eratako mobilizazio eta manifestaldien bidez eta, zenbait talderen aldetik, era bateko eta besteko indarkeriazko adierazpenez.

Instituzioetako aldaketek esanahi bereziko bi une izan zituzten: Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban gehiengoak onartu ez zuen Konstituzio espainiarraren berrespena Estatu-mailan (1978.12.06) eta EAeko Autonomi Estatutuarena (Gernikako Estatutua, 1979.10.25), boto-emaitzen % 53,79ak onartua. Euskal Herriaren egoerak, hala ere, bereziki gatazkatsua izaten jarraitzen zuen prozesu demokratiko hauen barruan. Donostiako Elizbarrutiko Gizarte-Idazkaritzak 80ko hamarkadaren azken aldean egiten zuen diagnostikoak egoera bereziki larria erakusten zuen Euskal Herriaren osotasunean, politika-, ekonomi, gizarte- eta etika-mailako elkarbizitzari dagokionez:

Euskal Herria gaixo dago... egoera kritikora heltzeraino... Ekonomia oso hondatua dago: gero eta langabezia handiagoa, enpresa txiki eta ertain ugariaren itxiera... Politikaren alorrean: era basa-

tian desegindako giza bizitzak, etengabeko tentsioak Gobernu zentralaren eta autonomiakoaren artean... Gizarte-egoeraren nariapena... Gero eta degradazio handiagoa (1980).

## EUSKAL GOTZAINAK EUSKAL HERRIRAKO

Egoera politiko berriak Elizaren eta Estatuaren arteko zenbait harreman askatzea bideratu zuen, Gotzainen izendapenari zegokionez batik bat; hau izan zen 1978az geroztiko emaitza:

### Gotzainak eta euren jatorria

IRUÑEA-TUTERA	Juan Jose Mendez (1971-1978) Velzrubio-koa (Almeria)	Jose Maria Zirarda (1978-1993) Bakiokoa
GASTEIZ	Fco. Peralta Ballabriga (1955-1979) Hijar-koa (Teruel)	Jose Maria Larrauri (1979-1995) Gasteizkoa
DONOSTIA	Jazinto Argaña (1968-1972) Berakoa	Jose Maria Setien (1972-79, 1979-...)* Hernanikoa
BAIONA	Jean Paul Vincent (1964-1986) Saint Étienne-koa (Lyon)	Pierre Molères (1986-...) Akizekoa
BILBO <i>(Laguntzailea)</i>	Antonio Añoveros (1972-79) Iruñekoa	Luis Maria Larrea (1979-1995) Ugaokoa
		Joan Maria Uriarte (1979-89) Fruizkoa

(\*) Laguntzaile izan zen 1979. urtera arte, eta gotzain 1979tik aurrera.

1979an Gasteizko gotzain berria izendatu zenetik, gotzain guztiak euskal herritarrak izan ziren lehendabizikoz hego Euskal Herrian. Beren lehentasunezko kezka pastoral nagusiak adiskidetzera eta bake-jarrerak bultzatzera zuzendu ziren, Euskal Herriaren berreraiketa eskatuz eta zuzentasunezko bake-bideen bitartez gogorkeria oro baztertuz. Honela adierazten zuen haien elkarren arteko idazki Pastoral bateko lerroalde adierazgarri honek:

Geu ere geure buruari galdezka gaude askotan kezkatu-rik, zer egin dezakegun gure artzain-kargutik indarkeria sustraitik atera eta gure erria poliki-poliki pakebidean jartzeko eginaalean laguntzeko, bear bearrezkoa den eta erritarrak geienek irrikatzen duten pakea lortzeko eta orri bidea erraztutzeko edozein eginkizun eta neke artzeko prest gaude («Gaurko indarkeriazko egoeran pake deia», 1978).

1979aren hasieran Eusko Kontseilu Nagusiaren Barne Kontseilaritzak hasitako kanpaina bat zabaldu zen, Euskal Herriko Eliza gogorkeriaren arazoaren aurreko jarreran desprestigiatu nahirik eta pasibotasuna salatuz. Bilbo eta Donostiako Gotzaitzien Informazio-Bulegoen Oharrak argi eta garbi uzten zuen gogorkeriaren gaitzezpenezko jarrera etengabea, zenbait kanpainaren intoxikazioen eta itxuragabeteen aurka eta zera jakinarazten zen: «Euskal Herriko Eliza prest dago orain artean mantendu izan duen bideari eusteko»<sup>16</sup>.

ETAren ekintzek bidea eman zioten euskal Gotzainen hainbat erreakziori; terrorismoa, tortura eta gogorkeria oro gaitzesten zuen jarrera hartu zuten, baita amnistia ere eskatuz. Donostiako Gotzainek, adibidez, hau zioten gogorkeriazko bi heriotzaren aurrean:

Gizatasunaren zentzurik oinarritzkoenak gaitzesten ditu, bakean bizitzeko eskubidea duen herriak gaitzesten ditu... ez dezagun adiskidetzearen eta amnistiaren bidea itxi<sup>17</sup>.

Poliziamen kontrol batean gertatu ziren bi etakideren heriotza zela-eta beren protestarik sendoena aditzera eman zuten Oharrean:

Bidezkoa den defentsa baino haruntzago, giza bizitzaren suntsipenera daramaten odol-isurketazko jarduerengatik, ordenako indarren eskutik badatoz ere... Agintari zein hiritarrei amnistia osoko kristau jarrera zintzoa eskatuz...<sup>18</sup>

Eskuhartze eztabaidatuenak «Pakea salbatzeko, salba askatasuna» (1981eko apirilaren 1ekoa) eta «Zuzentasuna zaintzea eta bakea eraikitzea» (LOAPARI buruz, 1982ko uztailaren 24koa)

izenburua zuten Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Gutun eta Exortazio pastoralak izan ziren. Lehenak, bai otsailaren 23ko Estatu-kolpeaz gero areagotu ziren ETA ren ekintzak, bai Batallón Vasco Español deritzanarenak gaitzesten zituen. Eskuhartze militarraz ohartaraziz, herriak bere ibilbide demokratiko eta autonomikoa erabaki ahal izateko zuen askatasunaren alde azaldu ziren. Bigarrenean, «konpromezu baten edukia errotik aldatzen duen eta gutxiengoaren eskubideak murrizten dituen eta herriaren pakerantzko bidea larriki oztopatzen duen» lege hura etikaren aldetik deslegitimatzen zuten.

Batak zein besteak agintean zegoen klase politiko espainiarren eraso gogorrak piztu zituen, gutxiengoaren askatasunen defentsako esanahi pastoralak ulertu ezinik, politikan eskusartzetzat hartu baitzuen. *El País* egunkariak, alabaina, 1981eko apirilaren 3ko «Zuzentasuna zaintzea eta bakea eraikitzea» Gutun pastoralari buruzko bere editorialean esaten zuen «Gobernuaren erreakzioak aurreko erregimenak eliz hierarkiaren prozedura kritikoen aurrean —Añoberos gotzainarena, esate baterako— hartutako jarrera batzuk gogorarazten» dituela eta —zenbait kritika eginez bazen ere— «adierazpenaren edukiarekiko funtsezko adostasuna» agertzen zuen. Elizako talde eta izen ospetsu asko atera ziren Gutun honen alde; Bartzelonako Kardinal-Artzapezpikua, Iruñeko Artzapezpikua, HOAC, Zuzentasuna eta Bakea, etab.

Euskal Herriko Gotzainek aztertu zituzten baita gizarte-arazoak ere beren osotasunean, bai pobretasunari, zein gizarte-egoera nagusiari zegokienez, denen arteko bi Gutun Pastoralen bidez: «Behartsuek Elizari deadar» (1981) eta «Kristauaren jarrera gaur egungo krisialdiaren aurrean» (1982). Leku bakoitzean ondorio xehe eta bereziak zituen eta «ekonomi hazkundearen gelditze handiak eta langabeziaren nahiz inflazioaren gorakadak» bereizten zuen ekonomi krisialdia orokor eta luzea salatu zuten. Gazteriarren gain bereziki eragina zuen langabeziaren maila beldurgarria azpimarratzen zuten. Bilbo eta Donostiako Gotzainak arazo horren oihartzuna jasotzen zuten eta «gizarte-izurrite» deitzen zioten eta, Iruñea eta Tuterako elizbarrutietako Apaiz-Kontseiluak 1981eko maiatzaren 26an salatzen zuenez:

Gizarte-egonkortasunarentzat arriskua zen eta etsipen-egoerak sortarazten zituen familia askotan, ondoriozko gazteria langile, nekazari eta unibertsitarioaren hondamenaz, delikuentziak edo drogaren ihesbideak tentaturik.

## BESTE ELIZ TALDEEN JARDUERAK

Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Gizarte-Idazkaritzek gizarte-katekesiko eta arazo kezkarrietan inguruko balorapen-infomazioko lan zabala burutu zuten. Aipagarriak Konstituzio berriaren inguruko ekarpenak (1978), Autonomi Estatutuarenak (1978) eta indarkeria armatua Euskal Herrian gaiari buruzko gogoetak (1979-80). Idazkaritza hauek ekonomi krisialdiaren eta langabeziaren arazoak ere landu zituzten zenbait ikerketa eginez: «Langabezia» (1979), «Behartsuen aldeko aukera, klase-aukera» (1981), «Langabeziaren aurkako borroka aldaketa-proiektu baten barruan» (1983), «Egin dezagun ekonomia gizatiarra» (1984).

Aurreko aldiko Ekintza Katolikoaren krisialditik hasita,aldi honetan ez dago apostolutza-mugimenduen jarduera aipagarriarik, kopurua ere nabarmen jaitsi zenez<sup>19</sup>.

Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrek 75-80 urteen bitartean jarduera koordinatu handia hasi zuten hego Euskal Herriko lau herrialdeetan. Kristau taldeok eta, 1976az gero antolatu zen Euskal Herriko Apaiz Koordinakundeak (Ipar-Hegoaldeak barne) Euskal Herriaren eta langile klasearen aldeko hautapenak zehazten ari ziren. Hauen adierazpen-organo izateko jaiotako *Herria 2000 Eliza* aldizkaria (1978) eta izen bereko taldea. Kartzelatuen eta erbesteratuen arazoari buruzko inolako aipamenik egiten ez zuen Euskal Herriaren egoerari buruzko Joan Paulo II.aren hitzaldi bat zela-eta, Apaiz Koordinakundeak 250 apaiz euskaldunek izenpetutako gutun bat igorri zion 1979ko abenduan<sup>20</sup>, ehundaka presoren torturen eta defentsarik gabeko egoeraren berri emanez. Egoerari «Herriaren genozidioa» deitzen zitzaion. Eliza ofizialak, haien ustez, zuen jarrera salatzen zen eta amnistia osoaren alde eskuhar zezala eskatzen zitzaion. Esaten zen baita:

Atsulituki nahi dute gure nortasuna, gure historia, gure euskaldungoa, gure kultura, gure eskuara peskei eta gal diten emeki emekia, erranez horiek guziak begiratu behar direla oroitzapen gisa ez eta oraino bizi eta sustatu behar diren ontasun batzu bezala.

Koordinakunde berak presoan egoerari buruzko ikuspegia eta azterketa adierazten zuen, 1981eko abenduan banatu zen dossier zabal batean: «Preso guztien alde». Hego Euskal Herriko gotzain bakoitzari eman zitzaion gutunean, dramatikotzat jotzen zen haien egoera, «Terrorismoaren aurkako Lege ez-gizalegezkoagatik... epaiketen atzerapen luzeengatik... espetxeetako bame-egoeragatik... senitartekoen egoeragatik... presoan mutu-erreko erreakzio beraiengatik, egoeraren aurrean».

#### EUSKAL ELIZ PROBINTZIAREN ARAZOA

Euskal Eliz Probintzien mugak arazo bereziki gogorra izan dira eta izaten jarraitzen dute euskal Elizarengat. Gasteiz elizbarrutiaren zatiketa —hiru elizbarruti sortuz: Bilbo, Donostia eta Gasteiz—, jakina denez, 1949ko azaroaren 2an egin zen, Estatu-Buruaren eragin zuzenaren pean eta haren egituratzea 1950eko urtarrilaren lehen agindu zuen Nuntzioak. Gasteiz eta Bilbo Burgosko Eliz Probintziari itsatsi ziren eta Donostia, Iruñekoari. Jesuitek ere Bizkaia eta Araba (Mendebaldeko Gaztela) Gipuzkoa eta Nafarroagandik (Ekialdeko Gaztela) banatu zituzten; 1962an Kuria Jeneralak bateratu zituen Euskal Probintzia bakar batean.

Iruñea eta Tuterako Apaiz-Kontseiluak 1976ko otsailaren 19-20ko jardunaldian gehiengo zabalez onartu zuen, dagoeneko, bai aipatu lau elizbarrutien «komunioarte pastoralak», bai «Iruñea eta Burgosko eliz probintzien mugen aldaketarako bidezkoak ziren pausoak» ematea. Geroago, Espainiako Gotzain Konferentziak berak 1978ko azaroaren 20-25eko XXX. Batzarrean Iruñea eta Tuterako Eliz Probintzia onartu zuen, Bilbo, Donostia eta Gasteizekin batera.

Kristau Elkarte Herritarrek eta Euskal Herriko Apaizen Koordinakundeak «Aita Santu Paulo VI.ari» izeneko gutun ba-

tean adierazi zuten eskakizun hau (1977). Gainera Euskal Gotzain Konferentziaren eraketa ere eskatzen zen eta herriaren nortasun eta kulturarekin erabat bat egindako bertako gotzainak izateko eskubidea. Ekintza hau izenpe-bilketa zabal batekin batera burutu zen, 100.000tik gora lortuz; aipatu Koord. i. nakundeko batzorde batek, gainera, gotzain espainiarren Batzarrearekin harremanak izan zituen, baikorrak dirudienez.

1977az gero, Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainek izenpetutako elkarren arteko Gutun Pastoralak argitaratzen hasi ziren<sup>21</sup>.

## ELIZA EUSKAL HERRIAN 1982-1995 URTEETAN

Gehiengoak onartu gabeko lege- eta konstituzio-ordenamenduaren testuinguruan jaiotako arazo politikoak eta Euskal Herria egituratzeko prozesuaren erako desadostasunak aurrera darraite urte hauotan.

Aldi honetako mugari diren gertakari eta prozesu politikoek —hala nola Aljerko elkarrizketak, gero «bloke demokratikoa» bideratu zuen «Ajuria-eneko Ituna» deituriko «Euskadiren normalizio- eta bake-akordioa» eta, ez-legezko proposamen gisa, EAEko Legebiltzarrean aurkeztu zen eta 1990eko otsailaren 15eko batzarraldian onartu zen autodeterminazioaren inguruko eztabaida zabala— Elizaren jarrera hartzea eskatzen zuten.

Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Gizarte-Idazkaritzek, bestalde, estatuko multzoaren baitan euskal ekonomiak une hartan pairatzen zuen krisialdia nabarmendu zuten, besteak beste. Dei berezia egiten zen desindustrialitzeak eta birmoldaketak eragindako arazoez; ondorioetako bat gazteriaren gain oso era berezian eragina zuen langabezia zen.

Elizbarrutietako Elizak egoera berrietara egokitu eta planteatutako beharrei erantzun nahirik, Bilboko (1982-87) eta Gasteizko (1987-1991) Elizbarruti-Batzarrak ospatu dira, baita Baionako eta Iruñeko Sinodoak ere eta Zestoako bilkurak, Gipuzkoari dagokionez. Horien helburu pastoralak Tokiko Eliz bakoitza



aldien eskakizun berrietara egokitzen eta elizbarruti bakoitzean Euskal Herriko arazoek konplexutasunari erantzunak ematen saiatzea dira. Eliza «irekiagoa eta lekukoagoa, bihozberrituagoa, gazteak partaide sentituko direna, langileen munduan txertatua eta Elizan emakumearen baztertzearen aurka ateratzeko gauza dena» bilatu dute<sup>22</sup>.

## EUSKAL GOTZAINEN JARRERAK

Urteotan oso ugariak izan dira gotzainen eskuhartzeak bakea lortu asmoz. Jose Antonio Pagola, Donostiako Bikario Nagusiak, «Euskal Gotzainen azalpen publikoei dagokienez», hauxe zioen:

Euskal Herriko Gotzainek duela nahiko urte, agerian eta taldean, azaldu izan dute beren prestutasuna bake-biderako baliagarria izan litekeen edozein zerbitzutarako... Eskaintza hau, beraiei dagokienez, betebeharrak gisa ikusten dute eta hitzok ez dira ahoberoko esanak, agerian aitortu baitute bakearen alde baliagarri litekeen edozein zerbitzutarako prest daudela<sup>23</sup>.

Aldi honetan zehar ez dago zalantzarik ETaren gogorkeria amatuaren aurreko beren gaitzespenen argitasunaz: «ETAk militarrei, ordenako agenteei, eta hiritarrei eragindako gogorkeriazko heriotzak zalantza izpirik gabeko gaitzespena merezi duten hilketak dira» («Indarkeria ezabatu, zergatiak ahulduz», 1985). Agiri eta oharrak erabatekoak dira: ETA eta honen laguntzaileak «gizakiaren aurka ari dira borrokan... gure erantzukizuna eta konpromezu zuhur eta eraginkorra esnatu behar dugu giza bizitza zaintzeko» («Gizalegezko bizitzaren zerbitzura», 1992ko martxo)<sup>24</sup>.

Oihartzun politiko berezia izan zuen, alderdi politikoek erreakzioengatik, «Elkarrizketa eta negoziazioa pakerako bide» izeneko Gutun Pastoralak (1987ko abenduaren 12a), ETA eta Gobernu espainiarraren artean egin zorian ziren negoziazioen testuinguruan idatzia. Gai nagusia bakea izan zen: «Euskal Herria asperturik dago gogorkeriaz; bakea nahi du bizirik irauteko, eta gogorkeriararen eta borrokaaren ondorioak jasaten dituz-

ten hainbat familia eta pertsonen nahigabea kentzeko». Gutun honen punturik eztabaidatsuenak Gotzainek azaltzen zituzten aurreusteak eratutako «Euskal Herrian bakea egiteko bideak» ziren. Bost puntutan gauzatze ziren: «eredu politiko-instituzionala, autodeterminazioari buruzko eztabaida, negoziazioaren bidea, polizi ekintza eta giza eskubideak, nazioarteko lankidetzak». Honako eskaintzaz bukatzen zuten: «Geure aldetik, Gotzaiok prest gaude geure esku dauden zerbitzuak egitera, beti ere gure pastoral arduraren alorrean».

Hurrengo urteko garai beretsuan, 1988an, J.M. Setienek Abendu-Eguberriko bere ohiko Gutun Pastoralak idatzi zuen, zera proposatuz beste «adimen eta zuhurtasun politikoko oinarrien» artean:

Gehiengotasunezko gizarte-adostasuna irabaziko duen gizarte-proiektu orokorra izatera iritsi beharra eta bertan jaso daitezela elkarbizitzaren bideratzailetzat onartzen diren oinarriko balio etikoak.

«Euskal arazoa» normalkuntza bidetik aztertuz, zera adierazten zuen beharrezkotzat:

Euskal Herria gero eta bere buruaren jabeago egingo den bidea egitea, bera izateko eskubidea eta errealitate politiko jator gisa izateko gogoia eta eskubidea gauzatuko duten erakunde egokiak berarrentzat emateko eskubidea erabiliz.

Euskadik ez dauka bakearen ziurtasunik ETaren desagertzeaz... Galde diezaiogun geure buruari ez ote gauden gogorkeria politikoa hiritar bizibideko eremu guzti horiez arretatzeko, aztertzeko eta baloratzeko estalki bihurtzeko arriskuan, eta ezagutzeko zein neurritan bilatzen den zuzentasuna gero eta barne-baketzerako bide etengabetzat.

Azpimarragarriak dira Euskal Autonomi Elkartearen Gotzainen erreakzioak euskal Estatutuaren alde, herri nahiaren adierazpen gisa, eta LOAPA (Autonomi Prozesua Armonizatze Lege Organikoa) zein LODEren (Hezkuntzarako Eskubidearen Lege Organikoa) aurka<sup>25</sup>. Hezkuntza Legeari buruz, transferentziak mugatzen zituzten arriskuez hitz egiten zuten eta ez zue-

la ez babesten, ez laguntzen kultur eta hizkuntz ondarea. Aipatzekoa da baita ere kultur gatazkari buruz egindako azterketa, Euskal Herrian elkarrekin bizi diren kulturen begirune, balorazio eta garapenaren alde agertuz.

#### GOGORKERIAZKO GATAZKAK ETA HORIEN ZERGATIAK: BESTE ELIZ JARRERAK

Gogorkeriarmarazoa ikuspegi politikoan gauzatu nahi izan bada ere, euskal Elizak oro har —gotzain, apaiz, elkarte eta laikoen elkarteek— kontuan izan ditu era berean gogorkeriazkoak ziren beste gatazkak ere: ekonomi, gizarte, politika, kultura, ekologi... mailakoak.

Donostiako elizbarrutiko Bikarioak berak, Jose Antonio Pagolak, oso kritikatuak izan ziren baieztapenak egiten zituen euskal egunkari bateko zutabearen (1992.03.02): ETako gizon-emakumeak «beraiek hasi ez duten dinamika terroristak kalte-tuak dira eta horren sorrera herri honen bidezko nahiak ez ezagutzeak eta mesprezatzeak bakarrik bideratu du».

Euskal Herriko Apaiz Koordinakundeak gogorkeria batzuk eta besteak era desberdinez kalifikatzearen garrantzia azpimarratzen zuen bere agirietaiko batean:

Batzuk besteen aurrekoak dira; batzuk defendatzeko dira eta besteak erasotzeko; batzuk jatorrizkoak dira eta besteak eratorriak; batzuk ezarritako agintearen lege-, arau- eta ideologi indar guztiaz eutsi eta mantentzen dira, besteak gizartearen geruza baztertu eta zapalduenetatik datoz («Indarkeria askatasun bideetatik deserrotu», 1985).

#### NEGOZIAZIOAREN ETA TALDE-ESKUBIDEEN ALDE

Ñabardura eta bide desberdinetatik Gotzainek zein beste eliz taldeek euskal arazoaren konponbide hau azpimarratu izan dute.

Euskal Herriko Gotzainak ETArekiko elkarrizketaren eta negoziazioaren aldekoak izan dira; baina zera aitortzen dute:

Negoziaketak elkarrizketa baino zerbait gehiago esan nahi du... negoziaketan bilatzen da, aldez aurretik onartutako akordio batera denak iristea, akordio honek erantzuki bat eskatzen duelarik jokabide praktikoa eta eginkor bat edukitzeko<sup>26</sup>.

Madrilgo egunkari bati eginiko adierazpenetan (1992.03.26), Pierre Molères Baionako gotzainak berak zera zioen, «hemen go eta hango Elizak inoiz ez duela gogorkeria armaturik bultzatzen» esan ondoren:

Elizak uste du bide demokratikoetatik borrokatu behar dela, negoziazioaren eta elkarrizketaren bidez.

Bakerako bide gisa negoziazioa eskatzea *Herria 2000* Elizaren lelo etengabea izan da, baita Kristau Elkarte Herritarrena eta Euskal Herriko Apaiz Koordinakundearena ere.

Oihartzun zabala izan zuten nazioartean *Herria 2000* Elizak bultzatu eta antolatutako 1985eko martxoaren 26tik 29a arte ospatu zen Europako nazio gutxienduen talde-eskubideei buruzko I. Kongresuak eta bakarkako eta taldeko Giza Eskubideei buruzko II. Kongresuak. Kongresu bata eta besteak Euskadiko, Estatuko eta atzerriko pertsonalitate ugariaren eskuhartzea izan zuten eta Autodeterminazio-eskubidea aitortu beharra eta aitortpen horren alde borrokan ari diren herri guztiekiko elkartasuna baieztatu zuten, Europa eraikitzeke oinarri bezala.

Herrien askatasunaren salaketazko eta eskakizunetako gogoa hau 1993an Gasteizen ospatu zen Europako Oinarriko Kristau Elkarten Nazioarteko Konferentzia baten gaia izan zen. Europako Herrien askapen-prozesuak garaien zantzutzat hartuz, eztabaidan jarri zen «egungo estatuen oinarri gainean eta eratzten duten herriez ahaztuz eraikitako europar batasunerako prozesua» eta proposatu zen CONSEUren bigarren Konferentzian (Bartzelona, 1990) onartutako herrien Talde-Eskubideen Aitortpen Unibertsala hartzea Oinarriko Kristau Elkarten gogotarako eta jardunbiderako. Herri oro ren oinarritzko eskubideetako bat autodeterminazio-eskubidea zela aitortu zen. Era berean Herri orok, bere nortasunaren seinale eta kulturaren

euskarri gisa, bere hizkuntzan adierazteko duen talde-eskubidea ere azpimarratu zen. Honela zioen amaieran:

Talde gutxientzea menderatze- eta pobretze-erak dira eta, horrenbestez, Jainkoak dagien herrien askapenaren aldeko elkartasunerako deia. Elizek herrien arteko Europaren eraikuntzan konprometitu behar dute<sup>27</sup>.

Azpimarratu beharrekoak dira, duten garrantzi sozial eta politikoagatik, hala deituriko «Bakearen aldeko gizarte-mugimenduen» sorrera eta jarduera: kokapen eta planteamendu desberdinetatik beren ikuspegi eta proiektuen ekarpena egin nahi dute, Euskadiren normalkuntza lortzeko, hainbat jarduera eta mobilizazioen bidez. *Herria 2000 Eliza* taldearen bidez, hala deituriko Maroñoko taldeen barruan lan egiten jardun izan da.

#### GIZARTE-, EKONOMI ETA LAN-EGOERA

EAEko Gotzainek orientazio-irizpideak ematen zituzten eskuhartze demokratiko honen erabilpenerako, 1994.10.08ko hauteskundeen aurrean, hauek azpimarratuz:

Normalkuntza politikoa, ekonomi krisialdia gainditzea, lanpostu berriak sortzea, ahulenen arreta, gizarte-harremanetan zentzu etikoa berreskuratzea, itxaropen berriaren iratzarpena eta bizitzaganako maitasun zintzoa.

Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Gizarte-Idazkaritzek, Parlamentu Europarrerako hauteskundeak zirela-eta eta egungo demokraziaren arazoaren aurrean, bestalde, bi ekarpen interesgarri argitaratu zituzten orientabide sozio-politikorako, Europaren etorkizunaz, «partitokrazia ezabatzean oinarritutako eta gure demokraziari aurrera egiteko iradokizunak» aurkeztuz, «zerrenda itxien edo hauteskunde-hitzarmenaren bidezko ordezkatzeko-sistema gainditzeko», edo «hiritar eta politika-erakundeak barne demokratizatze», «batasuna eta pluralismoa hobekiago artikulatzeko eta Estatu-arrazoaren oinarriari uko egiteko». Zabaltasunez aztertu zuten baita industri birmoldaketa ere, etikaren ikuspegitik<sup>28</sup>.

Gai hauez beraiez eta 1995eko maiatzeko udal eta foru-hauteskundeak zirela-eta, Euskal Herriko Kristau Elkarte Herri-tarrak komunikatu bat plazaratu zuten eta, besteak beste, hau esaten zuten:

Herria zerbitzatzea, batez ere, gure gizarteko hainbat sektoretan baztertuen daudenei jaramon egitea da: langabezia dauden gizon eta emakume langileei, lehen lanpostuaren bila ari diren gazteei, ekonomi eta gizarte-urritasun larriko egoeratan dauden pertsona eta familiei, preso sozial eta politikoei, etorkinei.

#### INTSUMISOEN ERREBINDIKAZIOAK: ELIZAKO JARRERAK

Oso desberdinak gertatu dira, intsumisoek piztu duten arazoaren aurreko eliz jarrerak eta kokapenak. Iruñeko artzapezpikuak egintza isolatutzat hartzen zuen erabaki hau, «legezko agintariak soldaduzkaren ordez ezarritako gizarte-zerbitzuaren onarpenari uko egitea» bezala hartuz. Haren ustez, «gizarte idealizatuaren ideari erantzuten dio»<sup>29</sup>. Ez zen iritzi berekoa Jose Maria Larrauri Gasteizko Gotzaina; honek intsumisioaren justifikazioa ikusten baitzuen Vatikanoko II. kontzilioaren baieztapenetan eta agerian defendatzen<sup>30</sup> bai apaiz intsumisoak, bai kontzientziagatik jarrera hau hartzen zuten gazte guztiak.

Eliz talde asko ziren Iruñeko artzapezpikuaren jarrerari erreakzionatu ziotenak, intsumisio-jarreraren kristau-esanahia baieztatuz eta bake-balioen adierazpen-era zela agertuz (1993.09.22). Apaiz eta erlijioso ugari bat egin zuten «Euskal Herriko apaiz eta erlijiosoak, intsumisioaren alde» agiriarekin (1994ko maiatza). Elizak salaketa-jarrera harrezkala eskatzen zuten gerra-ekintza ororen eta arma lehia ororen aurka eta intsumisioaren alde atera zedila, kaperau eta apezpiku militarrek kenduz era berean eta ordezko gizarte-prestazioari ezezkia eskatuz. Kolektibo batak eta besteak hainbat eratarazi jakinarazi zuten mugimenduarekiko eta intsumisioarekiko elkartasuna, espetxeratuak izan zirenekin batik bat. Kristau Elkarte Herri-tarrek eta Euskal Herriko Apaiz Koordinakundeak, bestalde, hainbat eratarazi azaldu zuten intsumisioaren aldeko beren jarrera, zuzentasunezko gerrari buruzko diskurtso militarista

baztertuz eta ez-biolentzian eta hiritar desobedientzian oinarritutako defentsa-ikuspegia onartuz.

#### PRESOEN EGOERAREN AURREKO ELIZ ERREAKZIOAK

«Presoen etxeko eta lagunak» agirian (1991) Bilboko Goetzain Luis Maria Larreak eta Joan Maria Uriartek presoengiza eta kristau-arretaren alde egiten zuten gonbiteak eztabaida bizia sortarazi zuen «preso politiko deituei» buruz egiten zen aipamenak. Halako bereizketarik ez dagoela aitortuz, ondoren kaleratu zuten «Behar-beharrezko azalpena» ohar batean, zera argitzen zuten: «preso politikoak deituak delako esaldi hau gure alkarteko jendeak kalean darabilen berbetatik hartuta dago» eta hori ez zela inolaz ere «komunen hobenduriak eta ETArekin hilketak» estaltzeko aitzakia.

Gizon eta emakume presoengiz eskubideen salaketa- eta babes-ildoak jarraituz, Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrek eta Apaiz Koordinakundeak presoengiz egoerari buruzko agiri batez amaitu zuten 1993a; haien duintasunaren aldeko deia egiten zen, giza eskubideen begirunea eskatuz beste behin kartzeletan:

Egunetik egunera okerrera doan preso guztien egoerak etengabeko salaketa eskatzen du. Lagun presoengiz hainbat eta hainbat senitarteko, adiskide eta lagunengiz oinazearekin bat eginik, haiengiz eskubideenganako begirunea eskatu nahi dugu eta haiengiz askatasunean aurrera egitea, horrela Euskal Herri zuzen eta bakeraturako bidea ireki dadin.

Jose Ramon Treviño, Irungo artziprestearengiz eta Frantxua Garat, Ezpeletako parrokoaren atxiloketak eta espetxeratzeak une zail eta larriak izan zirengiz, horien ondorio politiko eta eliztarrengatik. Pierre Molères, Baionako apezpikuarentzat, egintza hau jarrera ebanjelikoan txertatua zegoengiz. Gotzain honek berak Pariseko epaimahaiarengiz aurrean bere apaizarengiz aldeko lekukotasuna eman zuenean (1995.11.15), haren euskal kultur tradizioarengiz leialtasunean, Baionako Elizak zailtasunetan zeudengiz irekitasun eta eskuzabaltasunean eta

baztertuen eta presoen aldeko jarrera ebanjeliotarrarekiko zintzotasunean oinarritu zuen bere argudio pastoralak.

## HIZKUNTZ ARAZOA ETA EUSKAL KULTURA EUSKAL HERRIKO ELIZAN

Hego Euskal Herriko Gotzainek zenbait alditan aztertu izan dute Euskal Herriko kultur gatazka<sup>31</sup>. Haien iritziz euskara eta gaztelania «elkarrekin bizi dira» eta «elkarren aberastasun-iturria dira... baina zatiketarako elementu eta elkarren aurrez aurreko bi elkareren sorrerarako bide ere badira». Gatazka honek, uste dute, «eliz bizitza bera zipristintzen du, ondorioak baitituzte bertan gizarteko tentsioek».

Kontuan hartzen bada hizkuntza dela kulturaren bide nagusia eta herrien nortasunaren funtsezko oinarrietako bat<sup>32</sup>, euskal kultura beste hizkuntza eta kultura batek asimilatua eta ordezkatua izateko bide arriskutsuan dago. Akulturazio egoera mehatxatzaile honen aurrean, euskara eta zuzenki euskaldun den kultura honen hizkuntz ardatzaren inguruan sendotu behar etikoa azpimarratu izan da. Azken gotzainek —Antonio Añoveros, Juan Jose Mendez eta Jose Maria Larrauri<sup>33</sup>, Jose Maria Zirarda, Jose Maria Setien, Luis Maria Larrea, Joan Maria Uriarte<sup>34</sup>— indar gehiagoz edo gutxiagoz mantendu duten ahalegin eta lekukotasuna izan da.

Pierre Molères, Baionako gotzainak euskal kulturaren begirunean eta balioztapenaren garrantzia azpimarratzen zuen, euskarazko ebanjelizazioa indartzera animatuz:

Hemen bere etxean dagoen euskal kulturako gutxiengoak begirunea jasotzeko eskubidea duela konturatu behar duzue, susmagarria edo isileratua izan ordez. Euskaldun izatea terrorismoaren sinonimo izan ez dadin lagundu behar duzue, etorkizun handiko herri txiki baten kultura biziaren adierazpena baizik<sup>35</sup>.

Baina betebeharrak etikoa izateaz gain, euskara erantzukizun inkulturatzailearen zatia ere bada. Hala adierazten zuten Iruñeko artzapezpiku berriari idatzitako gutun irekia izenpetzen zuten ehun apaizek:



Gotzaina euskalduna izateak zerikusi handia du Nafarroaren ebanjelizazio-lanarekin... Zaila da haragi egin den Berri Onaren mezulari (sinesgarri) izatea, herriaren hizkuntza eta kultura baztertuz.

Talde honek zapaldurik eta pobreen artean ikusten ditu hizkuntza eta kultura eta, horrenbestez, Nafarroan den Elizak arreta berezia eman behar die. Bilboko Elizbarrutiko Kontseiluek ere, apezpiku berriaren izendapena zela-eta, bi hizkuntzetan moldatzeko gaitasuna izango zuen artzain baten eskara berretsi zuten, kristau mezuaren inkulturaziorako zehaztاپen egokia zenez.

#### BERRIRO ERE APEZPIKUEN IZENDAPENA

Arazorik berriena eta Euskal Herriaren errealitatearekin aurreko eliz jarrera eta harremanen adierazgarria, Iruñea, Bilbo eta Gasteizerako Gotzainen izendapena zela-eta piztu dena izan da, ezbairik gabe. Behin azken biak izendatuak izan zirenetik, honela eratuta geratu da Euskal Herriko hierarkia (1995eko iraila):

#### **Euskal Herriko hierarkia**

<i>Elizbarrutia</i>	<i>Gotzaina</i>	<i>Nongoa</i>
IRUÑEA-TUTERA	Fernando Sebastian	Calatayud
DONOSTIA	Jose Maria Setien	Hernani
GASTEIZ	Miguel Asurmendi	Iruñea
BAIONA	Pierre Molères	Akize
BILBO	Ricardo Blazquez	Villanueva del Campillo (Avila)
<i>(Laguntzailea)</i>	Karmelo Etxenagusia	Iurreta

Fernando Sebastianen izendapenak egonezin latza sortarazi bazuen nafar apaizgoaren zati baten artean, euskara ezagutzen ez zuelako, Ricardo Blazquez Bizkairako aukeratzea izan da protestarik ugarienak piztu dituenak. Politikako eta elizako erreakzioak Vatikanoko erabakiaren aldeko edo aurkako jarreraren arabera gauzatu ziren. Eliza hierarkikoak, zenbait proposamenen zilegitasuna bultzatu arren, izendapenak onartzeko gonbitea egiten zuen. Apaiz Koordinakundeak honela laburbiltzen zuen egoera eta hartutako jarrerak:

Entzungor egin zaie Gotzain berrien soslaiari buruz kritikoenak edo zorrotzenak ziren elizako edo gizarteko joerei. Adiera honetan, ez dugu uste Vatikanoko II. kontzilioak proposatutako Jainko-Herriaren parte hartzeko jitearekin bat datozenik eraman izan diren prozedura isilzaleak eta beste jarrerari adierazpen- eta iritzi-eskubidea ukatzen zuten iritziak.

Kezkagarria egiten zaigu gure Gotzainen izendapena Estatu espainiarreko indar zentralisten amore emaleen eta aldekoen Euskal Herriari buruzko analisisiek lagundurik joan izana. Vatikanoko Euskal Herria nortasun, kultura eta egoera soziopolitiko berezia duen herri eta naziotzat eta honen errealitate pastoralaren berezitasuna kontuan hartu ez izanak argitzen du zenbait eskabideri jaramonik ez egin izana. Eta bereziki, gure hizkuntzak pastoralki zein sozialki esan nahi duena kontuan hartuz, izendatuak izan diren Gotzainen euskararen ezaguerarik eza salatzen dugu, beren artzapezpikuaren izendapenekoan ehun apaiz nafarrek egin zuten era berean<sup>36</sup>.

Eztabaida honetan guztian argi baino argiago geratu da vatikanoko instantzia gorenak gauzatu duten jarrera eta bihurketa, gaurko Elizak Euskal Herrian bizi duen koiuntura larriari aurre emateko, euskal kultura eta hizkuntza ezagutzen ez dituzten hiru Gotzain izendatuz.

#### ELIZA IPARRALDEAN EUSKAL ARAZOAREN AURREAN

Urteotan zehar jabetze- eta jarrera hartze-prozesu adierazgarria gertatu da.

Pierre Molères, Baionako gotzainak homilia bat esan zien 1987ko irailaren 2an elizbarrutiko katekistei, Elizak euskal arazoaren aurrean zuen jarrera definituz: Euskal Herriaren kultura propioa defenditzekoa eta «lehen ilaran dauden apaizekiko» konfiantza berrestekoa. Azpimarratu beharrekoak dira gotzain beraren zenbait eskuhartze garai honetan bertan euskal kulturaren alde eta beste guztiak bezala garatzeko eta hartua izateko eskubidea aitortzeko. Bake-nahia ere adierazi zuen eta, zehazki, elkarrizketaren eta negoziazioaren alde atera zen, berak direnez Elizak hautatzen eta ahalegintzen den baliabide demokratikoak. Gotzain berak zenbait komunikatu kaleratu

izan ditu, bai atxilotuen egoerak bai ETA rekin zerikusia izatearen akusaziopean eginiko elizgizonen atxilotetek planteatu izan dituzten zenbait arazoren aurrean.

«Herriarekin» elkarrekin, bestalde, aurrera eramaten jarraitu du euskal errefuxiatuen aldeko bere lan eskerga, hainbat jardueraren bitartez, «haien egoera latzak, egiaren eta zuzentasunaren aldeko arretak eta neurri administratibo arbitrarioen kezak» eraginda. Euskal arazoaren zatitzat jotzen dute euskal errefuxiatu politikoen arazoa eta, apaiz abertzale direnez, beren arreta guztia eskatzen die eta euskal gizon eta emakumeen eskubideen alde eta Euskal Herriak iraun dezan borrokan jarraitzeko nahia eta konpromezua adierazten dute.

## AMAIERA

Euskal Herriaren berrikitako historiako hainbat aldi korapilatsuren luze-zabalean jarrera ezberdinak mantendu izan dira gaur arte Euskal Herrian dagoen Elizaren baitan.

60ko urteen inguruan kristauen euskal arazoarekiko harremanak izateko era berri bat adierazten eta gauzatzen hasi zen. Askapen nazional eta sozialaren prozesua sustatzera zuzendutako borroken artean, askapen erabatekoa bilatzen da eta hainbat konpromezu-era hartzen, fededun-praxitik. Hautapen anitz hauek iparraldeko eta hegoaldeko sekular eta apaizak bateratu eta elkartu dituzte.

Hego Euskal Herriko lau elizbarrutietako Hierarkiak euskal eta sozial arazoarekin nabardurazko sintoniarainoko bilakera eraman du, jarrera nazional-katolikoetatik, kultur errealitatea eta Euskal Herriaren eskubideen nolabaiteko defentsa berenganatuz, autonomi prozesuaren, Gernikako Estatutuaren eta kristau demokraziaren barruan.

Bizirik diraute eskuin espainolistako jarrera kontserbadore minoritarioak. Katolikoaren sektore garrantzitsu batek bultzatua jarraitzen du eskuin nazionalistak; hauek eliza autoktonoa eskatzen dute, horretan kultur aldetik euskalduna edo elebidu-

na ulertuz eta, politikoki zein sozialki, demokrazia kristauaren koordenatuen barruan. Hala ere bereizpenak egin beharra dago herrialdeen artean. Araban eta Nafarroan eta baita Iparraldean ere handiagoa da nazionalismoarekiko aldentzea Elizaren baitan.

Bilbo eta Gasteizko Gotzain berrien izendapenaren inguruko eztabaidak Vatikanoren beldurra azalarazi du euskal Eliza hierarkikoa eginez joan den bidearen eta ustezko «nazionalismo gogorreko» jarrera zehatz batzuen aurrean. Ondorioz lema-iraulketa bat egin du aldi berri baterako, politika espainiarreko aldaketaren aurrean, haren inguruan mantentzen saiatzen denez Euskal Herriko Eliza, zenbait eskakizun inkulturatzailek tokirik ez duten neokristandade errestaurazionistaren xedeaz.

*Euskaratzailea:*  
*ESTEBAN AGIRRE*

## Oharrak

1. Ez da ahaztu behar 1939an Parisen erbesteratutako euskal apaizen, *Anayak*, eta 1950-52 bitartean apezpikuen debekura arte iraun zuen *Egiz* aldizkariaren arteko bihilabeteroko korrespondentzia. Haien ekin-tza-haria euskara pastoraltzan eta gizarte mailatan kentzearen, langile-sindikatuena eta adierazpen-as-katasunaren debekuaren salaketan gauzatu zen, eliz agintarien isiltasuna ere salatuz.
2. Aipa ditzagun, besteak beste, isilpean bildutako izenpe ugari zituen «Documento dirigido al concilio Vaticano II» izeneko (1963.10.29) (o.c. 128-138); «Gure Aita Santu agurgarri Paulo VI-garrenari Bizkaiko abade Euskaldun talde batek» izeneko (1968.11.04); euskal apaizterriko bostehun apaizek izenpetu-tako «A la Conferencia Episcopal Española» (1969.-3.17) in H.A. Herria-Eliza. Euskadi Pueblo-Iglesia. Problemática Vasca, Donostia, Auñamendi, 1978; 1967ko apirilean Bizkaiko 107 apaizek izenpetuta-ko «Carta abierta al Excmo. Sr. Dn. Francisco Franco Bahamonde y al actual Gobierno del Estado Es-pañol», ik. IZTUETA, P., *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1970*, Zarautz, El-kar 1981, 157; ik. baita ALDAY, J.M., Crónicas. *La voz del clero vasco en defensa de su pueblo*, I eta II, Bilbo, Idatz Ekintza, S.A., 1986; BARROSO, A. *Sacerdotes bajo la atenta mirada del régimen franquista (Los conflictos sociopolíticos de la Iglesia en el País Vasco desde 1960 a 1975)*, Bilbo, Desclée de Brou-wer, 1995, 59-90.
3. IZTUETA, P. o.c. 20-38.
4. Erabaki honen oinarri, herriak zeraman egoeratik aldentzen eta beste presoan aldean pribilegiozko tokian jartzen zituen trataera bereiztailea zela zioten. Amnistia osoa eskatzen zuten preso politiko eta sozial guztientzat, eta kartzela konkordatorioaren ezabapena eta zigorrak gainerako preso politiko-so-zialek bezala betetzea eskatuz amaitzen zuten. (Apaiz presoek Justizia Ministroari, Nuntzioari eta bes-te herri- eta eliz agintariei zuzendutako gutuna, Zamora, 1970).
5. 1970eko udaberrian, Bizkaiko 68 apaizek agiri bat helarazi zioten Zirarda apezpikuari eta Bilboko eliz-barrutiko erakunde ofizialei, elizbarrutiko elizaren jarduera salatuz eta, besteak beste, «giza eskubideen... zuzenkontra zigortutako eta inpuniate osoz torturatutako pertsonen aurka burututako zuzengabeke-riaren salaketa eta haien defentsaren... Euskal Herriaren berezko eskubide ukazainen aitortpenaren eta Herri honen berezko egoerekin bat datorren Elizaren egituraztearen... alde ateratzeagatik edo jar-duteagatik espetxetan edo erbetean daudenek duten egia» eskatuz. ALDAY, J.M. o.c. 13-16.
6. EQUIZA, J. *¿Política o profecía? El profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Iruñea, Fundación para el desarrollo informativo navarro, 1983.
7. Nafarroako «Hermandad Sacerdotal de San Francisco Javier»; Gasteizko «Hermandad Sacerdotal de San Prudencio»; Bilboko «Hermandad Sacerdotal San Ignacio de Loyola».
8. IZTUETA, P. o.c. 261-293; ETXEBARRIA, J.L. *La incidencia del movimiento eclesial Herri Gaztedi en el mundo rural vasco en la década de los 60*, Gasteizko Teología Fakultatea, 1993 (argitaratu gabeko te-sina).
9. «Plan de Pastoral», in *Bol. de la Diócesis de Bilbao*, 24 (1973) 534.
10. «Jerarquía y apostolado seglar en España», in *Pastoral Misionera*, uztaila-abuztua, 4(1967), 75-87; 3(1969), 76-98
11. «A nuestros amadísimos hijos», in *Bol. del Obispado de San Sebastián*, 1968, 223-229; *Documentation Catholique* 1.525(1968), 1708-1812 zut.
12. Informazio eta Turismo Ministerioak argiraturako Ohar bat dela bide, egun haietan jakin zen «Aita Santuaren Nuntzioa Erromara heldu zenetik, Sondikako aireportuan hegazkin ofizial bat egon zen, Añoveros doktoarearen eta aita Ubietarenekin ustezko irteera bideratzeko... hark, ordea, baztertu egin zuen aukera, nahitaez egin beharrekotzat edo Sede Santuak agindurik bakarrik agintzen bazitzaion egingo zela bidaia hura ohartaraziz». UNZUETA, A.M. *Vaticano II e Iglesia local. Recepción de la eclesiología con-ciliar en la diócesis de Bilbao*, Bilbo, Elizbarrutiko Teología eta Pastoralizako Institutua eta DDB, 1994, 95-98; BARROSO, A. o.c. 407-412.
13. «Grève de faim à la cathédrale. Communiqué» (1970 eta 1972).
14. Lege-dekretu honen ondorioz, tratu txarrez eta torturaz egindako atxiloteta ugari egin ziren: bere-ziki ezaguna izan zen, une hartan Bilboko auzune bateko apaiza zen Anastasio Erkizikiak jasan zuena: Bilboko Basurto ospitalera konorterik gabe eta itxura galduta eraman behar izan zen.
15. Homilia honi Errenteriako apaizek ekainaren 22an iragarritako beste bat erantsi behar zaio. *La Ver-daden*—Iruñea eta Tuterako artxidiozesiko informazio-orrria— «No a la violencia» izenburupeko artikulua

bat: «Gogorkeria zuzenkontraoagoa da inmuneagoa den neurrian, hari egokitzen zaion lege-ordenamenduan babesten denean, ezarritako ordenarenak isilduz, behekoenak bakarrik salatzen direnean». Gobernuak isun ugari ezarri zituen eta horrek 300 apaiz nafarren atxikipena sortarazi zuen, lagun zigortuekiko elkartasunez. Zenbait apaiz atxilotuak izan ziren, horien artean, hiru arabar.

16. Bilboko Gotzaitzegiko Buletina, 1979, 75-76; gotzainen jarrekekiko beste atxikipenak ere izan ziren, ik. *Paz y reconciliación. Documentos de la Iglesia en el País Vasco 1968-1990*. Bilboko Gotzaitegia, 1990, 95-99.

17. «Donostiako Gotzainen Oharra», in PAGOLA, J.A. *Una ética para la paz*, Donostia, Idatz, 1992, 418. Hau zioen Joan Maria Uriartek Bilboko Herri Irratiko mikrofonoen aurrean 1977ko maiatzaren 17an: «Ebanjeliotik abiatuz, adiskidetzeari aldarrikatu beharrean nagokizue. Eta honek, gaur egun, amnistiatik etorri behar du: legekoa eta bihotzetakoa; denona. Amnistia, gainera, gure herriaren zati handi baten ikaragarritzko oihua da... ezinbesteko behar larria da».

18. «Donostiako Gotzainen Oharrak» (bi), gogorkeriak eragindako bi heriotzaren aurrean (1977ko martxoa).

19. «Herri baten suntsipena ala superbizipena».

20. «A Juan Pablo II: Genocidio o supervivencia de un Pueblo» in *Barneko Aldizkaria / Boletín interno*, 0 (1980) 58-67.

21. Iruñea, Bilbo eta Donostiako Gotzainek izenpetutako lehen Gutun pastoralara 1975ean argitaratu zen. *Bol. de la diócesis de Bilbao*, 1975, 155-215.

22. Bilboko Elizbarrutia, *Elizbarruti Batzarrearen Ondorioak 1984-1987*, Bilbo, Bilboko Gotzaitegia, 1987, 41-171.

23. «Obispos vascos y negociación», in *Deia*, 1985eko abenduaren 3a.

24. PAGOLA, J.A. o.c. 1992a arteko agiri-multzo osoa eskaintzen du.

25. «Zuzentasuna zaintzea eta bakea eraikitzea», 1982ko uztaila; «Norberetasuna, pluraltasuna eta askatasuna eskolan», 1983ko abuztua.

26. «Bakerako Elkarriketa eta negoziazioa» (1987).

27. *Los Pueblos y los Estados en la construcción de Europa: reflexión de las CCB*. Herria 2000 Eliza, 1995, 211-213.

28. Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Gizarte-Idazkaritzak, *La crisis de la democracia*, Bilboko Gotzaitegia, 1987; id. *La crisis del Estado del bienestar*, Donostia, Idatz, 1987; id. *Aportaciones para una lectura solidaria de nuestra economía*, 1988.

29. «Cartas desde la fe, ¿Insumisión?», in *La Verdad*, 1993ko iraila.

30. «La insumisión, ¿es un delito? Reflexión cristiana», *Bol. Obispado de Vitoria*, 1993ko uztaila.

31. Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Gutun pastoralak, «eliza, elkarte ebanjelizatzailea» (1.6) eta «Giza gatazkak eta kristau adiskidetzeari» (11. zk.) in *Al servicio de la Palabra. Cartas Pastorales y otros documentos conjuntos de los Obispos de Pamplona y Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria* (1975-1993), Bilbo: EGA, 1993.

32. SETIEN, J.M. «Comunidad cristiana y conflicto cultural», in *Conflicto cultural y comunidad cristiana*, o.c. 32.

33. «Nota pastoral de los Obispos de Pamplona sobre el euskera», 1974ko irailaren 15ean.

34. PAGOLA, J.A. o.c. 324-328.

35. Katekistei homilia, 1987.09.02an.

36. «Nuevos Obispos para Euskal Herria» in *El Correo*, 1995eko irailaren 13an.

# ELIZA ETA EUSKAL KULTURA

Historia bati zenbait ohar

*JOSEBA INTXAUSTI*

---

**E**liza» eta «euskal kultura». Hitzetan galdu aurretik, has nadin berorien esanahia zerbait mugatzen. Adiera ezberdinetan erabili ohi da «eliza» hitza, eta hemen adiera zehatz hau ezarri nahi diogu: Eliza Katolikoa deituaren zerbitzuan *ex professo* eta ogibidez diharduten emakume eta gizonezkoen taldea, alegia. Horrela mugaturik erabili nahi dugu, ba, hitza, esprski edo testuinguruarekin bestelakorik adierazten ez dugun bitartean.

«Euskal kulturak», ostera, euskarazko kulturaren edozein agerpen esan nahi du orrialde hauetan, nahiz eta Euskal Herriko historian baditugun beste hizkuntzetako azalpenak eta bai-

ta bestelako kultur eremuak ere (arte plastikoak, musika, dantza, etab.). Noski, kultur azalpenekin batera, euskararen hiztun-  
goa —euskaldungoa— da gogoan duguna, mendeak zehar ia  
osorik elebakarra izan dena, edo noizbehinka elebiduna ere. Ba-  
rruti horretara bilduko gara, beraz, orrialde hauetan.

Jakina denez, hiztun-  
go baten kultura ez dago bero rrek min-  
tzatzen duen hizkuntz tresnara mugatzerik, eta hainbat eta  
hainbat eduki kulturaletan hedatu eta loratzen da. Horregatik,  
hizkuntzaren beraren erabilpen soila baino bero rren eduki-ga-  
rapena eta agerpen soziala dira hemen aintzakotzat hartu nahi  
ditugunak.

Hortaz, euskararen Elizako erabilpena, ezagutza, sustape-  
na, edo haren kanpotik eliztarrek izan dituzten euskararen  
aldeko jarrera eta lanak, bere etxe barnerako emandako hiz-  
kuntz arauak nahiz kanporako ere sortutako lan mintzatu eta  
idatziak, eman zaion antolakuntza soziala, etab.: dena da inte-  
resatzen zaiguna.

Elizaren eta euskal kulturaren harremanez galdetzean, ez  
dugu nahi itaun hori *Elizaren kanpotik* bakarrik egin (hau da,  
euskal kulturari kanpotik letorkiokeen kristautzeari buruz  
galdera eginez, nahiz eta nornahik eta ez-fededunak honetara-  
ko ere eskubide osoa izan), baizik eta *Elizaren beraren euskal  
inkulturazio historikoaz* gaur egungo eliz pentsamenduak dakar-  
tzan eskakizunen argitatik ere jakin nahi genuke zerbait. Be-  
raz, bi galde-molde daude hemen aurkezten dugun gogoeta  
honetan: historia eta antropologiatik egin daitekeena, eta Eli-  
zak berak bere Teologiatik egin behar duena.

Ez dago esan beharrik ere: gai hau aspaldidanik ukitu izan  
da gurean, eta azken hogeita hamar urteotan eztabaidagai ere  
izan da, eta esanahi handiko taldeek aztertu izan dute, gaine-  
ra, ikuspegi ezberdinetatik. Hala nola, Euskal Herriko Apaizen  
Koordinakundeak, Loiolan bildu ohi izan ziren euskal Lekaide-  
-Lekaimiek, Erljioso-Elkarteetako Nagusien Batzarrek eta  
Euskal Herriko Gotzainek<sup>1</sup>. Izan da, bestalde, aipaturiko harre-  
man historikoei buruz azalpen irakurgarririk eman digun inte-  
lektualik ere<sup>2</sup>.



Guk, hemen, hizkuntzaren historia sozialetik begiratuko ditugu Eliza/Euskal Kulturen arteko harremanak, betiere hizkuntzaren normalkuntza sozio-kulturalak dituen eskakizunetatik eta Elizak berak herrien baitango eliz inkulturazioaz duen historia eta pentsamendutik<sup>3</sup>.

## KRISTAUTZEA ETA ERDI AROA

Euskal Herriko biztanle eta euskaldunekin kristauek izan zituzten lehenengo harremanak nahikoa goiz gertatu ziren seguraski; beranduenik III. mendean edo izan zitekeen hori, eta ez orduko Euskal Herri zabalagoaren mugetan bakarrik, baita gaur egungo Euskal Herriarenetan ere. Gero, hemengo gizartea kristautze orokorra bare eta soseguz joan zen betetzen, beharbada Kristau Aroko lehenengo milakadaren hondarre tararte.

Hemen agertu aurretik, Erromako Eliza kristaua latinduta zegoen, lehen hamarkadetako bere elebitasun greko-latinoa albora utzita. Aurrerantzean, Mendebaldeko Elizak latin-batasuna hobetsi zuen, Elizaren beraren batasun-sinbolo izateraino eramango zen hizkuntz batasuna, hain zuzen.

Honela, Inperioko politika latintzaileak Erromatik Elizak eragin zuen hizkuntz politikan aurkitu zuen bere segida kultural eta eliztarra. Erabaki hark ezinbesteko eragina izan zuen Mendebalde europarreko herri ez-latindarren hizkuntz ondarearen gain. Huraxe gertatu zen, beraz, Europako bigarren latintze-une handia. Batere argi ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, euskarak azken finean aurre egin ahal izan zien latinaren bi eraso hauei, inguruko beste hizkuntzak itoarazi zituenean berak bereari eutsiz lehenengo, eta ondoko kristautze-prozesu mantso-ra harian-harian egokituz, gero.

Liburu baten mezulari eta Hitzaren bozeramale ziren misiolari heldu berriek erabili zuten, noski, euskara beren predikuetan; izatez, Eutropiok utzi zigun V. mende-hasierako lekukotasunak hori adierazten duela dirudi. Bestalde, hizkuntzaren berara *corpus*-ean, Kristautzearen eragina erakusten digun aski

aztarna geratu da. Dena den, Ebanjelioaren eta jatorrizko euskal kulturaren topaketa hartan elkarrekiko egokitzapena ez zen beti samurra gertatuko, ondokoetatik ondoriozta daitekeenez.

Elizaren Euskal Herriratzea, ordea —edo nahiago bada, Elizaren euskaltzea—, ez zen lagundu alfabeto berri baten sortzearekin, ez itzulpen bibliko-liturgikoekin, ez eta euskaraz idatziriko literatura erlijioso batekin, nahiz eta Ekialdeko Eliza kristautetan ohikoak izan horrelako berrikuntza kulturalak. Euskal Herria Mendebaldeko Eliza latindarraren altzoan jaio zen, eta hemen ohi zen bide elebakarragotik ibili behar izan zuen.

Izan ere, Euskal Herriko kristautzea burutzear zegoenean, Ekialde-Mendebaldeen arteko mugaldeen bizi izandako kultur gatazkek ongi erakutsi zuten zein zaila zen, Erromaren pean, arautua zegoen hizkuntz politikatik at joan nahi izatea. Mendebaldeko herri eslaviarren ebanjelizatzean ikusi zen hori, berri ere: IX. mendean Zirilo eta Metodoren elizgintza hizkuntz herritarra guztiz gatazkatsua gertatu zen, interes politiko-kulturalen sasietan tratatzean. Gure egunak arte luzatu dira orduan gertatutakoen oihartzunak. Erromak ez zuen maite halako hizkuntz inkulturaziorik bere misio gintzan.

XIII. mendetik aitzina, berriz, gaztelania edo katalanarentzako estatus kulturala eta hizkuntz nagusitasuna finkatzera zihoazenean, euskarak apenas izan zuen aukera handirik. Latinarekin zuten hurbiltasunagatik, gidaritza kulturala eramango zuten gizarteak latinduak zirelako eta mundu profauean bezala eliztarrean ere boterea beren alde izan zutelako, hizkuntza erromanikoak sartu ziren latinak uzten zituen zirrikietatik —gogora Gaztelan Alfontso Jakituna eta hain bertakoa dugun Berceo, edo Katalunian Jaume I.a eta Raimon Llull—.

Euskaldungoak behar eta merezi zuen kristau literatura jantzia ez zen jaio. Ez dugu ezagutzen kristau herriarentzako Erdi Aroko euskarazko literatura erlijiosorik, eta euskarazko prediku eta katekesi mintzatuak ere seguraski ongi murriztak ziren euskaldunen eliz heziketan: gaztelaniazko XIV-XV. eta ko dotrinen oso atzetik datoz XVI. ean ditugun euskarazkoak (El-tso 1561, Betolatza 1596).

## ERREFORMAK ETA KONTRARREFORMA

Eurpako beste herri anitzetan bezalatsu, gurean ere Ernazimentuak eta bi Erreformek (katoliko-protestanteak, alegia, Kontrarrefoma barne) eskaini zioten egokiera berri bat euskaldungoari, hizkuntza eguneroko bizimoduetatik kultura idatzia-  
ren mundura jasotzeko.

Urte berean, 1545ean, Nafarroa Behereko apez batek (Bernart Etxeparek) euskarazko lehen liburua eman zigun, eta J. Bernal Diaz de Luku —jatorriz arabarra, eta agian euskalduna ere?— Kalahorrara gotzain gisa etorri zen, berehala euskarazko prediku eta katekesiaren premia aldarrikatuz, Trentoko Kontziliarako irteteko unean. Urte-muga sinbolikoa huraxe.

Zantzu horiek gora-behera, XVI. mendeko obra erlijioso-literarioa Nafarroako Erreginari eta Artzain kalbindar baten eskuetatik etorri zen: J. Leizarraga-ren euskarazko *Testamentu Berria* (1571), eta horrekin batera baita eliz zerbitzuetarako beste zenbait liburuxka ere.

Bazirudien, ba, garai hobe baten atarian ginela. Zoritxarrez, hastapen hark ez zuen segidarik izan, eta Kontrarreforma katolikoa aski geldo eta beldurriagoa gertatu zitzaigun. Badakigu Trento ondoko erabaki eta arauak gure herritarrei euskaraz ere azaldu zitzaizkiela 1560.etan, hain zuzen prediku haien albisteak dira orain Arabako Lautadako euskararen agiri lekukoak gertatu zaizkigunak.

1550etik 1700era doan mende t'erdian, euskal Elizbarrutiek ez zuten ahantzi beren kristau herria euskalduna zutenik, eta ezagumendu horren ondorioz, Kalahorrako Sinodo-Batzarrek euskarazko politika jakin bat antolatu nahi izan zuten, euskarazko predikuaz eta urteoroko euskarazko dotrinen argitalpenaz beren arauak emanez (1621, 1700). Bestalde, Iruñeko Elizbarrutian ere euskararen eskualdeak lurralde erromantzetatik bereizita ikusten ziren, haietarako eta honetarako hizkuntz trataera bereziak arautuz: Gotzaindegiko zereginetan erdal (*romanizados*) eta euskal (*bascongados*) herrien hizkuntz egoera hori ofizialki hartu behar zen aintzakotzat.

Era berean, gotzain-jurisdikziotik kanpo, Erlijioso-Elkarteen komentu-etxeak sortzean, berorien eraikileek zenbaitetan go-goan hartu izan zituzten erlijioso-etxe horien euskarazko erantzukizunak ere (Arrasate 1579, Zarautz 1617), edota parrokieta predikuetarako herri-agintariek espreski eskatu izan zioten Elizari kristau euskaldunekiko zerbitzuak hobetzea, Iruñean hiriko zinegotziek egin zutenaren antzera (1604). Elizari espreski egindako eske hauek garaiko eliz pastoraltza eta hizkuntz politikaren eskasiak azpimarratzen dizkigute.

Euskal Herrian Eliza pisu larriko erakundea zen, bertako kultur bizitzan batez ere; besteak beste, honegatik du Elizaren hizkuntz politikaren historiak halako interesa. Hala ere, herri-erakundeak ere hor zeuden, eta berauei zegokien bereziki gure ondare kulturalaz arduratzea. Elizarena bere testuinguru sozialean ulertzeko ere komeni da herri-erakunde horietaz zer bait esatea.

XVI-XVIII. mendeetan Euskal Herriko lurralde euskalduna ia osorik eta erabat elebakarra zen, bizi euskaraz bakarrik bizi zena. Jendarteko hizkuntza euskara zen, eta batez ere tokiko erakundeetan ere euskara zen herritarrek zerabilten hizkuntza mintzatua. Hala ere, bertako zenbait giza-talderen interesek eta erbestetik erakundeetan egiten zen bortxak Herrialde-Batzarretan gaztelania ezarri zuten hizkuntza idatzi bakarizat, eta debekatu egin zen, gainera, euskaldun elebakarrik batzarlagunetarako hautatzea, data ezberdinetan ageri zaigunez (Gipuzkoan 1528, Bizkaian 1613-1633, Araban 1682). Eta Erakundeetako hizkuntz ofizialtasunaren eremutik at, euskararen sustapen kultural eta sozialean hutsaren hurrengo ia izan zen haien ahalegina. Horrek denak, ba, gure herri-Erakundeak Elizaren aitortpen eta erabilpenaren atzetik utzi zituen, oso atzetik ere.

Baina aipatu ditugun eliz arauak gora-behera, ez dirudi XVI-XVII. mendeetako euskarazko predikuak eta katekesiak hedapen oso eta iraunkorrik izan zutenik. Horren ondorioz ez dugu ezagutzen garai hartan heziketa erlijiosoak lortutako biztanleriaren alfabetatzerik, herri protestanteetan gertatu zena- ren antzekorik alegia.

Euskarazko eliz kulturgintzan, Hegoaldea atzeratuagoa zeto-  
r ren, nonbait, Iparraldea baino, hemen sortu baitziren Kontra-  
rreformaren barnean eliz pastoraltzarako euskarazko idazlanik  
umotu eta onduenak (1617-1643). Apez-talde baten emaitza  
izan zen hori, Bertrand Etxaus gotzain euskalduna akuilari  
zela: ez gaitu harrituko, ba, Axularrek bere *Ger*o apezpiku ho-  
ni eskaini izanak (1643).

## ALDAKETA-GARAIAK (XVIII. MENDEA)

XVIII. mendeak, ordea, berritasun handiak ekarri zituen  
Hegoaldean, zenbait elizgizonek eliz predikuen hizkuntz duinta-  
sun eskasa salatu eta lanbide horretan molde landuagoak era-  
kutsi zituztenean. Larramendik goraki eman zuen aditzera be-  
re kexua, eta Kardaberaz ez zen atzean geratu, jardun horre-  
tan ez ezik, euskaldunek Elizan eta gizarte zibilean zituzten es-  
kubide linguistikoak aldarrikatzen ere, halako hizkuntz *idea* -  
*rium* teologiko bat iradokiz (1661).

Uste liteke, gainera, Arabako euskararen galera bizkortuak  
gertutik hunkitu zuela hainbat arabar eta elizgizon, eta kultur  
ondare honekiko kontzientzia berri bat sumatu zen Elizan ere.  
Hain zuzen, eliz agiri bati zor diogu garaiko Arabako lurralde  
euskaldunaren albiste zehatza. Araba, parte on batean euskal-  
duna baitzen, artean, 1787an Gasteizko Bikaria deituaren  
eskualdeetan. Baina behatzaileak bazekien hizkuntz galerak ba-  
zuela eliz jendearekin ere zerikusirik.

Landazuri historialaria izan zen galeraren arrazoi-tako bat  
apezen utzikerian eta erdaldun-elebakartzean ikusi zuena. Ge-  
rora, XIX-XX. mendeetan, Elizari Nafarroarekiko eta frankismoa-  
ren garaietako zenbait eliz jokamolderen aurrean berri-tuko zen  
salakuntza aurreratu zuen Landazurik, hau da, fededun eus-  
kaldunekiko zabarkeria, euskararekiko mesprezua eta, azkenik,  
eliz Erakundeak emandako arauak Elizak berak ez betetzea.

Dena den, apez euskaldunen laguntzarako nahiz kristauen  
katekesirako sorturiko idazlanek ez zuten beti bide samurra izan  
a rgitaraturik kalera iristeko, aginte zibilak jarri zituen eragoz-

penengatik hain zuzen. Kardaberaz eta Gerriko-ri ezarritako debeku eta eragozpenak adibide argigarriak dira, horretan. Bote-re zibilak eliz eginkizun hauetan esku-sartzea XX.ean areagotu baizik ez zen egingo, Errepublika frantses laikoan bezala Canovas-en Errestaurazioan, eta gerraurreko eta osteko diktaduren pean (1923-31, 1936-75).

Baina, genekarren harira itzuliz, esan dezagun XVIII. mende hura erabakiorra izan zela Hegoaldean literatur edo euskal kultura idatzi baten tradizioa sortu eta finkatzean, izan ere idazlanak euskaraz emateaz gain hizkuntzaren erabilpeneko tresnak ere sortu baitzituen (Gramatika, 1629; Hiztegia, 1745). Orduko lana, eta 1750-1850.eko eliz zerbitzurako produkzio ugariagoa, dena, ia osoa elizgizonen zor zaie.

Ez dago abantzu esan beharrik ere, hau dena herri-herriarekin ari ziren apez langile saiatuei zor diegula, apez jende apalenari, ez besteri. Eta protagonista hauen merezimenduak aipagarriak dira, izan ere eliz erakundeak ez baitziren beren prestakuntz urteetan eta Seminarioetan euskaraz idazteko gaikuntzarik eskaini; apez lanerako tresnak, bestalde, erdal hizkuntzetan eskaintzen zitzaizkien (latinez, gaztelaniaz, frantsesez).

Axular, Agirre, Haraneder, Kardaberaz, Mendiburu, Gerriko eta abarrek ez zuten lan egin eliz Hierarkiak gidaturiko plangintzaren baten barnean, nahiz eta halakoren premia gorriarik nonahitik ere agerian zegoen<sup>4</sup>; Pabeko Sinodo kalbindararen etsenplu onak indar gutxi izan zuen Eliza Katolikoaren buru zuzendarietan. Leizarraga eta leizarragatarrak ez ziren mundu honetakoak<sup>5</sup>. Horregatik guztiagatik, apez eta fraile euskaltzale xume haiek gure ezagutza eta aitortpena ongi irabaziaz dute, euskal letretara egin zuten ekarpen apal baina nekettsuagatik. Euskal basamortu instituzionalean, beste inork ez bezala, aurrea hartu zioten ondoko euskalgintzari.

## EUSKO PIZKUNDEAREN ARRASTOAN (1876-1936)

Azken Karlistadaren bukaeratik edo Foruen ezabapenetik (1876), gerra arte (1936) eta Franco-ren heriotzeraino doan men-

deak (1975), euskal kulturarekiko Hierarkiaren jarrera pastoral eta jokamolde politikoaren historia aberatsa eskaintzen digu. Hala-beharrez, eliz buruzagitzak eskakizun bikoitz eta kontrajarri baten tartean jokatu behar zuten Penintsulan: batetik, Estatuaren politika ofiziala zegoen —beti bertan, eta inoiz dotrina-gelataraino sartuz—, eta bestetik, eliz arautegi orokorra (batez ere, Misioetarako emana, baina irakaskuntza onartua zena) —teorian eta aitortutako mugen barnean, herrien jatorrizko kulturen aldekoa, eta argia, baina betiere urrunagoa bere unibertsaltasunean eta, nolahi ere, hemen ahula bere eragin praktikoan—.

Horren ondoan, apez-erlijiosoen mundutik anitz jende iritsi zen Eusko Pizkundean jaio ziren ekimenetara, eta ez zen falta horien artean euskalgintzan kultur eremu hau nahiz Era-kunde hura gidatuko zuenik ere.

Boterari aurrez aurre aurpegi emanaz (Iparraldean bezala), edo adiskidantza hurbilegian (Hegoaldean Koroarekin gertatu ohi zen bezala), Hierarkiak nahitaez egin zuen topo hizkuntzaren arazoarekin (hemen, arazoa baitzen hizkuntza). Baina Goztainen pentsamoldea ez zegoen bereziki prest euskal kulturgingintzaren eskakizunak beren sakonean ulertzeko.

Lehendik zetozen eliz ekimen apalak eskuratuz, Mujika Goztainak eskaini zuen jarrera irekiago bat 1920-1930. urteetan, Iruñean bezala Gasteizen ere. Nahikoa urrun geratu ziren, hortaz, Cadena eta Eleta-ren euskal izendegiarekiko haserre listakartuak (1910-1913).

Elizgizonak joera berrietara bildu ahala, euskaltzale eliztarak ugarituz zihoazen heinean, Elizaren gure herriko inkulturazioa bizi eta eraginkorrago bilakatzen ari zen. Euskalgintza —orokorra eta eliz barnekoa— Euskal Herriko mentalitate-aldakuntza orokorraren kausa eta ondorio gertatu zen, aldi berean. Apez diozesitarrek eta erlijiosoez aldizkari eta liburuak argitaratzen lan egin zuten, eliz talde euskaltzaleak sortzen edo herrietako kultur elkarteak eta gizarteko erakunde kulturalak sustatzen.

Honela sortu ziren *Jaungoiko-zale* bezalako elkartasunak (1912), eta Seminarioetan ere lekuren bat aitortu zitzaion, az-

kenik, euskal kulturari. Barandiaran eta Lekuona mende honen bigarren hamarkadatik aitzina Gasteizkoan irakasle izan ziren, eta geroxeago baita Intxaurrondo ere Iruñekoan; Aita Kaputxinoek Bera eta Arrigarai-ren lanak eman zituzten argitara; josulagunek, *Jesus-en Biotzaren Deya* (1916); klaretarrek, Zabala-Arana, Arriandiaga edo Urrutia-ren gramatika-lanak eta inkulturazioaz idazlan teologikoak (1919-1930).

Historia honen kronologian ezin da ahantzi Oñatiko Batzarra (1918), euskal lanei itzal berria eman ziena, Erakundeen aurrean eta herritarren artean. Horrela, ba, 1921ean Gasteizko Elizbarrutian Kristau-Ikasbide ofizial berria zabaldu zen euskaraz. Mujika Gotzainak —integrista, bai, baina Urtsuaran sorterriko mundu euskalduna bere baitan zuenak— Iruñeko Gotzain gertatzean, ekimen bera bere Elizbarrutira ere hedatu nahi izan zuen, eta Aita Intza-ri Iruñeko Diozesirako ere dotrina preta zezala eskatu zion. Baina erabaki praktikoa horrekin batera, Erromako irakaskuntza ofizialetik emanak ziren argibideak ezagutarazteko, «Eliza eta euskara» gaitzat zuen hitzaldi batekin eman zitzaion hasiera Seminarioan 1926ko Ikasturteari: beraz, herrien kulturekiko Elizaren irakaskuntza Euskal Herrian ere aplikagarria zela adierazi zen.

Hogeigarren eta hogeita hamargarrenetan, behin baino gehiagotan aztertu zuten apez eta erlijiosoek, Euskal Herriko Elizaren inkulturazioaren arazoa, beti ere —hala esaten zen— Elizak berak ezagutzera emanda zituen irizpideen arabera, eta batez ere, Benedikto XV. a ren irakaskuntzari jarraiki. Urrutiak jardun zuen Gernikan (1922), lehenago Iberok egin zuenaren antzera eta geroago Intxaurrondok edo Aitzol-ek gogoraraziko zuten arnildo berean. (Elizaren misio eta arazo sozialetan Elizaren irakaskuntzari heltze hau 50 eta 60.etan egingo da berriro, eta Gandiaga-k ere badu zentzu bereko lanik, 1959an).

Irakasle nahiz elizgizon arruntek emandako Aita Santuen pentsamendu sozial kristauaren azalpen hauen ondoan, esan behar da Euskal Herriko Gotzainek ez zutela eskaini gogoeta seriorik gure artean ere bidezkoa izan zitekeen eliz inkulturazioaz, horretarako bide hobez —eta gutxiago, gertatu, gertatzen ari zen euskal kulturgintzaz—. Hemen Hierarkiagandik ez



zen entzun ahal izan Katalunian Torras i Bages (*L'Església i el Regionalisme*, 1887; *La tradició catalana*, 1892) edo apalago Morgades Gotzainek (1893, 1900) landutakoaren gisakorik<sup>6</sup>.

Baina elizgizonik euskaltzaleenak ez ziren koldartu hutsune horregatik. Etika sozialaren eremutik urrunago —literatur teoriaran edo hizkuntzen bizitza sozialaren analisisan, nahiz elebitasunaren pedagogiaz— hainbat eliz idazlek bere ekarria eskaini ahal izan zuen: hala nola, Estefania josulagunak, Mokoroa eskolapioak, Ariztimuño diozesitarak, Altzo kaputxinoak gogoan izatekoak dira. Honela, ba, pentsamendu teologikoak eta literatura teoriak hizkuntzaren aldeko gogoeta berritua aurkeztu zuten, sarritan ikaskizun hauek obratan ere egikaritzuz.

20 eta 30. urteetan, elizgizon anitz ageri zen euskal kulturako sustatzaile eta gidarien artean: Euskaltzaindian (Azkue, Olabide), Euskeltzaleak elkartean, argitalpen eta aldizkarietan, Eusko Ikaskuntzan, etab. Aipatutakoen ondoan beste hainbat eman liteke, noski: Artzubiaga argitaldari bezala, Tx. Agirreelaberri-idazlea, Jauregi karmeldarra bere irakasle-lanekin zientzi idazle antzera, Aita Donostia herri-musika biltzaille legez eta abar luze bat. Hauetako batzuek beren biziarekin edo desterruan ordaindu behar izan zuten atxekimendu euskaltzale hori: Aitzol Hernanin erail zuten 1936ko urriaren 18an, Jakakortaxarnek Argentinako Pampan eman zituen berrogei urte, erbestean.

Hori dena gora-behera, bere erakunde-barneko eremu garrantzikoekin batzuek osoki erdaldun mantendu zituen Elizak: hala nola, Seminarioetako irakaskuntza eta elkar-bizitza, erlijioso-etxeetako eguneroko bizitza (monastegi, komentu nahiz egoitzatan), ikastetxe erlijiosoetako irakaskuntza, etab. Eta pastoraltzan bertan ere (elizetako lanetan, katekesian, heziketa erlijiosoan, etab.) ez zen zabarkeriarik falta izan, horrelako zerbait salatu zuen Eusko Ikaskuntzak Iruñeko Elizbarrutian (1933, 1934). Nabaria zen euskaldungoaren hizkuntz gutxiespena, eliz etxeetako barne-bizimoldeetan bezala parroketako beste zeregin hauetan ere. Hala ere, anitz elizgizonek beren kabuz nahiz Erakundeak eraginik egindako lanek garrantziko uzta eskaini zuten.

## GERRATEA ETA FRANKISMOKO GERRAOSTEA (1936-1960)

Gerrateak eta gerraondoak esanahi berezia izan zuten hemen, Euskal Herrian: erretagoardian eraildako apezak, nazional matxinatuek garbitutakoak izan ziren. Abertzale katolikoak, bestalde, Errepublikaren alderdian borrokatu ziren, eta Gasteizko Gotzaina bera erbestera joan beharrean aurkitu zen, apez eta erlijioso anitzi norako arrotza ezarri zitzaion, batzuetan Penintsulan, bestetan atzerri urrunagoetan.

Gerrak sortutako gatazka parrokia, komentu eta seminariotako lagunarteetara ere iritsi zen. Euskarazko pastoraltza edo hemengo jatorrizko kulturaren aldeko jarrerarik nekez espero zitekeen, haietxek kontra ere sortutako Errejimen berrian eta Hierarkia «moldatu berriagandik». Kasik erabateko hondamendi hartatik artean sano edo ateratakoak, onenean ere agintari eliztar nahiz zibilek isilarazi egin zituzten, ongi zigortuak eta lotuak izan ez zirenean.

Eliz erakundeetan ere isilpe gorde eta zailean hasi behar izan zen: ez zegoen euskararik irakas-egitarauetan, zeregin pastoraletan ahalik lekurik murriztuena eman zitzaion hizkuntzari, eta euskarazko eliz argitalpenak desagertarazi egin ziren. Hamarkada oso bateko izotzaldia eta isiltasuna erori ziren euskaltzaleen gain. Eliza barnean eta Elizaren bidez ezarritako hizkuntz bortxakeria kulturalaren kondaira eta lehen-lehenik eliztarrak berak —klero eta herritar— jipoitzen zituen erasoaren historia egiteke daukagu oraindik<sup>7</sup>.

Gerraurrian hasitako mugimendua lepamoztu bazuten ere (bere obretan bezala gidarietan ere), geratu zen, artean, ekimen berrietarako surik errauspean: aurreko belaunak hezitako eliz gazteak denboraren bat behar izan zuen kazkabarra pasa eta berriz ere ekiteko. 40.aren hondarretan, Elkartea Erljiosoetako zenbait Nagusik (betiere agintari zibilengandik urrunago gertatu ohi zirenak hauek, Gotzainak baino) izan zuen modurik apezgai eta frailegaienez heziketan eskuzabaltasun hobeago batez jarduteko. Horrek laster emango zituen lehen emaitzak gaztez beteriko ikastetxe haietan. Ikas-egitarauetan ordutxoaren bat edo beste sar zitekeen euskara lantzeko, eta, norik da-

ki, mintegiren bat edo antola zitekeen gazteen hizkuntz gaikuntzarako. Geroxeago, Elizbarrutietako Seminarioetan ere ireki zen atea zerbait.

Gerraondoko lehen argitalpenak guztiz erlijiosoak izan ziren Euskal Herri barruan: *Cristau-Dotriña* (1940!: urrun gaude 1921eko *Kristau-Bidea* hartatik), *Argi Donea* (1946), *Arantzazuko Egutegia* (1947), *Karmengo Amaren Egutegia* (1951), *Kristiñau-Ikaskizuna* (Etxeandia, 1947), M. Lekuonaren *Iesu Auraren bizitza* (1948), bestelako salbuespen bakan batzuekin: Azkueren *Euskalerraren Yakintza* (Madril: 1942-47), Aita Beraren *Iztegia*. Oihartzun sustagarriagoa izan zuten, Salbatore Mitxelena, Orixe edo Santiago Onaindia-ren lan jakin batzuek: *Arantzazu* poema erlijiosoak (1949), *Meza-Bezperak* elizkizunetarako liburu apain eta aberatsak (1950), eta zerbait geroago, *Mila euskal olerki eder* antologia txundigarriak (1954).

Nola-halako lehen hegaldi honek, ordea, ezin zituen ezkutu egoeraren eskasiak: *Cristau-Dotriña* hark aurreko kristaui-ikasbide normalizatuaren urratsak ezabatu nahi izan zituen, Euskaltzaindiaren ortografi arauak berak ere albora utziz; Meza-liburua, bestalde, Tours-en argitara eman behar izan zen, eta idazle sekular bati, Orixeri, zor diogu itzulpena, eta lan horren eta argitalpenaren zorrak Maritxu Barriola beste laiko baten patrikatik kitatu behar izan ziren; hedapena, berriz, isilpean egin zen herri, parrokia eta komentuetan. Eliza ofizialaren ezaskiak ostera ere agerian geratu ziren, ba, betiere onartutako Errejimen baten itzalpean baitzegoen, eta artean Eliza-Estatuen arteko harreman-prozedurak Konkordatu baten bidez definitu gabe.

Garaiko ezinegona eta anbiguitatea nahikoa agerian suertatu ziren, gainera, gerora aski esanahitsua izan den gertakari batean. 1952ko maiatzaren 23an Aita Luis Villasante-ren Euskaltzaindiko sarrera-ekitaldia ospatu zen Bizkaiko Aldundian: erlijioso frantziskotar bat sartzen zen Akademian, eta Euskaltzaindia birmoldatzen ziharduen beste euskaltzain batek egin zion ongi-etorri-hitzaldia. F. Krutwig-en erantzun honek ez zuen ia zerikusirik izan Villasante-ren gaiarekin. Lapurtar literatura klasikoaz esandakoei, Elizak Errejimenaren aurrean euskal

kulturarekiko bizi zuen konplizitatea salatuz ihardetsi zuen erantzuleak. Biharamunean erbesterako bidea hartu behar izan zuen Krutwig-ek.

60.etaraino doan gerraoste luzean, beharbada Elizaren ekarpen sozio-kultural estimagarriena, adineko elizgizon euskaltzaileen leialtasunarena izan zen (Azkue, Olabide, G. Manterola, M. Lekuona, Ibargutxi, Jautarkol) eta gerraosteko lehen belaunarena (Elizbarruti eta Ordena erlijioso bakoitzak izan zituen bere izenak: Etxaniz, Garate, A. Emiliano, Mantzisor, Onaindia, Goiria, S. Mitxelena, Villasante, Tx. Irigoien, Kerexeta, Iturria, etab.), Iparraldeko eliztarrak ahanzi gabe (Oxobi, Laffite, Iratzeder, Xarriton), ez eta Ameriketako Erbesteko jendea (Mokoro a, Zaitegi, Ataun, Jakakortaxarena).

Sobera ohartzeko, 50. etako urteetan iraulketarik erabakiorrena eliz ikastetxeetako gazteengandik etorri zen: idazle berri gazteen argitalpenak (Garaialde, Sorarrain, Galarraga, Etxenagusia) eta geroago sinadura ezagun bilakatu zirenak (Gandia-ga, Zarate, J.M. Lekuona). 1956-64.etan Diozesi nahiz Ordene-tako Seminario bakoitzak bere euskarazko kultur aldizkari-txoa izan zuen, kalera irteteko, Guatemalako Erbestetik zetorren *Euzko-Gogoaren* nahiz ofizioski Gipuzkoako Aldundia-ren inguruan atera ohi zen *Egan*-en ondoan edo lekuren bat eskatuz. Orduan hasi ziren, gainera, ikasle euskaltzaileen arteko bilerak, talde bakoitza besapean kultur proiekturen bat ekarriz agertzen zela.

## ERRESISTENTZIA KULTURALAREN ETA ERREBOLTA SOZIALAREN ARTEAN (1960-1980)

Gerraostean lehenengo aldiz, ekarri zituen Euskaltzaindiak bere lanak jendaurrera, eta euskaltzaileen arteko eztabaidarako proposatu aztergaiak (Arantzazu, 1956ko urrian); berehala ekin zitzaion ikastolagintzari ere (ikastolaren bat, gainera, Karlos Santamaria bezalako kristau gidari ezagunik tartean zela). Hasi ziren zabaltzen euskarazko literatur bildumak, edo saiakera; pastoraltzako sekularren eliz mugimenduak laster

ziren bor-borreetan, ideiaz irakiten, eta ekinean; Eliza bera Kontzilioan sartu zen, eta euskal alfabetatzea ari zen lehen urratsak ematen.

1968ko iraultza-giroan, ekintza armatuek eta salbuespen-egoerak herritarren bakea eta baretasuna kraskatu egin zituzten. Seminarioetako krisialdi orokorrak hainbat gazte euskaraz gutxi-asko prestaturen indarrak gizartean erein zituen. Izan, bagenuen ez genuen Unibertsitateak ukatutako belaun gaitua —eskasagoa izanik ere— espero ez zen bideetatik agertu zen, eliz ikastetxe haietako krisi hartatik.

Bien bitartean, Joan XXIII.ak eta Paulo VI.ak beren Entziklikekin, eta Vatikanon II.ak «aggiornamento»-aren, argia ez ezik ekiteko grina ere ekarri zuten. Kultur erresistentziak bere asmoak berretsita sentitu zituen. Guretzat biziki interesgarria zen beste eremu batean, eta ordura arteko erdibideko elebitasuna gaingiduz, Kontzilioak Eliza latindarrari bere hizkuntz politikan funtsezko aldakuntza proposatu zion (1963): handik aurrera, eliz bizitzako esparru ia guztietan kristau-herriak bere ama-hizkuntza erabiltzeko aukera zabalagoa izango zuen. Erabaki haien ondorioz azken hogeita hamar urteetan egin den itzulpengintza interes historiko handienekoa izan da, berori bideratu duen erromatar prozedura eta plangintzagatik, eman dituen nazio- eta eskualde-emaizta denengatik. Elizaren aurpegi linguistikoa guztiz itxuraldatu da, handik hona, mendez mende zetorren tradizio latintzale porrokatua etenez.

Euskal Herrian ere bertoko Elizak itzuli ditu Bibli eta Liturgi testuak euskarara. Aitortu behar da egin den lanean kalitate estimagarria, eta bikaina ere, lortu dela, hain zuzen elizgizon ezagunen lumei esker, eta azpimarra daiteke, gainera, eliz euskararen hizkera estandarrak funtsean batasun eta jatortasun egokiak erdietsi dituela (batez ere erabilera mintzaturako testuak direla gogoan bada).

Egindako ahalegin horrek Eliza —Administrazioan ofizialtasunak ekarri duenaren antzera— *corpus* testual askoz prestatuago batez hornitu du, bizitzako eta kultura erlijiosoko hainbat eginbehar eta eremutan. Oinarri honen ondoren, oraindik

bide luzea geratzen da burutzeko, baina indar guztien elkarlan zaindu eta oharturik gabe nekez egingo dena: diozesiarteko eta erlijiosoarteko lankidetzaz, elizen artekoa ere ez bada. Kristau iturrien argitalpenetan, teologia eta zientzia erlijiosoen irakaskuntzan, predikuan eta katekesian, saio eta eztabaida erlijioso-kulturaleran, eta, oro har, garaiko munduari erantzuna euskaraz ematean.

(Parantesi batean gogoraraztekoa da, bestalde, euskal gizartean oro har kulturaren alde abian dagoen normalizazio-prozesua. Hona hemen argigarri izan litezkeen gertakari batzuk: pentsamendu unibertsalak badu euskaraz bere itzulpen-bilduma ederra *Klasikoak* deritzan horretan, baina, aldi berean, ez daukagu kristau pentsamendu eta autore maisuentzat testu-sorta baten proiekturik ere<sup>8</sup>; Euskal Herriko Unibertsitateko nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskal lanak hor daude, Unibertsitate pribatu eta eliz Teologi Fakultateei aurre hartuz —hor zerbait egin zitekeenean ez zen egin, eta nork daki orain zer egin litekeen?—; tristeziak begiratzekoa da erdaldunentzat —hemen bertan sortutakoak izanik ere— ditugun zerbitzu erlijiosoen eta euskarazkoen artean dagoen aldea ez ezik leizea ere; aldera ditzagun argitaletxeen garapena, mundu sekularrean eta liburu erlijiosotan, etab. Garapen kultural berrietatik at geratuz doan Eliza bere minorizazio kulturalera doa zuzen, edo behintzat goraka doan euskal kulturatik erbestean galduko da. Baina ez gaitezen aurreratu).

Bien bitartean (1960-1995), Eliza presente egon da azken hamarkadetako euskal kulturaren aldakuntza eta garapenean. Esparru eta proiektu anitz izan da horren lekuko: komunikabideak, Ikastola, argitalpen-mundua, irakasle-prestakuntza, etab., batez ere 1980ko hamarkada aurretik.

1956tik honantz, Elizaren Irratiak sortu ziren, batzuetan herrialde osora begira, edo eskualdera, edo tokikoak ere. Gutxi izan dira gaur arte iritsi direnak, baina bizi izandako esperientzien oroigarri dira: Arrate, Segura, Loiola... Ekimen haien ezaugarrietako bat euskara ere erabiltzea izaten zen, askotan. Beroriek izan ziren euskal kazetaritzaren lehen eskola, aurreko mendearen hondarretatik euskarazko astekariak izan zi-

ren antzera: *Eskualduna* (1887), *Euskalzale* (1897), *Z. Argia* (1919. 1963), *Ekin* (1932-36), *Herria* (1944), etab.

50. etako azken urteetatik aurrera euskarazko irakaskuntzaren eskea atertu gabe errepikatu zen gizartean. Lehen ikastole-tako aski ekimen eliztarren artean jaio zen, eta, nolanahi ere, eraiki ziren ia ikastola denak Elizbarrutien eta Ordena erlijio-soen lege- eta erakunde-aterpea aurkitu zuten, eta gotzain-ordezkariren bat ere izendatu zen berorien ibilerak begiratzeko. Gero- rora, eliz babespe horretatik urrundu nahi izatean piztutako ti- rabirak ulerkarriak dira 1970-75. urteetato gatazka-giroan, eta ez dute iluntzen hasieretako hainbat jatortasun zintzo.

Eta honela, eliz historia kulturalaren punturik beltzeneta- ra iristen gara. Moyano (1857) eta Villar Palasí-ren (1970) Hez- kuntz Legeen arteko historian Irakaskuntzako sektore erlijiosoa- ri (hau da, funtsean Lekaide-Lekaimen ikastetxeei) zuzendu izan zaizkie euskalgintzatik kritika eta salakizunik gogorre- nak, nahiz eta ezin uka, bestalde, egindako lana erraldoia izan dena beste zentzu batean. Hauxe da Euskal Herriko Elizaren kultur eremurik kritikatuena: beste gabe, indarrean zegoen hezkuntz sistema zanpatzailearen esku-makila izan dela, ia aitzaki zurigarririk gabe. Gure jatorrizko kulturaren osaga- rriak eta euskara saihestuak izan dira, eta ukatu/isilduak, orokorki hezkuntz sistemaren gainerako ikastetxeetan egiten zen bezala, eta eliz jendea ados izan zen egoera horrekin, inoiz atxekimen bihozkorrez, gainera. Sufrikarioz eta merezimen- duz eramandako salbuespenek ez dute historia hori ezaba- tzen, berresten baizik<sup>9</sup>. (Ez dezagun ahantz 1975aren aurrekoaz ari garela). Ondorioak latzak izan dira hizkuntzarentzat, hain zuzen hamarkada haietan elebidundu baitzen neurri handi batean euskaldungo zaharra, hizkuntz trukaketaren bide arris- kutsuan sartuz (aldera, adibidez, 1866-68 eta 1991ko datuak: Gipuzkoan, % 79 euskaldun elebakar orduan; % 1 soilik orain).

Hala ere, esan dugu, izan da salbuespen adierazgarri- rik irakasmundu horretan, epealdi jakinetan bederen. Gogora di- tzagun klaretarrak (gerraurrean eta ondoren), lasalletarrak eta gertakari lekutuago eta beranduagoko batzuk beste Kongre- gazioetan. Ziurki, lehenago (Kardaberazen protesta ekar liteke

hona) eta azken mende t'erdiko eskolaratze orokorrean (Altzo, Aitzol, Lekuona), elizgizonek behin eta berriz salatu zuten erdal eskolak zekarkigun hondamendia eta berorren ezarpenaz egiten zitzaigun bidegabekeria, nahiz eta berau Erakundeetatik ezarria izan eta agindu-legeen esanetara egin. Baina eliztar batzuen salakuntza horrek deus gutxi konpondu izan zuen eliz ikastetxeek bien bitartean egiten zuten erdal lanaren kaltea, hain zuzen gizarte zibiletik, eta zenbait Erakundetatik ere, euskal ikastolaren asmoa bultzatzen zen aldi berean (Bizkaian, adibidez, Aldundiak sustaturiko Auzo-Eskolak, 1921-36, edo M. Muñoa-ren Koruko Amaren Ikastola, Donostian).

Badirudi 1970. etako Hierarkiak ulertu zuela, azkenik, iraganaldi lotsagarri honen lezioa, Euskal Herriko asmo sozio-politiko berriekin kidetzen zen bitartean. Zetozen garaiei aurrea hartuz, Derio-Donostiako Seminarioetan Irakasle-Eskolak ireki ziren, zetorren irakaskuntza elebidunerako maisu-maistrak prestatzeko. Irten ere Eskola horietatik irten ziren 80. etako OHOrako irakasleak, irakas-elebiduntzearen lehen pausoetan lagundu zuen asko.

Goizegi da oraindik iraganeko eta berrikitako Elizaren eta euskal kulturaren arteko topa on eta gaiztoen sintesi historiko eta iritzi egin eta finkoa eskaintzeko. Azterlanak falta dira, eta hurbilegia da gehiena interesatzen zaiguna, baina, agian, badago zenbait datu nahiz irizpide historia horri begiratu eta galdera batzuk behintzat mahaiaren gainean jartzeko. Hona ohar batzuk, ba.

## AZKEN OHARRAK

Aro Modernotik hona bederen, Elizaren tradizioan egon da, «euskal kulturaren» garapenean esku izatea, eta une historiko bakoitzean, noski, garaian garaiko eliz baldintzen pean egin du hori, Eliza unibertsalak eta bertakoak zituen baldintzen barruan; baina, nola ez, ez da falta izan Eliz kanpotiko baldintza sozio-politiko eta kultural interesaturik, Euskal Herriko gizar-



tearen baitandik ez ezik, urrunagotik ezarritako gertakizun eta egoerarik ere<sup>10</sup>.

Elizaren eta euskal kulturaren arteko harremanen funtza ulertzeko ezinbestekoa da Erakundearen eta Hierarkiaren ekimenak (bere ekintza puntual edo ohikoetan), alde batetik, eta, bestetik, hainbat eliz lagun eta apez xumeren ideia propioak, beren kabuzko proposamen eta lanekin, bereiztea. Haiak eta hauek ez dituzte eliz Erakundearen historian (nahiz euskal kulturari) balio eta eraginkortasun berak.

Eta Erakunde-ofizialtasunaren baitan denak ez du eskuarmen bera: hizkuntz politika handia Kontziliotan definitu da, edo Diozesietako Sinodoetatik, baina izan da gero egunean eguneko parrokietako jarduna ere; Diozesiko apezten eta Ordena erlijiosoen hizkuntz ohiturek baldintza instituzional guztiz desberdina izan litzakete, eta horregatik, lege onkorren eta tokiko erabakien alkantzua, adibidez, zehazki begiratu behar da. Zer erabaki zen Trenton latinaz edo herri-hizkuntzaz, eta nola azaldu zitzaizkien arauak Arabako Lautadan Gazeo-ko baserri-tarrei 1569ko otsailaren 13an? Eta ondoko praxia nondik norra joan zen?

Ezagutzen dugun Euskal Herriko hizkuntz politika linguistikoa testuinguru ireki batean behatu beharra daukagu. Esate baterako, Kalahorrako Arau Sinodal ezagunak —Euskal Herriko historia kulturalan hain baliosak ditugunak— praxi desleial batek itsustu zituen beren balio praktikoan, edota, beste ikuspegi batetik behatuta, haien balioa erlatibatua gertatzen da, Eliza unibertsaletik, Penintsulatik nahiz Hexagonotik begiratzen badugu<sup>11</sup>.

Aurrera goazela, Elizako historia soziolinguistikoa ulertzeko, haren barne-bizitza sozialean bizi izan diren hizkuntzen erabilpenen eremu ezberdinak bereizi egin behar dira, gainera, izan ere Eliza latindarrean batik bat elebakartasunak (albo- zein gain-jarriek) hizkuntzen erabilpenetarako elkarren osagarri diren arau eta jokamolde praktikoekin mosaiko bat sortu baitute mendeak zehar, gure egunetan tradizio horren egitura guztiz irauli den arte. Politika horrek izan du, ba, konplexutasunik.

Denboran eta espazioan zehar, Eliza kristauen irizpide eta legeria aldakorrak izan dira, herri-kulturen zerbitzuan edo bostere nagusien faboretan, edota pentsamolde, jatortasun ebanjeliko nahiz unean uneko moldakortasunaren menpe: ikusi besterik ez dago zein aurpegi ezberdinak izan dituzten Trentoko eta Vatikanoko II.eko hizkuntz politikek. Beste ikuspegi batetik, gogorra dezagun Eliza erromatar-latindarrean eta Ekialdekoetan irizpide orokor oso kontrajarriak bizi edo pairatu direla. Testu inguru historiko orokorrago horiek ere argigarriak dira Euskal Herriko Elizaren historiaz iritzi egin bat izateko.

Historia honetan, ordea, uste dudanez, euskararen garapena edo hondamendia lagundu duten egintza positiboak ez ezik, utzikerien historia ere ezagutu behar da: egin gabe utzi diren egitateak. Eta hau esatean, herrien ebanjelizatzerako emantiko eliz arau orokorren hemengo aplikazioaz ari naiz. Kristau zaharren herrietan Elizak izan duen hizkuntz politika kulturalaren eta misio-herri berrietako politikaren arteko alderaketak lagundu baizik ez dio egingo historialariari Euskal Herriko jokamoldeak konprenitzeko.

Ameriketean, adibidez, Cortés-en Espainia Berrian Frai Joan Zumarragakok argitara emandako kristau-ikasbide mexikak (1528) Europako euskarazko lehenengo aipatuari hogeita hamar eta gehiago urtez hartu zion aurrea (1561). Misiolari baten eskutik (A. de Olmos), nahuatl hizkuntzak bere gramatika argitaratuta izan zuen 1547an, hau da, Larramendik euskararena inprimatu baino 132 urte lehenago. 1524tik 1572ra, Mexikon 109 obra agertu ziren hango jatorrizko hizkuntzetan edo beraiei buruz (ia denak elizgizonek paratuak), hemen Euskal Herrian mende osoan lau argitalpen genituen bitartean: beranduko bi kristau-dotrina, Etxepare apezaren olerkiak eta Testamentu Berriaren itzulpen kalbindarra.

Amerikarekiko aipamen hau ez dago hemen lekuz kanpo: Kalahorrako gure Gotzain «arabarrak», Diaz de Lukuk, ongi ezagutu zuen Zumarragaren lana eta ebanjelizatze amerikarra (1532tik aurrera), Gasteizen Sinodoa bildu (1546) eta bere hizkuntz kezka pastoralak azaldu aurretik. Pentsa liteke, gainera, Ameriketako hura gogoan zuela, ez ote zigun Lukuk arazo

honetan berrikuntza eder bat ekarriko, Trentoko egonaldiaren ondoren hain berehala hil ez balitz (1556).

Hemen, Europan, gurea hain eskas zihon bitartean, Eliza katalanak eginda zeukan bide luze, Raimon Llull eta Eiximenis-en lorpenetatik hasita (XIII-XIV. mendeak), eta Eliza gaztelauak, berriz, eskuetan zuen erromantzez idatzitako kultur eta izpiritualitate-liburu erlijiosoen katalogo nahiko aberatsa<sup>12</sup>. Eta XVI. mendeak aberastasun berriak ekarri zituen, Espainiako Elizaren kultur ondarea biziberritu eta heldutasun bikainera eramanez. Egiteko horren kontzientzia ederki asko agertu zuten, gainera, Fr. Luis de León-ek (*Los Nombres de Cristo*, 1583) edo Malón de Chaide nafarrak (*Conversión de la Magdalena*, 1588), eliz gaztelania gailur bikainetara jasoz, Donibane Gurutzekok egin zuen bezala. Euskaldungoak ez zuen esku artean beste hainbestekorik izan —eta betiere askoz apalagoa, noski— XVII.era arte Iparraldean eta XVIII.aren hondarretan Hegoaldean.

Zer adierazten dute hutsune hauek, zabarkeriok, atzerapen hauek Euskal Herriko Elizaren historian? Zein zen berorien arrazoia? Zein ondorio izan zuen horrek guztiak Euskal Herriaren kultur atzerapen orokorrean ere? Eta, berezikiago, gure Elizaren beraren barne-bizitzan? Zein izan zen horretan eliz Erakundearen erantzukizuna?

Euskal Herriko Elizari ekarri handia eskaini izan dio gure herriak, eta beroren iraganaz diharduen historialari gaztelau batek zera idatzi du, Mujika Gotzainak erbesterako bidea hartu behar izan zuenean, hark atzean utzitakoa gogoraraziz: «*Dejando su espléndida diócesis con 2.150 sacerdotes seculares [joan zen], el 6% del total español; 1.549 religiosos, el 12% de España y 5.123 religiosas, casi el 11% de todas las del país*» (eta, bestalde, Nafarroa eta Iparraldea ere hor zeuden). Euskaldungoak azkarki lagundu zuen eliz erakundea gure gizartean erroztzen, eta baita misio-herrietan ere. Aldiz, ulertu ote zuen Eliza horrek, erakunde bezala, gure herriarekiko zegokion inkulturazio-betebeharra? Eta zentzu honetan, pentsatu ote du inoiz, eta lortu, *erakundez eta kulturaz zinezko «euskal Eliza» bat eraikitzea?*

Euskal Herriko Elizaren historiaz —eta berorren barruan hizkuntz historiaz— ditugun ezagumenduak mugatuegiak dira berdalako erantzunak eman ahal izateko, eta galde horiek argitara ekarri beharra dago, ahal den neurrian aztertu eta erantzun ditzagun. Uste litekeenez, gogoeta eta ikerkuntzarako eremu hau eliztarrei dagokie, berezikiago eta gertuagotik.

Sakon-sakonetik sekulartu den gure gizartean —beraz, zorzaion independentziarekin, eta Elizatik saihestuta edo urrundu-ta eta eszeptiko ageri den gizartean—, zein sinesgarritasun izan lezake «euskal Eliza» ez den «Euskal Herriko Eliza» batak?

Eta norbaitek «unibertsaltasun» eta «katolikotasunaren» ize-nean inkulturazioaren betebeharra gexaldu edo ukatu nahi balu, zera gogoraraziko genioke halakoari: aspalditik, eta XX. mende honetako Teologian areago oraindik, «katolikotasunak» ezer frogatzekotan inkulturazioaren premia eta betebeharra frogatu digula, ez kontrakorik (eliz irakaskuntza, horren testigu). Teoriak teoria, bestalde, Euskal Herriko Elizak inork gutxi bezala erakutsita du, Kongregazio erlijioso eta Elizbarrutien bidez, bere misio-historia oparoa: mundu zabalean behintzat bai, agian hemen bertorako katolikotasunean neurri bera izan ez arren. Euskal Herriko Elizan eta gizartean urrun geratu ziren «nazional-katolizismo» baten liluramenduak, besteak beste orain hogeita hamar urte «euskaldun/fededun»-en ezkontza belauen berriak zapuztu zuenetik behintzat (1968-69).

Euskal Herriko Elizaren izpiritu unibertsala ongi frogatuta dago iragan gizaldietan, elizgizon hutsen jardunean ez ezik eliztar euskaltzaleenean ere: Zumarraga edo Mendieta-rengandik hasi eta Xabier edo Berriotxoaganaino, Lertxundi oriotarrak mundu islamikoan eman zuenetik (arabierazko obren egile eta argitaratzaile Marokkon) Txinan Etxeberriak egin zuenera (tartean, Olabideren *Itun Zar eta Berria* paratuz), Euskal Herrian bertan Aitzolek gidatu zituen kanpaina misiozale eta euskaltzaleetatik Plazido Mujikak Kolonbian buruturiko lanera, X. Kanda zuberotarrak Japonian edo Sagarminaga eta Zameza bizkaitarrek Penintsulan nahiz Garaigordobil-ek Ekuadorko Los Ríos-en edota hainbatek berrikitan Ruandako sarraskien artean

emandakoetaraino. Zenbat kultura eta hizkuntza maitatu, ikasi eta bere egin dituzten euskal misiolariak Elizaren eta gizakia-  
ren zerbitzuan!

Baina geurera gatozela, joandako horiek guztiek erbestean egin duten inkulturazioaren parean eta ordainetan, zer da hemen bertan Elizak Euskal Herriari, herri bezala, eman edo kendu diona? Irizpide berdinekin jokatu ote da misio-herrietan eta sorterrian? Ez da galdera erretorikoa, noski.

Azken hamabost urteetan Elizaren presentzia kulturala erlatiboki gutxitu eta kaskartuz doa Euskal Herrian, eta, zorionez, neurri batean elizkanpoko gizarte zibilaren garapenak gora egin duelako ere gehienbat.

Euskal kulturaren gaurko loraldiaz Eliza ezin liteke poztu baizik egin; baina ez dirudi zuzenets litekeenik garapen horretatik alhora geratu edo (auto-)saihestea, batez ere bide-ertzean geratze hori proiektu baten faltaz, edo, okerrago litzatekeena, «euskal Eliza» onartu nahi ez delako balitz.

Bukatzeko, ohar orokor bat. Gaur eskuetan ditugun albistekin eta ikaslan konparatiboekin, samurra izango litzateke Euskal Herriko Elizaren hemengo inkulturazioaren «historia-apologia» bat egitea, baina, gutxienez, alfer-alferrikako historia gertatuko litzateke, aurkako «historia-salakuntza» izan litekeen bezalaxe. Iragana beste nolabaiteko maitasun eta argitasunez begiratu beharko da, etorkizunean ere lagun gaitzan.

Zorionez, «euskal Elizaren» bila inoiz baino gehiago egin da azken hamarkadetan, gure gizarte gatazkatsuari entzunez, Hierarkia hemendik eta bertorako irakasten jarrita, herriarekiko itzalarekin eta Euskal Herri osoko eliz agintari eta indarrak batera bildu eta gidatuz, fededun herritarrak eta Gotzainak eskuz esku behin baino gehiagotan. Dakigunez, lehenagotik ez dugu inoiz horrelakorik ezagutu.

«Euskal Eliza» bere *ethos* bereziz mamitu eta egitura dadi-nean, Euskal Herriko fededun guztien historiaurre horren ondarea ere jaso ahal izango du, eta geroa askatasunean eta batasunean eratu. Euskal Herriaren zerbitzurako ere.

## Oharrak

1. Gogoeta-talde horien langai ugari dago argitara eman gabe eta sakabanatuta, arazoaz arduratuak azter dezakeena, nahiz eta eskuratzen samurra ez den. Hona eskuragarri den bat: SETIEN, J. M. (1988): *Fedea eta euskal kultura: gure Elizaren eginkizunetako bat*. Donostia: Elizbarrutiko Buletina, 1068-1095. (Badu bereizita egindako ediziorik ere).
2. Adibidez: MONREAL CIA, G. (1978): «Elizaren praxia euskarari buruz», in: *Jaunaren Deia*. 62. z., 1978. 30-39. Eta testuinguru zabalago batean: CHARRITTON, P. (1979): *Le droit des peuples à leur identité. L'évolution d'une question dans l'histoire du Christianisme*. Montréal: Fides.
3. «Inkultrazio» hitzaz Nazioarteko Teologi Batzordeak *Fedea eta inkultrazioa* agirian eman zuen bere definizioa (1988): «El proceso de inculturación puede definirse como el esfuerzo de la Iglesia para hacer penetrar el mensaje de Cristo en un determinado ambiente socio-cultural. *llamándolo a crecer en todos sus propios valores desde el momento en que éstos son conciliables con el Evangelio*. El término inculturación incluye la idea de crecimiento, de enriquecimiento mutuo de las personas y de los grupos, por el hecho del encuentro del Evangelio con un ambiente social». (Nik azp.). Azalpen labor bat: CARRIER, H. (1994): *Diccionario de la cultura, para el análisis cultural y la inculturación*. Estella: Verbo Divino. s.v. «Inculturación del Evangelio». Elizaren Historian bedidatik, eta XVI-XVII. mendeetatik berezikiago, zertorien ideia, Vatikanoko II. etik hona findu eta birmugatu egin da, termino horren pean. Ik. adibidez, Goetzainen Erromako Sinodoaren (1974), eta Arrupe-renak: ARRUPE, P. (1978): «Carta y Documento sobre la Inculturación», in: *Acta Romana*, 17, 1978, 230. Kontzeptuaren modernotasuna nabaria da, baina ez gaitzake hemen azalpen zabalagotan sar.
4. Hala ere, inoiz elizgizon-taldeek badute beren historia euskaltzale emankorra (Axular-en kasua eza-guna da), eta Kleroaren azpi-erakunderen batek ere bai (Gerrikoren kasua da, Gipuzkoan): idazketa sustatzeaz gain, argitalpenak ere lagundu zituzten.
5. INTXAUSTI, J. (1995): «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarrefomen ilun-argitan», in: *RIEV*. XL, 1995, 119-160.
6. Gotzain haiek aipatzeak ez du esan nahi hemen, orduko ekarpena gaur egunetarako, beste gabe, baliagarria dugunik; baina ahalegin haren balio pastoral-historiko eredu-garria azpimarratu nahi dugu: beren herriaren zerbitzuan jardun zuten, herritik bertatik. Kultura katalanaren eta Eliza Katolikoaren arteko harremanen historiari lehen albisteak ezagutzeko, ikus: BONET i BALTÀ, J. (1984): *L'Església catalana de la Il·lustració a la Renaixença*. Montserrat: Publicacions de l'Abadia. Bada gure artean ere, euskaraz, historia horretaz azalpen laburtu bat, historialari ezagun baten eskutik: MASSOT, J. (1978): «Eliza eta kultura katalana», in: *Jaunaren Deia*. n. 62, 1978, 53-59. Elizaren historiaren kanpotik emandako iritzi bat: HINA, H. (1986): *Castilla y Cataluña en el debate cultural. 1714-1939*. Barcelona: Ed. Península. 184. — Azken urteetako Euskal Herrikoaz, testuak: (1993): *Al servicio de la Palabra. Cartas Pastorales y otros documentos conjuntos de los Obispos de Pamplona y Tudela*. Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Bilbao: Ega (1975-1990. etako azalpenak dira); sarrera-ikaslana eta aipu laburtuak, in: PAGOLA, J. A. (1992): *Una ética para la paz. Los obispos del País Vasco, 1968-1992*. Donostia: Idatz.
7. Altxamendu Nazionalak ezarritako egoeraren barnean ere, Elizbarruti eta Kongregazioek, eta bakoitzak, politika ezberdin eta moldakorak izan zituzten, zigortu/babestuen inguruabarren arabera, Nagisien borondate on edo itxikerien aldarteen menpe, edo leku-uneek eskatu zutenaren arabera.
8. Gu baino jantziagoak ageri zaizkigun kultura mugatueta adibide batzuk aipatzea zilegi da, noski: katalanezko haiek, e. b.: «Col·lecció catalana de clàssics cristians» (1931), edo «Clàssics del Cristianisme» (1988), Savonarola, Péguy, Newman, Müntzer, San Frantzisko, San Agustín eta abar tartean direla.
9. Ongi etorriko da hemen salbuespen nabaria izandako agiri bat ekartzea, nahiz eta ez ditudan berorren ondorioak ezagutzen: *Lettre circulaire pour instituer et organiser l'enseignement des langues régionales dans les établissements diocésains*, Baionako Apezpikuak emana: badu, gainera, ikasgaien egitaraua ere (1923). Dakigunez, Hegoaldean ez genuen antzekorik izan, nahiz eta berrogei urte geroago Elizak eskolaren euskalduntzean ere, Ikastola babestuz, eskurik izan zuen; aldi, ikastetxe erlijiosoak elebitasunaren bidetik hizkuntz ereduaren ofizialtasunarekin bakarrik sartu izan dira, 1980.etan. Jokamolde orokor haren ondoan salbuespenik bada, noski, berehala esango denez.
10. Euskal herrialde eta eskualde anitz, mendeetan zehar, erbesteko gotzain-hiriburuetatik gobernatu du Elizak, eta kanpoko Gotzainak izan dira haietan bezala Iruñean eta Baionan nagusi (mahikoa da episkopologioak begiratzea). Bestalde, gertuagoko historia gordinagotik ihes noala, Goñi Gaztanbidek

XVI.eko Iruñeko Elizbarrutiaz azaldu digun historiari begiratu bat ematera deituko nuke irakurlea: Erreina erori zenetik (1512) Nafarroako Eliza gaztelautzen ahalegin ofizial guztiak egin zituen Koroak (arrotzen gotzain-izendapenak, erlijiosoen erreforma, Diozesia Burgos-i atxekitzea, etab.). Ik. GONI GAZTAMBIDE, J. (1985): *Historia de los Obispos de Pamplona*. III-IV. *Siglo XVI*. Pamplona: Gobierno de Navarra. III: 11-15, 289-293; IV: 145, 223, 303, 436, 609-618. Inoiz Katedraleko Kabildoari erantzun ziztaion bezala: «Que su Majestat proveerá lo que convenga» (1539). Hain zuhurra dugun Goñi Gaztanbidek hitz hauek idatzi ditu mende hartaz: «La política eclesiástica de la corona castellana se inspiró en la desconfianza. Navarra, en lo eclesiástico, fue sometida a un régimen colonial. Sus fuerzas espirituales fueron disgregadas, quizá con el designio de destruir su personalidad o al menos de debilitarla. Ciertos repartos del siglo XVI parecen un lejano eco de los repartos medievales de Navarra. El miedo a una involución movió a Carlos V y a sus sucesores a poner en la silla de san Fermín a personas de su absoluta confianza y a intentar la castellanización de la iglesia navarra en todos sus niveles. El recelo se llevó a límites extremos» (III, 12. or.). Historialari berak gogorarazi du: «Durante más de dos siglos (1520-1735) la diócesis de San Fermín se vio regida por Obispos no navarros». Kalahorrako Diozesiaz zera idatzi du Azkonak, XVaz: «Creemos que en la provisión [gotzainenaz ari da] prevaletio de ordinario la voluntad de la corona, que manejó un argumento de eficacia: era preciso colocar al frente de la mitra a una persona fiel a la corona por tratarse de un obispado fronterizo, que era necesario mantener a buen recaudo. Lo que no quiere decir que hubiera sido bien gobernado por obispos residentes». Eta autore berak, Kalahorrara bezala Iruñera begira, ondorio hau aterako du: «En la provisión de obispos para estas sedes se tenían en cuenta diversas previsiones de buen gobierno; pero no la pastoral de que fuesen nativos y supiesen hablar el idioma de su tierra». AZKONA, T. (1981): «Historia de la Iglesia en el País Vasco. Otoño de la Edad Media: 1378-1516», in: VARI (1981): I Semana de estudios de historia eclesiástica del País Vasco. Vitoria: Facultad de Teología. 94, 97. Kalahorrako Diozesian, eta no nahi eta gugandik askoz hurbilago ere, zer esan aski legoke XIX-XX. mendetan Hierarkiak erbesteko botere politikoekin izan dituen loturez, eta ez, noski, euskal inkulturazioaren onetan.

11. Zilegi izan bekik hemen azpimarraketa labur bat, gurean hizkuntzaren alde egindakoak zein erlatiboak diren ikusteko balio liezaioke irakurleari ondoko agiriek. Gogora ditzagun Erromatik misio-herriez emandako Entziklika handiak: Benedikto XV.aren *Maximum illud* (1919); Pio XI.aren *Rerum Ecclesiae* (1926); Pio XII.aren *Evangelii praecones* (1951) eta *Fidei donum*; Joan XXIII.aren *Princeps pastorum* (1959); Paulo VI.aren *Evangelii nuntiandi* (1975), eta Joan Pablo II.aren *Egregiae virtutis* gutuna (1981), eta, azkenik, *Slavorum apostoli* (1985) eta *Redemptoris missio* (1990) Entziklikak. Ik., gainera, Vatikanoko II.ekoak: 1964an *Lumen gentium* (13, 17. z.) eta 1965ean *Ad gentes*, (8, 11, 15, 16, 22. z. Kontzilio-aurrean, Frantziako intelektual katolikoek ere lana aurreratu zuten: (1956): *L'Eglise, l'Occident, le Monde*. Paris: Libr. A. Fayard. Lehendik zetorren esperientziak gain kolonizazio/deskolonizazioen kontzientzia txarrak ere etzenkatu du, noski, mende honetan Mendebaldeko Elizaren herri-kulturekiko gogoeta-berritze hau.

12. Katalanaren eta gaztelaniaren historia sozialek —beren ofizialtasunezko estatusetan— antz gutxi dute euskararenarekin. Ezinbestean, Euskal Herriko Elizak askoz ere kultur oinarri eskasagoetatik eta inguruaren laguntza ahulagoarekin ekin behar zion lanari.

# IRAKASKUNTZA KATOLIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN

PAULO IZTUETA

---

**H**ezkuntzaren sailean egindako hainbat ikerketak aipatu izan dute, datu ohargarri gisa aipatu ere, Euskal Herrian sare pribatuak garrantzia handia duela irakaskuntzako maila guztietan, ez-unibertsitarioan bezala unibertsitarioan. Marino Fernández Enguita-k jakinarazten digunez<sup>1</sup>, Espainiako Estatu osoan da joera halakoxea. Berak eskaintzen dituen portzentaia gaurkotu beharrekoak badira ere, deigarri gertatzen da jakitea 1985-86 ikasturtean, adibidez, % 37,7 ikasle zebiltzala Eskolaurrean, % 35,3 OHOn, % 31 BBB/UBIn, % 41,2 LHn eta % 7 Unibertsitatean. Orduan, sare pribatuari dagokionez, Belgika eta Holanda ziren portzentaia horien gainera zeuden bakarrak Mendebaldeko geografian. Irakaskuntza ez-



unibertsitarioan, berriz, Gipuzkoa zen buruan zihoana OHOn % 60arekin eta hirugarren Eskolaurrean portzentaia berarekin, Balearen eta Madrilén segidan.

Lehen urrats hori abiapuntutzat hartuta, hezkuntza katolikoa ren egoera euskal gizartean zein den agertzea izango da le- rro hauen xede nagusia. Azalpena maila deskriptibo hutsa izan- go da eta, funtsean, kuantitatiboa. Gai hau hain gutxi landuta dagoen une honetan, hasteko bederen, bada nahikoa eginki- zun Elizak euskal irakaskuntzan duen presentziaz datu zehatzak eskaini ahal izate soila. Honetarako, eskura izan ditugun iturri estadistikoetan oinarritu gara<sup>2</sup>, oso jakinaren gainean egonda oraindik informazio asko geratzen dela gure ezagutzatik at. Tau- lak eta grafikoak iruzkitzera mugatuko gara gehienbat.

## IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN GARRANTZIA

Zuzenean sare pribatuarekin sartu aurretik, sare pribatua- ren eta publikoaren arteko proportzioak zehaztasunez jakin ditzagun.

**1 taula: Ikasleriaren banaketa sareen arabera (1977-1994)**

	<i>Publikoa (%)</i>	<i>Pribatua (%)</i>	<i>Ikastolak (%)</i>	<i>Guztira</i>
1977/78	307.810 (47,75)	293.510 (45,53)	43.278 (6,71)	644.690
1982/83	328.238 (51,15)	242.110 (37,73)	69.638 (10,85)	641.698
1987/88	298.439 (50,44)	219.320 (37,07)	73.868 (12,49)	591.627
1992/93	245.858 (47,41)	207.445 (40,01)	65.221 (12,58)	518.524
1994/95 <sup>3</sup>	246.755 (51,64)	231.111 (48,36)	36.125 (7,55)	477.866

Esan behar da, 1977-1994 epealdiko euskal irakaskuntza o rotara hartuta, sare publikoan beti ikasle gehiago ibili izan de- la —eta dabilela— pribatuan baino: % 47tik 51a bitarteko pro- portzioan publikoan, % 37tik 48a bitartekoan pribatuan eta, 1993-94 ikasturtera arte, % 6tik 12a bitartekoan Ikastoletan. Azken datu argitaratuen arabera —hauek 1994-95 ikasturte- ari dagozkionak dira—, 3 punturen aldea bakarrik dago bi sa- reen artean, publikoaren alde % 51,64arekin. Honek esan nahi bi sareak egun oso parekatuak aurkitzen direla eta sare

pribatuaren garrantzia benetan handia dela. Beste herrialdekoekin konparatu beharko litzateke ondorio zehatzagoak atara ahal izateko, gure oraingo lana ez dena.


Azken bi hamarkada hauetako ikasleria eskolatuaren eboluzioan, bada, ez da eman aldaketa nabarmenik, Ikastoletan izan ezik, hauetan hazkundera bikoiztu egin baita 6 puntutan, % 6,71tik 12,58ra pasatuz. Baina hazkunderaren dinamika horrek, hein batean, nolabaiteko etena ezagutu zuen 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearekin, zeinak, 1993-94 ikasturtetik aurrera sare publikoa eta pribatua besterik onartzen ez zituenez gero, 22 Ikastola publikatzen behartu baitzituen. Horregatik, datu estadistiko ofizialen aurkezpenean, Ikastolen egungo ikasleria sare pribatuan kontabilizatua dator eta publikatuena, berriz, sare publikoan txertatua. Legez ez da Ikastolarik existitzen, Ikastola konfederatuek, barrura begira, lehenago antzera funtzionatzen duten arren. Horregatik, Ikastolei buruzko datuak geroago zehaztuko ditugu.

Egiazko aldaketa eman, ikasle-kopuruaren murriztean ematen da, 17 urteren buruan, 1977-1994 epealdian zehazki, 166.824 ikasle gutxiago eskolatzen baita. Matrikulatze-beherakada 1985-86 ikasturtetik aurrera hasi zen garbiki nabarmentzen, zalan-tzarik gabe euskal gizarteak garai hartan ezagutu zuen jaiotze-tasa jaistearen ondorioz. Zentzu honetan, datu adierazgarria da nola Euskal Autonomi Elkarteak, 1976an, 41.100 haur jaio ziren eta 1989an, berriz, 17.024 bakarrik. Aski izan dira 13 urte 24.076 haur gutxiago izateko<sup>4</sup>. Demografiaren fenomeno hau orokorra izan da Espainiako Estatu osoan. Europa aurreratua-rekin konparatzen bada, berriz, diferentzia bakarra da han hamarkada bat lehenago, zehazki 1960ko hamarkada-bukaeran, hasi zela jaiotze-tasa jaisten. Europako batezbestekoa —1967-1987 epealdian zehar— 2,1 haur jaio zen emakumeko<sup>5</sup>.

Sareak probintzietan nola banatuta dauden begiratzen baldin bada, Nafarroa agertzen zaigu sare publikoan errotuena % 59,61eko portzentaiarekin; Araba eta Bizkaian berdina, hauetan justu bada ere. Balantzak pribatuaren aldeko isuria erakusten duen bakarra Gipuzkoa dugu % 52,12arekin. Herrialde honetan, OHOn dago irmo finkatua irakaskuntza pribatua


% 58,06ko portzentaia garaiarekin. Nafarroan izan ezik, beste probintzietan, bi-hiru puntu gora-behera, bi sareak oso parekatuak daude. Dena den, aztertzeoak izango lirateke, Nafarroa eta Gipuzkoaren kasuan, joera markatu horien zergatikoak.

**1 grafikoa: Sareak probintzien arabera**



Bestalde, ikas-mailak kontuan hartzen badira, ohartzen gara BBB/UBIn, hemen batik bat, eta Eskolaurrean duela sare publikoak eragin gehien, % 60,21 eta 55,17ko portzentaiekin; pribatua, aldiz, doi-doi bada ere, OHOn nagusitzen da % 51,77rekin. Lan-mundura zuzendutako ikas-mailan, % 32tik 34a bitarteko portzentaiaarekin, aski parean ageri dira bi sareak.

**2 grafikoa: Sareak ikas-mailen arabera**



Unibertsitateko irakaskuntzan, azken hiru hamarkada hauetan, ikasle gehienek unibertsitate publikoaren aldeko aukera egin dute % 65etik 69a bitarteko portzentaiaarekin. Jesuiten eta Opus Dei-koen unibertsitate-eskaintza pribatuak, hala ere, eragin bortitza du euskal lurralde osoan, irakaskuntza osoaren % 30-34 bitarteko marjina betetzen baitu.

**2 taula: Unibertsitateko ikasleria sareen arabera (1981-94)**

	1981-82	1991-92	1994-95
PUBLIKOA	35.993 (69,06)	55.703 (64,50)	61.422 (65,04)
EHU	31.581 (60,60)	50.056 (57,96)	53.324 (56,47)
UNED	2.388 (4,58)		
Zaragoza	2.024 (3,88)		
NUP		5.647 (6,54)	8.098 (8,58)
PRIBATUA	16.122 (30,94)	30.664 (35,50)	33.012 (34,96)
Deustukoa	9.191 (17,64)	14.505 (16,79)	16.350 (17,31)
Nafarroakoa	6.931 (13,30)	16.159 (18,71)	16.662 (17,64)
GUZTIRA	52.115	86.367	94.434

Goian esan bezala, Espainiako Estatuan Unibertsitate pribatuak ikasleria osoaren % 7a hartzen bazuen duela hamar urte, ez al da harrigarri Euskal Herrian goi-irakaskuntza pribatuak duen eragina? Espainiaren aldean, bost bider handiagoa! Hemen ere aztertzeakoak izango lirateke, batetik, hezkuntz sistemak lan-munduarekin duen zerikusia eta bestetik, hemen era espezifikoago batez, euskal burgeseriak unibertsitate-irakaskuntza pribatuko sail jakin batzuekin egituratuak dauzkan haremanak.

Sare bakoitzak orain arte izan duen hazkunde-erritmoari buruzko eboluzioan ez da sumatzen ez bataren eta ez bestea-  
ren aldeko joera apartekorik. Begi-bistako jauzia ikasle-populazioaren hazkundean eman da, oraindik 1981-82 ikasturtean 52.115 ikasle baizik ez zirenak 1994-95ean 94.434 baitziren. Ikasle-kopurua ia bikoiztu izanak, beste hainbat arazoren artean, masifikazioarena ekarri du eta honek, bidenabar, fakultate desberdinetako ia sail guztietan numerus clausus-aren politika murriztailea ezartzea, sare publikoan bederen. Baztertzeako sistema hori pribatuak beste era sofistikatuago batez zomorrotzen du, ageriko neurri hertsaille horietara jo gabe.

**ELIZAREN LEKUA SARE PRIBATUKO ESKOLATZEAN**

Irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren arteko indizeak lehendik ere ezagunak genituen. Gure ikergaiak jarraitasun

sistematikoa izan dezan ekarri ditugu hemen goiko xehetasun horiek. Irakaskuntza pribatuaren barrutian, ordea, titularitatearen aldetik ez dira ikastetxe guztiak izaera juridiko berekoak eta badu garrantzirik sare hau osatzen dutenen artekoen eskolatzetasak jakiteak. Eta guri zuzenean dagokigun galdera, hain zuzen, hauxe da: zein da Elizari dagokion lekua?

Galdera horretaz, egia esan, ez dakigu gauza askorik. Zergatik gertatu den horrela ere ez dakigu askoz gehiago. Agian iturrietan hermetikotasuna egon delako edota arazo hau lantzea inor gutxiri interesatu izan zaiolako? Bestalde, jakinda liberalismo klasikoaren lehian Espainiako Elizak beti eraman izan duela protagonismoa irakaskuntzaren esparruan, hipotesi zailtan burua asko nekatzen ibili gabe, pentsatzekoa da, egun ere, garai hartako ideologi liskar haiek ondo gaindituak badirudite ere, hezkuntza katolikoak lehengo herentziatik asko gordeko duela. Zenbat?

Horren erantzuna, irakaskuntza publiko eta pribatuaren mugak ondo zehaztu eta gero, sare pribatuan eskolatzea nola gauzatzen den aztertzeak emango digu.

### 3 taula: EAeko eskolatzea sare pribatuan orotara (1977-94)

	<i>Elizarenak</i>	<i>Besteak</i>	<i>Guztira</i>
1977-78	210.793 (71,82)	82.717 (28,18)	293.510
1982-83	199.298 (82,32)	42.812 (17,68)	242.110
1987-88	190.793 (86,99)	28.527 (13,01)	219.320
1992-93	152.890 (73,70)	54.555 (26,30)	207.445
1994-95 <sup>6</sup>	121.803 (62,99)	71.558 (37,01)	231.111


Iturriak: FERE; *Economía Vasca. Informe*, Caja Laboral. Norberak landua.

Oraingoz irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko datu estadistikoak bakarrik landu ditugu eta, 3. taulakoek erakusten duten bezala, Elizaren monopolioa erabatekoa da. Edozein urtetan ere, 1977-1992ko epealdian zehar, % 71tik gorakoa; 1980ko hamarkadan, berriz, are handiagoa, % 87ra ere iristen baita 1987-88 ikasturtean. Beraz, sare pribatuaz jardutean, esan dezakegu, funtsean, hezkuntza katolikoaz dihardugula, erlijiosoek eta diozesiek gidatutako ikastetxeek, alegia. Oinarritzat 1992-93 ikasturteko datuak hartuta, baldin eta orduan ikasleria

osoa 518.524ekoa bazen, Elizak % 29,48 du, bigarren indarra da, sendo-sendoa, erdi-bidean zentru publikoen % 47,41etik zein Ikastolen 12,58tik eta sare pribatuko beste erakundeen % 10,52tik, berriz, oso urruti. Ipar Euskal Herrian, orobat, eskola katolikoek garrantzi handia dute, 13.000 ikasle biltzen baitituzte; Ikastolek, aldiz, 1.300 besterik ere, hauetatik 300 Xalbador Ikastegian eskolatzen direlarik, bigarren mailan<sup>7</sup>.


Euskal Herri osoan hezkuntza katolikoan dabilen ikasleria o rotara hartuta, 1977-94 epealdiko eboluzioan zehar, Bizkaiak eutsi egiten dio matrikulatze-tasari % 40tik gorako proportzioan, berdin Nafarroak eta Arabak % 19 eta 10etik gorakoan. Salbuespen bakarra Gipuzkoa da, hemen nabarmenki behera egiten baitu, urtez urte egin ere, 1971-72 ikasturteko % 30,19tik 1992-93 ikasturteko % 23,32ra.

### 3 grafikoa: Ikastetxe katolikoak (1992-93)



Hain zuzen ere, sare pribatuan buru doan herrialdean du galera irakaskuntza katolikoak. Honen arrazoia izan daiteke, neurri handi batean bederen bai, Ikastolen sarea Gipuzkoan dagoela askogatik hedatuena % 55-61a bitarteko indizearekin eta badirudi bera dela eskola katolikoari konkurrentzia egiten diona.

### 4 grafikoa: Sareen banaketa Gipuzkoan



Azken iturri estadistikoek eskaintzen dizkiguten 1992-93 ikasturteko datuen arabera, beti ere Gipuzkoari dagokionez, lehen begirada batean, 4. grafikoan ageri den bezala, bi sareak, publikoa eta pribatua, oso parekatuak ikusten ditugu % 35-36ko portzentaiarekin eta Ikastolak atzetik % 17,71koarekin. Baina publikoaren zutabearen ezkutatzen den 48.242ko kopurua bitan banatuz gero, orduan errealitatea da Elizaren ikastetxeetan dabilzanak zehazki 35.654 ikasle direla, hots, % 26,10, eta 12.588 beste ikastetxe pribatuetan. Beraz, Ikastolak aurrera hartua dio eskola katolikoari probintzia honetan. Puntu hau garbi ikusten da Euskal Eskola Publikoaren Legea aldarrikatu aurreko epealdian.

#### 4 taula: EAEko eskolatzea sare pribatuan (1994-95)

	<i>Elizarenak</i>	<i>Besteak</i>	<i>Guztira</i>
ARABA	19.668 (74,27)	6.813 (25,73)	26.481
Eskolaurrea	2.272	975	3.247
OHO	8.425	3.279	11.704
BBB/UBI	2.829	400	3.229
LH/IEE/MP	6.142	2.159	8.301
BIZKAIA	67.328 (66,18)	34.407 (33,82)	101.735
Eskolaurrea	7.863	5.719	13.582
OHO	37.666	14.820	52.486
BBB/UBI	11.191	5.031	16.222
LH/IEE/MP	10.608	8.837	19.445
GIPUZKOA	34.822 (53,45)	30.323 (46,55)	65.145
Eskolaurrea	4.446	4.480	8.926
OHO	19.372	13.199	32.571
BBB/UBI	5.818	4.347	10.165
LH/IEE/MP	5.186	8.297	13.483

Lege hori gauzatzean ordea, Ikastola guztiak sare pribatuan ala publikoan txertatzera behartu baitziren, Ikastolen egiazko errealitate soziologikoa bi saretan zatitua geratu zen eta harrezkero, 1994-95 ikasturteko datuak dakartzan 4. taulak erakusten digun bezala, zifra ofizialetan daukaguna da sare pribatuan hezkuntza katolikoa nagusitzen dela probintzia guz-

tietan: errazki Araban % 74,27arekin, baita Gipuzkoan ere % 53,45arekin. Portzentaia hauek, ordea, ez dute esan nahi eskola katolikoak indartu egin direnik, alderantziz baizik, bai kopuru absolutuetan eta bai portzentaietan indargetuz etorri baitira. Gehienez ere, egun Ikastolek bizi duten barreadura administratiboa adieraz dezakete.

## EUSKARAREN AHULEZIA ESKOLA KATOLIKOETAN

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak (1982) zehazten du, II. atalean, hezkuntza elebidunaren erabilpena. Harrezkero A, B, D eta X ereduaren arabera neurtuko da euskararen eta euskarazko irakaskuntza. Esan ere esaten da, irakaskuntza ez-unibertsitarioa bukatzean, ikasle guztiek elebidunak izan behar dutela. Zein neurritan bete den edota, zehazkiago esanda, betetzeko bidean doan lege hori jakin nahi da hemen, zeren datu neurgarrien 16 urteko ziklo osoa, 1982-83 ikasturteetik kontatzen hasita, 1998-99an bukatzen baita. Beraz, 5. taulan datozen datuak, hamar urteko zikloa (1982-92) baizik besarkatzen ez dutenez gero, ezin izan daitezke erabatekoak. Hamar urte, halere, aski urte dira joerak nondik nora doazen antzemateko.

**5 taula: Hizkuntz ereduak sareen arabera (1982-92)**

1982-83					
	A	B	D	X	Guztira
Publikoak	64,4	6,25	3,37	25,42	328.238
Pribatuak	63,8	8,47	3,97	23,72	242.110
Ikastolak	8,55	20,1	72,2	1,3	69.638
<i>Guztira</i>	45,58	11,6	26,51	16,81	639.986
1992-93					
	A	B	D	X	Guztira
Publikoak	52,18	15,32	16,18	17,4	245.858
Pribatuak	68,63	9,26	8,56	13,53	207.445
Ikastolak	17,54	9,92	72,54		65.220
<i>Guztira</i>	46,11	11,5	32,42	10,31	518.523



Emaitzak orokorrean hartuta, konstatatzen da hamar urteko bitarte horretan A eta B ereduak proportzio beretsuan mantentzen diren bitartean, aldaketarik ematen dela D eta X ereduetan, zeren euskara hutsezko irakaskuntza 6 puntutan gehitzen den proportzio berean gutxitzen baita gaztelania hutsezkoa. Nahiz eta 1982-83 ikasturtean Eskolaurtean zeudenei 16 urteko ziklo osoa bukatzeko oraindik urte-pare bat falta izan, BBB/UBIn alegia, 1992-23 ikasturteko hizkuntz ereduak erakusten dutena da, batetik, hamar urte pasa eta gero, % 46,11a, ia ikasleriaren erdia, oraindik ere A ereduaren eskolatzen dela lehen bezala eta, bestetik, X ereduak, beherantz egin duen arren, oraindik indarrean segitzen duela % 10,31ko presentziarekin. Honek esan nahi du gehiengo batek, hots, % 56,42ko batek euskarazko irakaskuntza ez duela usaindu ere egiten.

Kontrakarrean, hezkuntza elebidunak aurrera egin, D ereduaren egin du eta honi erantzen bazaio B ereduko multzoa, orduan % 43,92ko indizearekin aurkitzen gara eta, hain zuzen, gehikuntza hori jotzen da hizkuntz politika elebidunaren emaitza positibotzat.

Nolanahi ere, aitortu behar da orain arte lortutakoa oso urrun geratzen dela ezarritako helburutik, zeina baita ziklo osoaren bukaeran ikasle elebidun orekatuak prestatzea. Eta baldin, hainbat ikerketek sostengatzen duten bezala, egia bada A ereduak ez duela euskalduntzen eta B ereduak, berriz, euskaldun desorekatuak sortzen dituela, orduan ondorioz atera behar da hizkuntz sistema honek egiazki elebitasunean eskolatzeari lortu duen ikasle-multzo bakarra % 32,42a izan dela, hots, D ereduaren eskolatutakoa soilki. Eta indize horretatik lau heren arrimatu, zehazki % 72,54, Ikastoletan dabilena da. Komeni da zehaztea, Ikastoletan ez baita A eredurik, 1992-93 ikasturtean datorren % 16,6ko indize hori IEEko ikas-mailari dagokiona dela.

Bestalde, ohargarri da konstatatzea B eta D ereduaren sendotzean askoz ere parte handiagoa hartzen duela sare publikoak pribatuak baino, bietan, hurrenez hurren, 9,07 eta 12,81 puntuko gehikuntza ezagutzen duelarik; sare publikoak euskal lerro horietara dakarren gehikuntza, aldiz, oso txikia da: Bren


kasuan, 0,79 puntukoa eta Drenean, 4,59koa. Orobat, A erduan ikasle gehiago dabil sare pribatuan —% 68,63— publikoan baino, nahiz hemen ere gehiengotik gora —% 52,18— izan gaztelaniazko irakaskuntzan dabilena.

Sare pribatuan hizkuntz ereduak nola aurkitzen diren argitzeak garrantzirik badu, zeren sare horretan kokatzen den hezkuntza katolikoan zer-nolako hizkuntz portaerak dauden jakiten lagunduko baititugu.

Gatozen orain, Ikastolak sare pribatuan eta publikoan txertatuz geroztik, hizkuntz ereduak 1994-95 ikasturtean zertan diren ikustera.

Sarebietan eredu desberdinen arteko portzentaiak, 5. grafikoan ikus daitekeen bezala, aski parekatuak aurkitzen dira B eta D erduetan. Baina aldaketa garrantzitsu honekin, ordea: hots, oraindik 1992-93 ikasturtean % 8,56koa besterik ez zen sare pribatuko D ereduaren portzentaia orain % 20,63koa dela.

**5 grafikoa: Hizkuntz ereduak zentruen arabera (1994-95)**




Hain bat-bateko hazkunde hau, aparteko esplikazio bitxieta-  
ra jo gabe, oso ondo ulertzen da baldin kontuan hartzen bada publikatu ez ziren Ikastoletako ikasleria sare pribatuaren barruan kuantifikatzen dela. Era berean, sare publikoko D eredu-ko ikasleria 1992-94 epealdian % 16,18tik % 21,06ra igotzen bada, gehikuntza hau orduan publikatu ziren Ikastoletako populaziarri zor zaio.

Gaztelaniazko irakaskuntza hutsaren erresumatik gehien urruntzen dena, 6. grafikoan datorrenez, Gipuzkoa da. Herrialde honetan, B eta D ereduak elkartuta, % 59,77ko indizea

ematen dute A ereduko % 38,8koaren kontra. Bizkaian, euskal lerroko % 33,34ko indizea ezer gutxi da A ereduko % 65,2koarekin konparazioan. Nafarroako % 13koa zerbait sinbolikoa da beste ezer baino gehiago. Euskal Administrazioaren eragina, batik bat, Araban isladatzen da, hemen, berez Nafarroa baino euskaldunagoa ez izaki, B eta D ereduak % 29,59ko indizea osatzen baitute, ez Bizkaian baino askoz gutxiago.

**6 grafikoa: Hizkuntz ereduak probintzien arabera (1994-95)**



Berez, egindako oharrak salbu, ez da egon inolako aldaketa estrukturalik hizkuntz portaerari buruz. Alderantziz, zer pentsatua ematen dute sare pribatua nagusitzen den A ereduko % 60,58ko indize gorenak eta sare publikoan ia D eredu bezain indartsu ageri zaigun X ereduko % 19,14eko indizeak. Hau, jakina, Nafarroako datuak aintzakotzat dauzkagula diogu, hain zuzen ere, hemen jotzen baitu X ereduak bere gaina % 79,1eko portzentaiarekin. Hezkuntza elebidunaren aldarrikapen formala, hein handi batean edo, hobeto esanda, handiegan, mito hutsa da, propaganda administratiboa, gaztelaniazko irakaskuntza hutsa gailentzen baita errazki.

Eta zein da, azkenik, Elizaren ikastetxeetan euskarazko irakaskuntzari ematen zaion lekua? Zerbait aurreratu dugu lehen 1992-93 ikasturteko datuak ematean, bereziki sare pribatuari buruzkoak, hemen kokatzen baita hezkuntza katolikoa. Gainera, esana daukagunez, eliz ikastetxeak dira esparru hori gehien betetzen dutenak. Eskura dauzkagun iturrietan, hizkuntzari buruzko neurketak gela arabera eginak daude, 6. taula honetan zehazten diren bezala.

**6 taula: Gelak hizkuntz ereduen arabera eskola katolikoetan (1994-95)**

	A	B	D	Guztira
ARABA	577 (86,25)	86 (12,86)	6 (0,90)	669
Eskolaurrea	58	41		99
OHO	251	45		296
BBB/UBI	82			82
LH/IEE/MP	186		6	192
BIZKAIA	1.732 (74,14)	369 (15,80)	235 (10,06)	2.336
Eskolaurrea	186	103	58	347
OHO	931	266	126	1.323
BBB/UBI	291		29	320
LH/IEE/MP	324		22	346
GIPUZKOA	477 (34,07)	584 (41,71)	339 (24,21)	1.400
Eskolaurrea	14	123	88	225
OHO	177	461	179	817
BBB/UBI	157		27	184
LH/IEE/MP	129		45	174

Hizkuntz portaerak maila batean errepikatu egiten dira hezkuntza katolikoan ere, baina ez erabat. Gipuzkoako eskola-gelatan da Eliza euskaldunena, % 65,92rekin, non B ereduak ia bidekartu egiten baitu D ereduaren indizea. Herrialde honetan, batezbesteko orokorrarekin konparatuta, 6 puntuz edo goitik dabil. Bizkaian, aldiz, ez, zeren, bi euskal lerroak batera hartuta ere, guztizko indizea osta-osta iristen baita % 25era. Elizak bere defizit ikaragarria Araban dauka bere % 13,76rekin, hemengo batezbestekoaren erdira ere ez baita arrimatzen.

Eskola katolikoetan azpimarratzekoa iruditzen zaigun beste puntu bat, hauxe da: hots, B eta D ereduak gela gehienak Eskolaurrean eta OHOn pilatzen direla. Unibertsitate-ikasketarako erabakiorra gertatzen den azken zikloan, BBB/UBIn, oso gela gutxi dira euskal lerro bakarrari eusten diotenak: Bizkaian 29 eta Gipuzkoan 27, eta Araban Drik ez dago inongo ikas-mailetan. Kasurik onenean ere, Bizkaikoan, % 2,07 bakarrik izango lirateke beren ikasketak euskaraz burutuko lituzketenak, nahiz eta lerro horretako ikas-maila desberdinetan da-

biltzanak askoz gehiago izan: zehazki % 10,06 Bizkaian eta are gehiago Gipuzkoan: % 24,21. Azken batean, hezkuntza elebidun batean, hauxe da oinarritzkoena: ikasketak euskaraz burutzeko hizkuntz gaitasun aski izatea. Legez aldarrikatutako xedeak eta hezkuntza elebidunaren praxiak ematen dituen emaitzak, erabateko balorazioak egiteko hezkuntza elebiduneari eskolatutako lehen belaunaldiaren zikloa oraindik osoki bete ez bada ere, hurbilketa honek bide ematen digu baieztatzeko lau eredu horien finkapenean oinarritutako hizkuntz politika horrek, ez orain eta ez gero, ez duela inoiz euskaldunduko euskal eskola bere ikas-maila guztietan eta probintzia guztietan. Eredu horien eskaintza nahi den demokratikoa izango da euskal geografiako komunitate jakin batentzat, bereziki gehien-goia den gaztelaniazko sektore horrentzat, baina inondik inora ere ez da maila berean demokratikoa nazio-proiektutzat euskal lurraldea bere osotasunean euskalduntzea daukatentzat.

## ESKOLA KATOLIKOEN KOKAPENA ETA GAITASUNA

Bagenekien, eskuartean datu zehatzik izan gabe ere, eskola katolikoak oso hedatuak zeudela euskal lurraldean zehar. Sare pribatuan Elizak duen sarrera handiak, monopolio-izaerakoak, lehen uste hori berretsi besterik ez digu egin.


Azpiatal honetan, 7. taulan jasotako datuetan oinarrituta, diozesiek eta erlijioso-etxeek irakaskuntzaren munduan duten presentziari norainokoa aztertuko da, zutabetzat bi aldakinok hartuz: hots, ikastetxe-kopurua eta hauek ikasleak hartzeko duten gaitasuna, herrialdez herrialde neurtua.

**7 taula: Ikastetxe katolikoek kopurua, ikasleria eta gaitasuna (94-95)**

	<i>Ikastetxe-kopurua</i>	<i>Ikasle-kopurua</i>	<i>Gela-gaitasuna</i>
ARABA	22 (7,69)	19.664 (13,13)	22.748 (11,30)
GIPUZKOA	80 (27,97)	34.822 (23,25)	54.040 (26,85)
NAFARROA	72 (25,17)	27.715 (18,51)	40.903 (20,32)
BIZKAIA	112 (39,16)	67.562 (45,11)	83.574 (41,52)
<i>Guztira</i>	286	149.763	201.265

Guztira 286 ikastetxe ditugu irakaskuntzari emanak daudenak: 112 Bizkaian, 80 Gipuzkoan eta 72 Nafarroan. Dezente gutxiago Araban: 22 bakarrik. Ikastetxe horietako gehienak (% 65,59), ikus 7. grafikoan, probintzietako hiriburuetan kokatuak aurkitzen dira, askogatik hornituena Gasteiz delarik % 81,81ekin. Nafarroan ere, Iruñeak erdiak baino gehiago hartzen ditu. Gipuzkoan eta Bizkaian, agian kostaldeko herrialde hauek industrialduagoak daudelako eta hemengo populazioa probintzian zehar hirigune handietan barreiatuago aurkitzen delako, hauetan eskola katolikoek hedapena askoz ere era deszentralizatuago batean garatu da. Azken bi probintzia hauek herri garrantzitsu gehienetan sendo finkatuak agertzen dira ikastetxeak: Gipuzkoan, sei Zarautzen, bost Azpeitian, launa Eibar, Errenteria eta Tolosan; Bizkaian, halaber, bederatziz Barakaldon, bost Durangon, launa Derio, Getxo eta Santurtzin, hiruna Leioa, Ondarroa eta Sestaon. Eta bikoak, berriz, ugariagoak dira.

**7 grafikoa: Ikastetxe katolikoek kokapena**



Praktikan eskola katolikoetan dabiltzaneren kopurua txikiagoa bada ere —lehen ikusi bezala, 1992-93 ikasturtean, eskolatuen egiazko kopurua 152.890ekoa zen—, gaitasunaren aldetik prestatuak daude, behar izanez gero, 201.265 ikasle hartzeko. Honek esan nahi du ikastetxe hauek ez daudela osoki bete-ta edota, oraindik zehatzago esanda, inoiz egon direla beteagoak, zeren, 3. taulan agertzen den bezala, 13 urteren buruan (1977-92) orotara 57.903 galdu baititu eskola katolikoek sareak: 1977-78an 210.793 ikasle ziren eta 1992-93an, berriz, 152.890.

Eta 1994-95 ikasturteko datuek esaten digutenez, ikasle-kopurua jaisteko joerak aurrera darrai. Zentzu honetan, adierazgarria da 149.763ko kopurua. Ikasle-gutxitze honetan, zalantzarik gabe, baduke bere eragin zuzena eskola katolikoan ere irakaskuntzako sare guztietara zabaltzen den jaiotze-tasa jaistean fenomeno orokorrak, zein neurritan duen ez badakigu ere.

## ELIZ TITULAR DESBERDINEN DINAMIKOTASUNA

Hego Euskal Herrian irakaskuntzan diharduten eliz erakundeak, ordena zein kongregazio desberdinetakoak orotara kontatuta, ehundik gorako zerrenda luzearekin aurkitzen gara *Guía de centros educativos católicos* liburuan<sup>8</sup>. Eskola katolikoentitularrak, bada, asko dira, horietako batzuk espezifikotasunez irakaskuntzari emanak eta beste batzuk, aldiz, zeharka bakarrik. Dena den, pedagogia katolikoa ezaugarritzen duten elementu amankomunen barruan, erlijioso-ikastetxe bakoitzak badarama bere estilo propioa, bakoitzaren izpiritualitateari dariona eta eskolatzean ere nolabait isladatzen dena. Bego hor aztergai.

Gure arreta azpiatal honetan irakaskuntzan diharduten titular desberdinen dinamika zehaztera mugatzen da eta galderak bi zentzu hauetan planteatu ditugu. Lehenik jakin nahi da irakaskuntzan zein kongregazio diren indartsuenak eta, bigarrenik, generoaren aldetik zeinen ikastetxeak diren oparoenak, gizonetzkoenak ala emakumezkoenak. Erlijiosoentzein diozesikoentzein ikastetxe guztiak batera hartuta, 8 taulan laburbilduta datarren bezala, lau multzotako sailkapena egin daiteke.

### 8 taula: Eskola katolikoak lau multzotan sailkatuta

Multzoak	Eliz titularrak	Ikastetxeak	Gela-gaitasuna
20.000-3.000	22 (20,18)	175 (61,19)	135.171 (67,16)
3.000-2.000	6 (5,50)	24 (8,39)	15.630 (7,77)
2.000-1.000	13 (11,93)	21 (7,34)	18.840 (9,36)
0-1.000	68 (62,39)	66 (23,08)	31.621 (15,71)
Guztira	109	286	201.262

Lehen multzoan 20.000-3.000 bitarteko ikasleria dutenak daude, Lehen multzoan kokatzen da ikasleria gehiena, guztira 22 titularrek osatua 175 ikastetxerekin, eta hemen kokatzen dira ikasle gehienak % 61,19ko portzentaiarekin. Bigarren multzoak 3.000-2.000 bitarteko ikasleria daukana besarkatzen du eta berau da txikiena, zeinetan 6 titularrek osatutako 24 ikastetxerekin, % 8,39 bakarrik ari baita. Hirugarrenean, 2.000-1.000 bitarteko multzoan, 21 ikastetxe aurkitzen dira, 13 erlijioso-etxe osatua eta hauetan % 7,34eko ikasleria eskolatzen da. Azkenik, milatik beherako laugarren multzoa osatzen duten beste guztiak daude, guztira 68tik gora, eta hauen 68 ikastetxetan % 23,08 ikasle dabil. Kongregazio gehienek, bada, 1.000tik azpiko ikasleria daukate eta, aldiz, erlijioso-etxe gutxi batzuek monopolizatzen dute ikasleriaren erdia baino gehiago.

**9 taula: Eliz instituzio indarsuenak HEHko irakaskuntzan**

<i>Eliz titullarrak</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Gela-gaitasuna</i>
Diozesiak	23	17.400
Hermanos de Escuelas Cristianas	14	12.320
Hijas de Caridad S Vicente Paúl	29	11.540
Jesusen Konpainia	7	10.960
Carmelitas Caridad	8	8.226
PP Salesianos	9	7.600
PP Escolapios	5	5.880
Compañía de María	5	5.640
Hijas de la Cruz	12	5.355
Hermanos Maristas	8	5.080
Hijas de Jesús	6	5.000
Hermanos de Sagrado Corazón	6	4.640
PP Marianistas	2	4.400
PP Agustinos Recoletos	5	4.320
Erakunde pribatuak	6	3.806
Presentación de María	5	3.560
Hermanas Caridad Santa Ana	6	3.506
Clérigos San Viator	4	3.440
Mercedarias Caridad	5	3.218
Hermanos Instrucción Cristiana	3	3.120
Dominicas Anunciata	4	3.080
Ursulinas de Jesús	3	3.080
<i>Guztira</i>	175	135.171



Informazio-mailan izan dezakeen garrantziarengatik, 9. taula honetan dauzkazu 22 eliz titular horien izenak eta besteak, ikastetxe-kopuruaren eta ikasleak hartzeko daukaten gaitasuna araldetik neurtuak. Lehentasunak kapazitate-irizpidearen arabera finkatu dira, nahiz eta ez dakigun errealki zenbateko ikasle-kopurua eskolatzen den titular horietako bakoitzean. Alderdi hau ez da agertzen neurketa honetan.

Lehen begi-kliskan harrigarria badirudi ere, Diozesien jabetzako ikastetxeak dira, askogatik izan ere, 23 ikastetxerekin, ikasleria eskolatzeko gaitasunik handiena daukatenak 17.400eko kopuru absolutuarekin, bereziki Bizkaian eta, neurri apalago batean, baita Nafarroa eta Araban ere.

Bada beste kongregazio bat, Hijas de Caridad S Vicente Paúl deitua, oraindik 6 zentru gehiago dituena, 29 alegia, baina eskaintza-gaitasunaren aldetik apalagoa da 11.540ko kopuruarekin. Gizonezko erlijiosoen artean, oso nabaria da Hermanos de Escuelas Cristianas-en protagonismoa, 14 ikastetxerekin eta 12.320ko gaitasunarekin. Lehen indarra erlijiosoen artean, Diozesiak kenduta. Jesuiten ikastetxeak hainbeste ez badira ere, guztira 7, hauek kapazidade handikoak dira, beroriek baititugu, 10.960ko kopuruarekin, erlijioso-titularren zerrendan hirugarren lekuan sailkaturik datozenak. Besterik ez bada ere, irakaskuntzara emanak dauden kongregazio-izen ospetsuenak zein diren jakiteko balio du sailkapen honek, are gehiago honetaz dakiguna ezer gutxi denean. Emakumezkoen kongregazioen artean, hauek nabarmentzen dira, gaztelaniaz izendatzen ditudanak, ez baitakit euskarazko izenik badutenentz: Carmelitas Caridad, Hijas de la Cruz, Hijas de Jesús, Presentación de María, Hermanas Caridad Santa Ana, Mercedarias Caridad, etab. Gizonezko erlijiosoen artean, hezkuntza munduan tradizio luzea dutenak dira Aita Salestarrak, Eskolapioak, Marianistak, Laterandarrak, Anaia Maristak eta beste batzuk, guztiok oso espezializatuak irakaskuntzaren esparruan.

Begirada ikuspegi orokorratik probintzia desberdinetara zabaltzen bada, 10. taulan nabarmen dator nola eliz titular batzuen presentzia besteena baino indartsuagoa den. Bizkaian, adibidez, diozesi-ikastetxeak beste probintzietan ez bezala na-

ba mentsen dira, 13ko ikastetxe-kopuruarekin eta 9.880 ikaslerentzako gaitasunarekin, eta hemen Diozesiak duen eraginak dakar, hain zuzen, Euskal Herri osoko eskola katolikoan lehen indarra izatea. Ohargarria gertatzen da ikustea nola diren gizonetako erlijiosoen ikastetxeak buruan doazenak, hala nola, Jesuitak, Salestarrak, Maristak, etab., guztiak paretsu, 4.000-3.000 bitarteko ikasle-gaitasunarekin. Orotara, diozesi-ikastetxeak utzita, sei titularrek agertzen dute 5.000tik 3.000 bitarteko ikasleria eskolatzeko gaitasuna.

### 10 taula: Eliz instituzio indartsuenak probintzien arabera

	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Gela-gaitasuna</i>
<b>BIZKAIA: 3.000-10.000</b>	19	30.901
1. Bilboko diozesia	13	9.880
2. Jesusen Konpainia	3	4.640
3. Aita Salestarrak	4	3.560
4. Carmelitas de Caridad	4	3.346
5. Hijas de la Cruz	7	3.275
6. Anaia Maristak	5	3.160
7. Hnos. de Instrucción Cristiana	2	3.040
<b>GIPUZKOA: 3.000-10.000</b>	24	17.370
1. Hnos. de Escuelas Cristianas	10	9.120
2. Hijas de Caridad S Vicente Paúl	11	5.030
3. Mariaren Konpainia	3	3.220
<b>NAFARROA: 2.000-3.000</b>	15	11.792
1. Hijas de Caridad S Vicente Paúl	8	2.912
2. Jesusen Konpainia	2	2.520
3. Aita Eskolapioak	2	2.200
4. Iruñeko diozesia	2	2.160
5. Jesusen Ursulinak	1	2.000
<b>ARABA: 2.000-3.000</b>	5	7.760
1. Carmelitas de Caridad	2	2.880
2. Gasteizko diozesia	2	2.600
3. Aita Marianistak	1	2.280

Gipuzkoan, aldiz, askoz txikiagoa da bertako titularrek daukaten eskolatzeko-gaitasuna, zeren, hemen, 3.000-10.000 bitarteko ikasle-multzoan sartzen direnak hiru kongregazio baka-rrik baitira, hurrenez hurren, Hermanos de Escuelas Cristia-

nas, Hijas de Caridad S Vicente Paúl eta Compañía de María deituak. Diozesiarenak, Marianistak, Salestarrak eta Jesusen Alabak, laurok 2.000-3.000 bitarteko multzoan datoz zerrendatuak.

Nafarroan, 2.000-3.000 bitarteko multzoan, guztizko 25 titularretik bost bakarrik dira bertan sartzen direnak eta hauek bereganatzen dute eliz irakaskuntzako ikasleriaren % 28,83a, zeregin honetan buruan doazen hiru lehenak direlarik Hijas de Caridad S Vicente Paúl, Aita Jesuitak eta Eskolapioak. Kongregazio gehienak, guztira 11, 1.000-2.000 bitarteko multzoan aurkitzen dira, ikasleriaren % 37,59koa hartzeko gaitasunarekin.

Arabari, Nafarroaren antzeratsu, oso gutxi dira, 16ko guztizko kopurutik 3 soilki, 2.000tik 3.000ko ikasleria hartzeko gaitasuna duten titularrak, hauek zehazki: Carmelitas Caridad, Diozesia eta Aita Marianistak. Hauek ikasleri osoaren % 34,11a hartzen badute ere, 1.000-2.000 bitarteko multzoan eskolatzen da % 39,39a, zeina 6 titularrek osatzen baitute, hauen artean daudelarik, besteak beste, San Viator Klerigoak, Jesuitak, Hermanos de Sagrado Corazón eta Hijas de Caridad S Vicente Paúl.

Hemendik ateratzen den ondorio nagusia, hau da: kongregazio indartsuenak probintzia guztietan barreiatuak dauden arren, horietako bakoitzaren eragina desberdina dela probintzia bakoitzean eta kongregazio batzuk, kokapen-tradizioaren indarrez edo, probintzia batzuetan besteetan baino errotuagoak aurkitzen direla hezkuntzaren esparruan.

**11 taula: Eskola katolikoaren kopurua generoen arabera**

	ARABA	GIPUZKOA	NAFARROA	BIZKAIA	Guztira
Emakumezkoenak	8	32	19	44	103 (36,01)
Gizonezkoenak	14	48	53	68	183 (63,99)
Guztira	22	80	72	112	286

Irakaskuntzan diharduten eliz titularren indarra aztertu eta gero, era egokian gaude, generoan banaturaz, gizonen eta emakumezkoen kongregazioen arteko alderaketak egiteko. Aski da 11. taularen eskuinaldean begiratzea oharretako gizonen

ko erlijiosoen eskolak aise nagusitzen direla % 63,99ko portzentaia garaiarekin eta nagusitzen, gainera, probintzia guztietan, Nafarroan bereziki, hemen gizonezkoen kongregazioak % 73,61ekoa lortzen baitu.

Oso besterik da jakitea nola banatzen den gizonezko zein emakumezko erlijiosoen eskoletan diharduen irakasleria generoaren arabera eta, halaber, zein neurritan parte hartzen duen erlijioso irakasle tituludunak ikastetxe bertako irakaskuntzan.

Lan hau bukatzera goazen une honetan, gauza jakingarri asko geratuko dira aztertzeke: ikastetxe katolikoaren pedagogia, hauen ikuspegi doktrinala, finantzaketa-erak, curriculum bereziak, arrakasta akademikoa, unibertsitate publikoarekin zein pribatuarekin zubiak egitean ikasleek hautatzen dituzten karre-  
rak eta hizkuntz ereduak. Eta hainbat gai gehiago oraindik aztertzeke daudenak. Iker-lerrak irekita uztearekin konformatzen gara oraingoz.

1. *La escuela a examen*, Eudema, Madrid, 1990, 78-80 orr.
2. Iturri hauek erabili ditut: EUSTAT (Gasteiz), Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Iruñea), eta FERRE.
3. Urte honetan Euskal Autonomi Elkartearen sare pribatuan geratutako ikastoletako ikasle-kopurua bakarrik kontatzen da, ikasleria honela banatzen delarik probintzien arabera: Araban 1.832, Gipuzkoan 32.827 eta Bizkaian 1.466. Nafarroako Ikastolak 1992-93 ikasturteaz geroztik sare pribatuan eta publikoan banatuak daudenez geroztik, bietakoak elkartuta, 5.247ko kopurua osatzen dute aipaturiko ikasturtean (Iturria: Gipuzkoa eta Nafarroako Ikastolen Elkartea, 1996).
4. EUSTAT. Norberak landua.
5. EUROSTAT: *L'Europe en chiffres*, Luxembourg, 1990.
6. Euskal Autonomi Elkarteko datuak bakarrik datoz hemen, Nafarroakoak lortzerik ez baitugu izan. Beraz, eskura leudekeenean, osatu beharreko ikasturtea da hau.
7. *Egunkaria*, 1993-IX-12.
8. FERRE: *Consejo General de la Educación Católica*, Servicio de Estadística, Madrid, 1993.

# ELIZA KATOLIKOA EUSKAL HERRIAN KONTZILIOAREN ONDOREN

*Honako galderari erantzuteko eskatu diegu ondoko artikulugile guztiei:*

*«Eliza katolikoak Euskal Herrian, azken 30 urte hauetan, Kontzilio ondoren alegia, izan duen eboluzioaz zein da zure iritzia edo balorazioa? Zein alderdi aipatuko zenituzke positiboki eta zein eskas bezala edo negatiboki?»*

*»Balorazio orokorra egiteaz gain zenbait puntu zehazkiago aipatzea eskertuko genizuke.*

*»Ohar gisa izan kontuan Eliza (katolikoa) bere osoan hartzen dugula (hierarkia eta komunitatea), Euskal Herria bere osoan (hegoaldea eta iparraldea) eta eboluzioa ere bere osoan (alderdi instituzionalak, soziopolitikoak eta kulturalak barne)».*

## ESTEBAN J. AGIRRE

Lehenik eta behin, irakurleari ohartarazi nahi diot ezinezkoa iruditu zaidala aldizkariak bere galderakoan eskatzen zuen mugen esparruak gainditu gabe —2 or.— iritzia edo balora-

zioa ematea —han eskatzen ziren orokortasun nahiz zehaztasunez— bai lurraldearen, bai Eliz egituraren, bai bataren zein bestearen baitako sektoreen ikuspegietatik.

Hala ere, eskatzen zitzaidanari erantzun nahirik, hautapen batzuk egin eta erantzuten ahalegindu naiz; hauek: bilakabidearen gain argi egin dezaketen eta neronek hala ikusten ditudan «mugarri» batzuk agerian jarri eta horiek ulergarri egin, testuinguruan kokatzen dituzten zenbait detaile emanez. Gehiago saiatu naiz nire iritzietatik azalpen bat egiten, balorazio bat ematen baino, argigarriagoa izan daitekeelakoan «mugarriok» erakusten dutena eta, bakoitzak izan lezakeen ikuspegiaren arabera hainbat izan daitekeenez, norberaren esku utzi dut horien balorazioa.

Iritziok, bestalde, kokatuak dira ezinbestean; hona lerrook baldintzatzen dituen kokagunea: Eliza barneko jarduera eta Gipuzkoako lurraldea, alegia. Dena den, baldintzatzen dituzten heinean egiazkoagoak eta frogagarriagoak ere egiten dituztelakoan nago eta, besterik gabe, hona 30 urteotako eboluzioan gaingiroki eta oro har nabari dudan bidea:

- *Gehiengo-kutsua zuten jende-masatako multzoetatik milietan osatutako taldeetara.* Abiaburu ditugun garaietan jendearen elkartegune nagusia elizakoa zen eta, indarrean zegoen lege zibilaren arabera, herri-mailan kontrol politiko-polizial zuzenik gabeko zilegizko jarduera-eremu ia bakarra elizakoa zen —ez dezagun ahaztu mintzagai dugun urte-multzoaren heren bat diktadurapeko urteak ditugula eta beste herenaren puska on bat, normalkuntza politikoranzko trantsiziokoa— eta esparru horretan gauzatutakoak ditugu nolabait ere ahopean, eta «klabea» egiten ziren herri-sentipen fedezkoari eta politikoa-ri bide zemaieten garai bateko deialdi eta bilkura masibo gutxi-asko ugariak. Bitartean, eliz ingurunean mugida txikiagoa baina sakonagoa gauzatzen ari zen, taldez taldeko jardunbidearen inguruan. Urteon luze-zabalean, lehen jarduera-bidea ahulduz joan den bitartean, hondartxo batzuk ez erakustearaino, bigarrena eliz eraginaren tresna nagusia bilakatu da.

- *Gizarte-eragineko jardunbidetik eliz eta izpiritu mailako joan-kaerara.* Joan XXIII.aren *Mater et Magistra* (1961) eta *Pacem*

*in Terris* (1963) entziklikek eta kontzilioko agiriek arnasa berria eman zioten ordura arte eliz gerizaren inguruan nola edo hala funtzionatzen zuten eta Hego Euskal Herriaren urteotako gizarte-bilakabidean pisu nabarmena izan duten kultur, langile- eta politika-erakundeen abiaburu gertatu ziren taldeei. Alabaina, hegoaldean behintzat, egungo politika-egituraketa finkatuz joan den neurrian, badirudi taldeei gizarte-eragina ahulduz joan zaiela, alderdi eta sindikatuak batik bat handituz joan diren neurri berean, fede-heziketara (bibli taldeak, katekumenotzakoak, otoitz-taldeak...) eta eliz-funtzionamendura emateko nagusiki. Joera hau oraindik eta zantzu izpiritualistagoz jantzi da, 1978an Joan Paulo II.a Aitasantutzara iritsiz geroztik.

- *Euskal Konferentziaranzko dinamikatik Espainiakoan itsatsiagoak egotera.* Prozesu honen nahiko datu izan ez arren, aipa ditzadan, behintzat joera baten adierazgarritzat aurkitzen ditudan zenbait datu: eskakizun edo errebindikazio hau, dagoeneko, galdu da kristau militanteen ahotatik eta bizirik irauten duen bakarra hegoaldeko elizbarruti arteko eliz probintziarena da —egintzetan ia eraginik gabea, gaurko eliz antolakuntzan—, urtean behin esateko gauzatzen dena, eliz probintzia honetako gotzain guztiek izenpetutako bazko inguruko gutun batean. Hala ere, azken bi urteotan —kokatu datu hau, urte beretsuko gotzain-izendapen berrien testuinguruan— atzerapenez gertatzen ari den jazoera dugu une honetan, geroak zer esango zain.

- *Lidertatik, laguntza- nahiz kritika-lanera.* Argi utz dezadan, hasteko, aipatu «mugarri» hau ez zela gizartearen protagonismoa izan beharko luketenak baztertzetik sortutako zerbait, hegoaldeko diktadurak bideraturiko euskal gizartearen zerbitzu-jardunbidetik baino: une haietan giza eskubideetan oinarrituriko ideia eta jokabide-irizpideak publikoki entzun ahal izateko, «halako» eliz ospaketatara, eliz talde, orri, etab. etara joan besterik ez zen geratzen. Trantsizioaren ondoriozko gizarte-egituraketa berriaren ondoren, protagonismo hori galtzeak, gizarteko erakundeak bultzatu, lagundu, nahiz kritikatzeko bideetatik jotzera eragin dio Euskal Herriko Elizari (Ikus egungo Caritas, JOC, etab.en jarduera, adib.).

Iritzi orokor honen parean, aipamen berezia merezi dute, nik uste, euskal eliza izanik, ukitu berezia duten bi puntuok:

- *Euskal Herriko gatazka-egoera*: Euskal Elizak, bai lehena-goko, bai oraintsuko bere jarrera dela-eta, alderdiek ez bezalako giza kapital bateratzailea du une honetan, euskal arazoaren konponbiderako ezinbestekoak diren alde batzuk zein besteetako irizpideak aintzakotzat hartu, bildu eta horien deiera bat egiteko, hainbat aldiz egin dituen ekitaldietako mobilizazio--gaitasunak eta partaideen gizarte-jatorriak erakusten dutenez.

- *Hezkuntza mundua*: Hainbat ikastolaren sorrerak azaltzen duen Elizaren itzala eta laguntza, gero eta urtuago gertatzen ari da urteak aurrera egin ahala. Faktoreak? Elizak presentzia esplizituaren aldeko apustua egin du, gaur gauzatzen den eran behintzat, gero eta irtenbide urriagoak dituen erlijio asig-naturaren erako instituzioen bidez. Honetan, hain zuzen, Espainiako Gotzain Konferentziaganako menpekotasun erabatekoa erakutsi du euskal Elizako hierarkiak bere irizpide eta joko eretan —Euskal Herriko Konferentziarik gabe, bestela egite-rik bai ote?—, aurrera begira gizarte sekulartuaren erdian hai-ze freskoa eta joko berria ekar zitzaketek ekimenak erabat bazter utziz.

Partzialak eta kokatuegiak izanik, balio urrikoak diren iri-tziok alboan izan litzazkeenekin batera, zabaltasun, orokortasun eta errealitasun!! handiagoa izango duten itxaropenez.

## EUGENIO AGIRRETXE

ZENBAIT GOGOETA (1966-96)

Epe hori baino lehentxeagotik hasiko naiz. Hemen 40 ur-tez jasan genuen Diktadura beltzaren egunetan, Joan XXIII.ak biztu zuen nire eta guretar batzuen itxaropen berri bat. Hori gertatu zen bere *Pacem in terris* entziklika munduratu zuenean. Entziklika horri buruz nik zenbait hitzaldi egin nituen. Eta



behin Tolosako Oargin hori egiten ari nintzela Gobernuko debekua etorri zitzaidan eta bertan behera utzi behar izan nuen hango lana. Baina itxaropen berri bat biztuta zegoen betirako gure euskal bihotzetan.

Nik Elizari gure gizaldian gehien eskertzen diodan egintza Vatikanoko II. kontzilioa izan da eta da. 1965ko abenduan bukatu zen eta hurrengo urteetan ikusiko genituen bere emaitzak. Batez ere, nik lau ondorio hauek azpimarratuko nituzke Kontzilioaren ondorio nagusien artean:

- Liturgian egin zen berrikuntza nabarmena, batez ere latinetik herri-hizkuntzara liturgikizunak aldatzean, liturgiaren gehiegizko sakralismoa murriztu eta liturgiaren ulerkizuna herri-arimarengandik bertarago jartzean, etab. Uste dudanez, liturgiarloan Kontzilioak zabaldu zizkigun fruitu eta posibilitate asko daude zukutu edo esplotatu gabe oraindik. Gauza honetan pena bat datorkit nagusiki burura: liturgiaren erforma hori beranduegi zetorrela. Munduan berrikuste horren eskea aspalditik zegoen, baina Erromako eta «erromatxoko» burugorrek nahiago zuten noski «*quieta non move*».

- Kontzilio ondorio hartan beste gauza txit pozgarria berak argitaratu *Gaudium et Spes* dokumentu nagusi eta ausarta eta ebangeliozko eta sasoi-sasoiko hura izan zen. Zenbat eta nolako ilusioak sortaraziko zizkigun *Gaudium et Spes* horrek, Jainkoak daki!

- Beste haxe ere txit garrantzitsua izan zen, eta guregan eta gure kristau bileretan eragin handia izan zuen: *Lumen Gentium* dokumentua. Batez ere bere II. kapitulua: «Eliza: Jainkoaren Herri» (Eklesiologiarengan iraultza handia, jokaera berri eta guzti, izan zuena)

- Beste pauso itxaropengarria (Kontzilio ondorengoa): kleroan, erlijioso-bizitzan eta seminarioetan sortu zen giro berria:

- Autonomi giroa.
- Aukera pertsonalak egin ahal izateko giroa.
- Zenbait lotura «bergizongarriak» hausteko giroa, etab.

## DENA EZ ZEN GOZO IZAN

Euskal Herria erditze-minetan zegoen aldi hartan (1960-1977) herri-mailan jasan behar izan zuen diktadura gogor hura ezin ahaztu. Salbuespen-egoera beldurgarri haiek gogoratu...

Ordurarte Euskal Herriko eliz agintaritza Estatuko agintariekin nahiko estu ezkondua ikusten genuen. Izugarritzko eta ustekabeko trumoi-ekaitz lurrikara sortu zuen 1960an 399 sinaduraz hornituta gure euskal apaizek mundu guztira zabalduko eskutitz hark (ikus Serafin Esnaolaren liburua). Euskal Herriko kleroak sona handia atera zuen. Erromako Vatikanok ere ondo zekien hemengo berri. Burgosko prozesuaren heriotz zigorrak izango zirela eta Paulo VI. arengana joan ziren bere laguntza eskatzera hemengo gizon-emakume batzuk. Ez zuten Aita Santuarekin hitz egiterik lortu. Honek errosario polit batzuk erregali bidali zizkien *monsignore* baten bitartez... eta kito!

Handik laister Gipuzkoan gotzain zen Lorentzo Bereziartuak zaputuzaldi oso gogorra sortu zion frankismoari. Txalo asko jaso zituen hori zela-eta Bereziartuak hemengo kristau-herriarengandik. Berehala hil zen. Bere hil aurreko ekintza txit txalotu hura honelako zerbait izan zela uste dut: Francoren Estatuak Konkordatoa ez zuela errespetatzen, edo horrelako zerbait. Ikus hemerotekea.

Aldi hartan (edota lehentxeago) gure eliza ez ofizialean arrakasta handia izan eta beheko kleroaren fede eta bihotz asko ongi sendoturik utzi zuena hau izan zen: *El Catolicismo y la Cruzada de Franco*, Iturralde ezizeneko sakramentino batek hiru-lau tomotan idatzi eta klandestinitatean erruz zabaldu eta irakurri zen liburua.

Aberriaren eta abertzaleen gaualdi luze hartan, on, argi eta animo asko eman ohi ziguten Parisko Irratiz Dr. Olasok (Alberto Onaindia) eman ohi zituen asteroko mezuek. Noiz egin behar zaio gizon horri Euskadi osoaren taxuzko omenaldi postumo bat?

Eta 1960ko hamarkadan istilu handiak zebiltzan Euskal Elizan:

- Derioko Seminarioko itxialdi sonatu hura.
- Zamorako apaizei kartzela, han preso egon ziren apaizen borroka...
- Horien eta apaiz-apaiz zintzo jokatu nahi izan zuten beste elizgizonen arteko tentsio mingarriak. Adibidez Sestaoko Anastasio Olabarria apaiz antifrankista eta beneragarriak ez zituen onartzen Zamorako apaiz kartzeleratuen zenbait jokaera.
- Amuriza, Gabikagogeaskoa, etab. mito bilakatu ziren askorentzat. «Zamorako apaizak» alegia.
- Kleroaren talde handi bat obedientzia klasikotik askatzen hasi zen.
- Seminario eta frailetxetako teologoek ere jokabide berri eta ausartak hartu zituzten: protestak, politika-ekintzak eta... baita seglar bizitzara itzultzea ere. Elizgizonen etxe horiek hustutzen, gero eta gehiago hustutzen hasi ziren.

Aldi larria Elizarentzat. Kontzilioak sortutako ilusio udaberriak lainotzen zihoan hemen. Erromako Vatikanoa konturatu ere bai.

1968an Bilboko gotzain burumotz eta antieuskalduna zen Pablo Gurrutia hil zen. Eta handik laister genituen Euskal Herriko elizbarrutietan konfidantza emango ziguten gotzainak: Zirarda (Bilbo), Argia eta Setien (Donostia), Tabera (Nafarroa), Larrauri (Gasteiz). On asko egingo zuten hauek. Baina Euskal Elizaren batasun monolitiko hura —derrigorrezko batasun hura— ez genuen hemen gerora inoiz lehen bezalakoa ikusiko. Etendura handiak egin ziren. Eta —gertatuak gertatu zirelako edota Kontzilio ondoren askatasun berri bat Elizaren lurretan zabaldu zelako— apaiz eta fraileen sekularizazioak barra-barra ikusten hasi zen gure jende xehea. «*Scandalum pusillorum*» izango zen, baina jende kristau asko ere Elizatik eta elizkizunetatik gero eta gehiago urruntzen hasi zen —batez ere gazte-ria—. Eliz mugimendu apostolikoaren beherakada eta haustura... Begira Aldi hartan liburuxkan.

## ALDAKUNTZA TEOLOGIA MORALEAN

Aldakuntza nabamen-nabarmena —gizartearen sekularizazioaren eta Kontzilio ondorengo giro berriaren ondorio izaki?— Teologia Moralean gertatu zen. Isilka eta lotsaturik bezala Morala ikasteko liburu klasikoak guztiz ezkutatu egin ziren: Ferreres, Noldin, Arregillo, etab. Horien lekuan B. Häring-en *La ley de Cristo*, Holandako *Nuevo Catecismo para adultos* eta horrelako ikas-liburuak zebiltzan orain...

Eta —jakina!— lehengo Moral «heteronomoaren» ordez, orain Moral autonomoz janaritutako mentalitate berria fededunen —bereziki eliz gizon gazteetan— artean zabaldu zen.

Lehen aldazinak ziren zenbat eta zenbat *eskema mental* ote zihozten pikutara!... edota joan ote ziren!

## HISTORIAN SARTZEKO BESTE ZENBAIT GERTAERA

Loiolako Gogartetxean urtean behin egin ziren Euskal Erlijiosoen Batzar haiek. Lehenengoa 1972ko Eguberrietan egin zen. Hurrengo urtean 120 erlijioso eta erlijiosa bildu ginen. Bi eguneko bilerak izan ohi ziren. Eta gai nagusia beti hauxe: erlijioso-erlijiosak nola bizi komentuetan gure euskaldun izaera. Halaber gure ikastetxeetan ere. Artean nahiko tabu zen arazo hori gure gehiengo baten aldean. Zenbaitek nahastailatzat hartu gintuzten bilera horiek antolatzen ibili ginenok. Baina zazpi urtetan iraun zuten bilera eraginkor haiek. Eta Euskal Herriko Probintzialak beren bilera berezia —gure inkulturazio lanari buruz— egitera behartu genituen —1974ko ekainean egin zuten beren lehenengoa, hain zuzen—. Gerora gure bilera horiek patxadan egin ziren. Ez, ordea, neke gabe!

Loiolako bilera haietatik sortu ziren Arantzazun euskal erlijioso-erlijiosek eginiko bi gau-beila. Bat 1976an Amnistiari buruzkoa eta bigarrena 1977an Euskal Herriaren Garizuma edo gaitzat eduki zuena. Gau osoa egiten zen otoitzean, Jaunaren Hitzaren hots egiten eta gure Herriarekiko gure erantzukizunak aztertzen. Goiz-albarekin bukatzen ziren gure jardunaldiak.

Handik izan zuten sorburua baita Donostiako EUTGn bi udaldiz Euskal Erlijiosoek eginiko Gogoeta Asteek ere (1979 eta 1980an).

#### ONDORIO HANDIKO GERTAERAK GASTEIZEN

1976 urtea zen. Martxoa. Langilegoaren greba eta protestak. Hiru-lau langile erailak (Fraga —Barne ministroa— kanpoan zen). Izugarritzko erantzuna jendeak Estatuaren indarkeriaren aurka. Apaizek ere bai. Orduan sortu zen Euskal Herriko Apaizen Koordinadora (Nafarroa eta Ipar Euskadi ere barne zituen). Honek han-hemenka bilerak eta bilerak egin. Orduan eta handik sortu zen baita *Herria 2.000 Eliza* ere.

Orduan ugaldu samartu ziren Kristau Elkarte Herritarrak ere gure artean. Aurreko urteetan —Kontzilio ondoren 10-12 urtetan— zenbait apaiz eta erlijioso ibili ginen Bizkaian eta Gipuzkoan Kontzilio ondorengo Eliz Berrikuntza izeneko ikastaroak parroketako jende kezkatuari ematen. Kasu batzuetan tentsio handia sortzen zuten; hala Gernikan, Ermuan, Durangon, adibidez; beste leku askotan ia hutsean edo aldakuntza handirik eman gabe bukatzen ziren. Baina Apaizen Koordinadora haren ondoan sortutako talde eta elkarteak burrukatsuagoak ziren eta nahiko buruhauste sortzen zien gortzainei. Zenbait apaiz eta elkartek Elizarekiko lotura hautsi ere egin zuten —hala, adibidez, Ondarroan Imanol Oruemazaga apaizarekin—.

#### AÑOVEROSEN GORA-BEHERA EZAGUNAK

Añoverosen historia eta gora-beherak ez ditut hemen esango, oso ezagunak direlako. Haren gotzaintzan ere ez zen dena samurra izan.

Zamorako apaiz kartzeleratuen protesta eta gose-greba eta su-ematea... gertatu zenekoa, ez ahaztu. Ordurako Zamorakoek Elizarekiko etendura egina zeukaten. Baina Bizkaian ba geun-

den oraindik haien alde eta haien elizartasuna salbatu nahi genuenak. Eta hala, Gotzainaren eta Gotzaitegiaren debekuen aurka apaiz-talde batek —ni ere beren artean— Bilboko Gotzaitegiko areto nagusiko ateak bortxatu eta barruan gure itxialdia egin genuen. Han azaldu zen Ubieta jauna —Bikario Nagusia— eta esan zidan: «¿Tú también, Agirretxe?». Eta nik erantzun: Bai, eta nire kontzientziaz jokatzeko dut.

Añooverosen geroko homilia ospetsu hura bera ere ez zuen berak idatzi —bai izenpetu eta baimendu, ordea—. *Presbiterium Batzarrean* aztertu zen gaia —ni ere han nenbilen—, eta gero, batzorde bat izendatu zen homilia hura idatziko zuena eta hala egin zen. Eta Añooverosek ontzat eman eta baimendu egin zuen.

Dena den Añooveros jaunak ohore handia merezi du egun eta aldi larri haietan egin zuen bezala jokatu zuelako.

#### BESTE PASADIZU GOGOANGARRI BATZUK

- Arantzazura Mutilen Gau Martxa haiek. Ikus *Aldi Hartan* liburuxka. Gogora batez ere azkenengoa nola gertatu zen eta Argaia gotzainaren lantua.

- Esanahi eta itzal handiko gertaera izan zen jesuitek Loiola Probintzia markatzea. Lehen *Castilla Oriental* eta *Castilla Occidental* deitzen zitzaizela uste dut.

Halaber, Klaretarrek beste hainbeste egitea.

- Bai Bizkaiko eta bai Gipuzkoako Presbiterium-eko batzarretan behin eta berriz Euskal Eliz Probintzia —lau probintzietan osatua— eskatzea. Hori gure gotzain berrien gogoia zen. Eta beroriek horretarako ahaleginak egiten zituztela uste dut. Baina Erromako Aulki Santuak ez zuen amore ematen (!!). Eta gaur —oraindik!— gauden bezala gaude.

Hala ere gure gotzainen omenez esan behar da: *de facto* gure Hego Euskadiko lau elizbarrutiek elkarlan asko egiten dutela guztiz elkaturik:

- Idazkaritza sozialak.
- Helduen katekesia.
- Garizumako Pazko aldiko idazki pastoralak, eta abar.

#### AZKEN OHARRAK

Gipuzkoa eta Bizkaian —Araba eta Ipar Euskadin gertatzen ari denaz gutxi dakit eta agian esatera noan arazoan Gipuzkoa eta Bizkaia baino hobeto dagoz— kleroaren (sekular eta erregular, *identidem*) militantismoa asko galdu da. Kasu partikular batzuk aparte utz ditzagun.

Zergatik galdu den militantismo hori?

- Apaizgoa murriztu eta zahartu delako.
- Gipuzkoan askotan entzun dudana: «*Guk Setien jauna zu - zen eta guztiz jakintsua daukagu. Berak esan eta agertu be - har den guztia esan eta agertzen du. Eta ez dago gure ekintza eta agirien beharrik*».
- Erromako Aulki Santuaren nahiz oraingo Aita Santuaren jarrera eta moralismo itxiak ez digu gaurko mundu honetan aurrera egiteko biderik ematen. Teologia berriarekiko itxitura, gotzaingaien aukeraketa, etab.

Eta abar.

Hala ere gauza itxaropengarri asko ikusten dugu gaurko gure elizgizon eta Kristau Sekular Kontzientziatuen artean:

- Helduen Katekesi taldeak asko eta seriooki ugaltu dira.
- Laikoen presentzia eta Elizaren martxan eskuhartzea asko gehitu da.
- Elizaren ekintza eta erakunde batzuk oso onartuak daude gure gizartean: hala *Caritas*, langabetuen ardura, *Manos Unidas*, misio egunak, etab.
- Lan zaila baina gure elizbarrutietan lan serioa egiten da gaztetxo eta adoleszenteen artean, bereziki Sendotzako ikasturteak direla eta.

- Presbiterium edo Apaiz Batzorde Diozesitarrek Elizbarrutiko gobernuan parte hartzeko eskubide handiak dituzte.
- Artziprestaldeak ez dira —lehen bezala— ente juridiko hutsak. Bilera sendo eta garrantzitsuak egiten dituzte.

## PELLO APEZETXEA

Ohar batekin hasiko naiz, ulergarriago gerta dadin nire idazkia. Euskal Herri osoa gogoan izanagatik, nire ezagutza bereziki Nafarroakoa da, bertatik ari naizenez, eta bertan ikusia eta ikasia dut iturri nagusia, nahiz eta ez bakarra.

### LEHEN URTEETAKO MUGIDA ETA ALDAKETAK

Urte hauetan aldaketa nabarmenak izan direla erratea nor-nahik onartuko du. 30 urte aunitz ez badira ere, gizartearen historian alegia, duela 30 urteko eta gaurko gizartea eta Eliza ez dira berdinak. Elizari zuzenean dagokionez, aldaketa aunitz eta handiak aitortu ditugu, behin baino gehiagotan. Hala iduritu zitzaizkigun, behinik behin. Lurrikara bat Elizaren horma zaharrak arrailtzen ari bailitzan, une batzuetan eta zenbait gaitan. Aipa ditzagun aldaketa horietako batzuk bederen.

- Eliztar aunitzen urruntzea, gazte eta gazte ez direnak, elizkizun etxeak ia-ia hustutzeraino askotan. Igandetako mezara % 75 joatea normala zen Euskal Herri honetan.
- Elizaren gizartearenganako itzala ttikitzea, jendearen bizitzan bere eragina ahuldu egin baita. Eliztarrek beren irizpide eta erabakietarako duten ikuspegi etikoan autonomoago jokatzen dute, Aita Santu eta apezpikuen erakutsiei hainbertze lotu gabe; errate baterako, familiaren inguruko gaietan.
- Apez eta erlijiosoen sekulartzea, bokazio guttitzea. Lehen elizbarruti bakoitzean urte batek 20-30 apez berri eta gehiago ematen zituen bezala, gaur 3-4 izaten dira, baina ez urtero, ez-



ta ere elizbarruti guztietan. Eliz arduradunen kezka handienetakoa bihurtzeraino.

- Elizaren bertikaltasuna neurri batean lautu edo apaldu eta apez eta laikoek zuzenago parte hartzeko urratsak eman dira: Apez Batzarra, Pastoralta Kontseilua, Pastoralta Bikaritza, Apezpiku Kontseilua eta antzekoak berritasunak izan dira, neurri batean behintzat apezek eta laikoek hautatutako batzar-kidez osatuak, elizbarrutiko erabakietan lehen ez bezalako eragina izan dutenak.

- Teologiaren irekitzea, gela eta bulegoetatik bizitzara ateratzea, teologia historian txertatzea, kreaio eta haragitzearen nabarmentzea, naturazko eta naturaz gaindikoaren, profano eta sakratuaren ulertze egokiagoa, etab.

- Pastoraltzaren berrazterketa. Lehen sakramentuak ahalik eta gehien ospatzea lan nagusizat hartzen zen bezala, orain ebanjelizatzeari lehentasuna eman nahi zaio, pastoralta-arduratan urrungoen pastoralta sartzea, gure herria ere misio-herri dela, Elizaren hemengo lana misio-lana dela azpimarratzea. Diktadura-urteetan profetismoa indarberritu egin zen, gizartean bizi ziren kezkekin bat eginez; apezek eta kristauek jasandako kartzelaratzeko eta isunak horren lekuko ditugu.

- Liturgiaren berriztatzea: errito eta ohikuneen egokitzea, herri-hizkuntza sartzea. Elkarte hitza eta parte-hartze hitza ezezik elkarre eta parte hartze ideiak ere misterio eta sakratu kutsuari nagusitu zitzaizkion: apeza jendeari begira aritzea, jendearen erantzute eta ulertzea ditugu ezaugarri batzuk.

- Kristau laikoen eta apez gogo berritzea, ikasketak egokitze eta eguneratzeko saiakerak, ikastaroak eta elkarre antolatzea: hitzaldiak, bilerak, teologi ikasturteak, Oinarriko Kristau Elkarre sortzea, Apez Koordinakundearena...

- Euskararen eta euskal kulturaren balorazioa indartu. Zenbait ikastola Elizaren babesean sortu eta sendotu zen, diktaturako denbora ilunetan, batez ere. Ez dugu ahazten ahal liturgiarako Euskal Herri osoko itzulpen-batzordeak egindako lan handia, bortz elizbarrutietako jendez osatua. Apezpikuek euska-

rari buruz argitaratutako idazkiak: Iruñeko J. Mendezen 1974koa eta J.M. Zirardaren 1981ekoa. Bilbon A. Añoverosek emandako arnenguruan sortutako gatazka. J.M. Setienen eta Baionako Moleresen azalpenak, eta abar. Lehen ez bezala, apezpikutarako Euskal Herriko semeak hautatu dira. Euskal elizbarrutiak Eliz Probintzia batera biltzea eskatzeko ados agertu dira apez eta kristau-talde aunitz.

#### KONTROLPEKO MUGIDA

Kontzilio-ondorengo hamarkadan gertatutako mugida horrek nolako bilakaera izan duen galdetzen badugu, Elizako erakundearen eta arduradunen esku daudenen gai eta arloetan aldarak azaleko samarrak izan direla erranen nuke nik, nahiz eta lehen unean zerbait sakonagoren itxura eman. Antza denez, Vatikanoko Kontzilioak eta gizarteko egoerak eragindako mugida antzineko indar gidarien kontrolpean egon da.

Izan ere, zenbat neke eta borroka egin behar izan zen eliztarrek parte hartzea lor zezaten, eliztarren esku hartzeko Kontzilioak berak gomendatzen dituen Kontseiluak gauza zitezen! Hilabeteak eta hilabeteak erdi minetan, Elizako arduradunen oztopoak gainditu ezinik. Apez eta laiko franko gelditu zen bide bazterrean, nardatuta, saiakera horietan. Eta, hala ere, lehen urte haietan lortutakoa ia-ia historiarako gelditu da, ondoko urteetan parte-hartzeari maratilak eta hesiak hasierako urteetan baino gehiago jarri baitzaizkio. Agintekeria inoiz bezain bizkor dago gaur Elizaren funtzionamenduan, eta apez eta laikoen parte hartzea, berriz, arduradunen iduria zaintzeko itxura baino ez da, aunitzetan behinik behin.

Juan XXIII.ak Elizan irekitako leihoa ixten joan da teologi irakaskuntzan, pastoralgintzan, eliztarren gogo-berritzean. Irakasleak, eliz agintariaren erranetara makurturik, beren gogo eta ilusioak liburu artean uzten joan dira, hildako adiskidearen oroitzapen-txartelaren antzera. Badira, bai, ausardia txalogarria agertu dutenak, zeinetatik batzuk beren lanpostutik kanporatuak ikusi ditugun, eta bertze zenbait nola-hala koherentzia-

ren ildoan mantentzen dira, baina noiz baztertuko beldurrez. Dirudenez, berriz ere teologiarako ia iturri nagusia goikoen erakutsiak eta aginduak dira.

Urrungoen pastoraltza eta misio-lana deitzen dugun ebanjelizatzea aparkalekuan gelditzen ari da, jatera ematea eta eria sendatzea, edo eta jende eta herrien eskubideak defenditzea ere —hainbat eta hainbat herritarren oraina eta geroa jokoan dituen, bertze alde— ez baita gaurko pastoraltza ofizialarekin aisa uztartzen.

Eta zer erran Euskal Kulturari buruzko jarreraz? Honetan ere Eliza azaleko mailetan dabilelakoan nago. Laburbilduz zera baieztuko nuke: Elizak ez du oraindik aintzat hartu Euskal Herria. Ez du aintzat hartu Euskal Herriari, bertze herriei bezala, herri-izaera eta herri-eskubideak errespetatu behar zaizkiola, euskaraz bizitzeko eskubidea eta bere burua berak nahi bezala antolatzeke eskubidea. Elizak ez du oraindik Euskal Herriaren zapalketa sakona ezagutu eta salatu. Elizak ez du Euskal Herria lehen eta gaur pairatzen ari den zapalketa kultural-politikoa argi eta ozenki ezagutu eta aitortu. Alderantziz, izatekotan. Bai legeria eta aginte espainolenganako agertzen duen adostasuna edo eta isiltasuna, bai elizbarruti batzuetan barne-funtzionamenduan euskararenganako daraman jarrera, oro har, Euskal Herriaren aurkakotzat ere jo daitekeela uste dut. Ez, zuzenean herriaren eta euskararen kontra jotzea bilatzen duelako, beharbada; baina bai, ez duelako egin behar lukeena egiten. Ezin ukatu, gainera, honetan ere gauzak okerrera egin dutela. Oroi, bertzela, azken apezpikuen izendapenekin eta izendapenen inguruan gertatutakoaz. Nork erranen dit izendapen horiek ez direla herriaren izaerari ukapen garbia ematea?

Honekin lotua doa Euskal Herriko egoera gatazkatsuari aterabidea argitzea eta bake-bidean aitzinera egitea. Badirudi Elizak eginbehar handia lukeela gai horretan, maitasun-legearekin hain lotuak dauden giza eskubideen inguruko gaia baita Euskal Herrian eztabaidan dagoena. Ez ote dugu, ordea, aitortu beharko, eginkizun horretan Elizak ez duela urte haueetan sobera egin, areago, ez dela egiteko gauza ere? Hain zuzen ere, gehienbat botere zanpatzaileekin bat egiten duelako.

Ez dut ukatuko badirela alde onak ere. Noizbehinka argi izpi batzuk ere ikusten ditut, kristau-elkarte baten, apez-talde baten edo eta apezpikuren baten eskutik azaldutako jarraira argi eta aitzinkoiagatik. Beti, ordea, eliztarren guttiengo baten jarrera da. Bertze gai bati begiratuta, gaurko liturgia due-la 30 urtekoa baino egokiagoa dela eguneko argia bezain argi dago. Eta bizirik eta tinko diraute erein diren hazi batzuek eta zabaldu den zenbait bide ere. Hala ere, oro har eta banaz ber-tze, urte hauetako elizaren bilakaera nahikoa iluna ikusten dut. Aitzinera jo den edo jo nahi izan den hainbatetan lehengo-ratzea eta itzultzea gauzatu da, eta gauzatzen ari da. Garbia-go ikusten da atzera begiratze hori gizarteak eman dituen ai-tzin-urratsen ondoan, Euskal Herriak bizitu duen eta bizi duen aldaera politiko eta kulturalean kokatuta.

## JOSEBA ARREGI

Vatikano bigarreneko kontzilio ondorenean Euskal Herriko Elizan gertatu den bilakaera hitz gutxitan deskribatzea ez da lan erraza. Are gehiago: agian arazoa ez da zailtasun- edo erraztasun-mailakoa, litekeen edo ezinezkoa den mailakoa bai-zik. Horrexegatik, eta inolako asmo sistematikorik gabe, lau-bost bat zertzelada ematea besterik ez zait bururatzen.

- Gure arteko Elizaren bilakaeraz hitz egiterakoan lehenen-go esan behar dena zera da: Vatikano bigarrena ostean gertatu-takoari beste zerbait erantsi behar zaiola, Europako beste zen-bait herrialdeetan ordurarte emandako bilakaera, gizartearen sekularitze-prozesua, gurean bestearekin batera eta bapatean ematen dela. Vatikano bigarrenak eragindako ondorioei beran-duegi gertatutako sekularitze baten ondorioak eransten zaizkio, eta derrepentean eguneratzen diren ondorioen ezaugarri trau-matikoekin.

- Ez dakit aurreko arkin loturarik baduen ala ez. Agian gu-re gizartearen berezko joera bat da. Vatikano bigarrenak zabal-tzen dituen bideak, eskaintzen dituen aukerak gurean, inolako

malgutasunik gabe, bere osotasunean eta radikaltasunean bete beharreko agindu gisara ulertzen dira, eta gauzatzen. Aurrekoari beranduegi arte eutsi, eta berria sineskortasun gehiegiz barnerratu. Eta gehiegizko sineskortasun honek berriro oztopatuko du egin beharreko aldaketetaz garaiz ohartzea, hainbestekoa izaki lehen momentuan egiten dugun sinesmen-inbertsioa.

Vatikano bigarrenak ahalbideratutako erreformak gure artean aurreko guztia ezabatzen du: latina guztiz desagertzen da, elizetako koruak desagertu egiten dira, liturgiari duintasun gehiena kentzen zaio, aurreko isilik egon beharrari (kristauak ez bait ziren latin hizkuntzaren jabe) etenik gabeko (eta askotan mamirik eta zentzurik gabeko) hitz jarioak jarraitzen dio...

- Vatikano bigarrenaren ondorengo garaiak Euskal Herrian politikaren nagusitasunaren garaiak izan dira. Euskal Herriko Elizarentzat, bere agintari eta ordezkioetan, askotan garrantzitsuago izan da politika-munduan iritzi egokiak aldarrikatzea, gizarte modernoetan erlijioak edo, zehatzago esanda, kristau sinesmenak dituen arazoetan sinestunentzat eta sinestu nahi lutekenentzat orientabideak lantzea baino.

Egia da, bestalde, horrela gertatu izanaren errua ez dagoela Elizari bakarrik leporatzerik, gizarteak berak askotan Elizarengandik besterik entzun nahi izan ez duelako. Era guztietara, batzuetan iruditzen zait elizgizon zenbaitek gizarteko baldintza askoren beharrik ez dutela izan iritzi politikoak sinesmenekoak baino gehiago, eta hobeto, lantzeko.

- Vatikano bigarrenaren ondorengo Euskal Herriko Elizak ez dio oraindik behar bezalako erantzunik aurkitu kristau-sinesmenak gaur egungo gizarteetan dituen arazoei. Agian behar bezalako erantzunik ez dagoelako, eta kristau-sinesmenaren indarra den ahulezia horretantxe datzalako. Gizarte-mailako sinesmenaren esanahiari eutsi nahi lioke, baina gizarte modernoetan sinesmena sujetoen arazo bihurturik dago. Nola biak lotu, lotzerik badago. Nola gizarte-mailako esangurarik landu, norbanakoaren askatasuna eta erantzukizuna zainduz eta errespetatuz, baita sinesmen- eta moral-kontutan ere. Nola azken hau bizi, sinesmenari esanahi guztia lapurtu gabe, barnetik hustu gabe.

Ez dakit arazo honek konponbiderik ba duen. Era guztietara, sinesmenak izan beharko lukeen gizarte-mailako esanahiarekin gehiegi kezkatuak ikusten dit Euskal Herriko Eliza.

- Aldi batean teologiaren barneko pentsamendua «*ex opere operato*» esaldian laburbiltzen zen, laburketa guztiek duten abantaila eta arrisku guztiekin. Azkeneko hamarkadetan esaldi horren ordean beste hau ohizko bihurtu zaigu: «*ex opere operantis*».

Kontzilio aurretik nahikoa zen sakramentuaren beraren indarra graziazko ondorioak izateko. Ez zen beharrezkoa jakitea zer esan nahi zuen. Ez zen beharrezkoa ulertzea sakramentuekintzan esaten zena. Ez zen prestaketa berezirik behar. Sakramentuak eta graziak bazuten, antza, berezko indar mekaniko bat, hartzaileari eta bere borondatearen prestutasunari, edo beronen faltari, inposatzen zitzaiona.

Gaur beste muturrera joateko joera nabarmentzen da: guztia esplikatu behar da, dena razionalizatu behar da, guztiak izan behar du ulergarri, inportanteena prestaketa da, bestela sakramentuak ez du baliorik. Azkenean, norbera da graziaren eragile (badakit egoera desitxuratzen ari naizela; muturrak azpimarratzea da interesatzen zaidana). Garai modernoetan burutu den sujetoaren nagusitzea Elizan ere sartu da, eta agian behar ez zen atetik.

Beldur naiz neurrien batean erlijioa ez ote zaigun moral bihurtu, sinesmena etika, eta grazia justizia. Badakit erlijioak moralik gabe ez duela ezer balio (edo?), ezta sinesmenak etikarik gabe ere. Era berean graziak justiziarik gabe. Baina erlijio ez da moralean agortzen, ezta sinesmena etikan ere, eta oraindik gutxiago grazia justizian.

Vatikano bigarrenak ahalbideratutako erreforma bidean Euskal Herriko Elizari ez ote zaio erlijio-, sinesmen- eta grazia-munduko zertxobait galdu?

## JOXE AGUSTIN ARRIETA EGIGUREN

### KONTZILIONDOTIKO ERRONKAK

Erronka nagusia esaldi honetan jarriko nuke: Elizaren bidea gizakiarengandik pasatzen da. Vatikanoko II.eko aita egia boro bira hauxe izan zen: gizakia bultzatu, gizakoitu eta salbatu.

Vatikanoko II.ak irudi batzuk erabiltzen ditu Eliza zer den adierazteko, errealitate bakar baten aurpegi desberdinak agertzeko: Eliza, ate bakarra Kristorengan duen artetgia; Eliza, Jainkoa artzaina duen artaldea; Eliza, giltzarria Kristo duen eraikuntza.

Irudion artetik kontzilioak herriarena azpimarratzen du beste guztien gaitetik. Honela, Eliza «Jainkoaren Herria» izango da. Nahiz eta Vatikanoko I.ak eliz ikuspegiak Aita Santuaren ministeritza inguruan bildu, Vatikanoko II.arenekin, Jainko Herriaren mailak garrantzi handiagoa hartzen du; gizartean murgildurik, kondairan zehar bere bidea eginez doan herria, alegia. Nik uste, Paulo VI.ak eman zion bidea, gaur egun moteldu eta epeldu egin da geure elizan.

Paulo VI.ak Vatikanoko II.eko gizakoitasuna defendatu zuen eta dotrina-arloko aberastasun guztia zentzu bakar batean erabili behar dela esan zuen, gizakia zerbitu alegia. Joan Pablo II.ak ere bere lehen entziklikatik behin eta berriro esan du Elizaren bidea gizakiarengandik igarotzen dela. Baina misio hau nahiko ilundu da.

### VATIKANOKO II. KONTZILIOA: GAURKO MUNDUARI ERANTZUN HANDI BAT

Kontzilioa egiteko asmoa ez zen berri-berria izan. Pio IX.ak Vatikanoko I. kontzilioa jarraitzeko asmoa izan zuen, 1870ean etena izan zuelako. Eta Pio XII.ak ere, asmo honi ere eutsi zion.

Azkenik, Juan XXIII.ak dei eginda, lau ekinaldietan zatitu zen. 1962-1965 bitartean burutuz guztia. Hasiera eman zitzaionean 2.500 gotzain inguru etorri ziren, mundu zabaletik noski. Eta hauxe izan zen berri deigarriena: gotzainen kopurua, eta eliza gazteen indarra.

Juan XXIII.aren pentsabideari jarraituz, kontzilioaren helburuak hauek izan ziren:

- Munduari zabaltzeko Elizak behar duten eguneratzea edo *aggiornamento*.
- Kristauen batasunerako ekinasmoa.
- Eta munduaren bakerako elkarlana eskaintzea.

Ondoren, Paulo VI.ak hartu zuen ardua-zuzi hori, asmo honexekin: Elizaren eta gaurko munduaren arteko zubi izan behar zuela kontzilioak. Eta bai asmatu ere —behintzat, asmo eta intentzioetan—, nahiz eta oraingoz ugari falta guztia betetzeko. Ikuspegi hauek azpimarratuko nituzke:

- Eliza Jaungoikoaren Herria eta Kristoren Gorputz ezkutua dela, eta bataiatu guztiek daukatela Elizan beren zeregina.

- Elizan, gotzainen elkartasuna behar dela, eta horretarako erakunde berriak sortu, esaterako, Gotzainen sinodoa, Gotzain elkarteak, Pastoral Kontseiluak, Apaiz batzordeak...

- Liturgia berriztatzea, Jaungoikoaren Hitza zabaltzeari balio handiagoa emanez, eta laikoan izateari partekatze eraginagoa.

- «Jatorrietara itzultzea», Bibliaren ikasketei indarra emanez, eta Elizaren Guraso Apostoludunak gehiago ezagutzuz.

- Ekumene-giroa suspertuz, eta beste kristau elizetara urreratuz.

- Eta herri zintzo eta kristauari begirada gehiago zabalduz, eta borondate onezko beste gizon-emakumetara hedatuz. *Gaudium et Spes* eta Paulo VI eta Joan Paulo II.aren hainbat pastoral-ibilaldi zentzu horren ondorio dira.

## AURRERA BEGIRA

Jo dezadan aurrera Elizaren joan-etorri honetan. Nik uste orokorki, pekatuak azalera irtetzen duela, gehiago nabaritzen dela. Zergatik ez dira hain nabarmenak ontasuna, maitasuna eta zerbitzua? Honetan guztian, oso arina izango litzateke bi jarrerara hauetara mugatuko bagenu guztia:



- Jarrera ezkorra: «Eliza usteldua da, paperezkoa da, dena gezurra da, poliki eraturiko *rollo txar bat*» baino ez da.

- Jarrera akritikoa: santutasuna eta garbitasuna besterik ez da ikusten Elizan, edozein kritika eraso bezala hartzen da.

Vatikano II.a (1962-1965) eta Zuzenbide Kanonikoaren Kodi-goia (1983) aurrerapauso garrantzitsua izan dira Elizaren deszentralizazioan; honela kontzilioak gotzainen buru bezala tratatzen du Aita Santua, beraren hutsezintasunaz mintzatzen denean; gotzain-konferentziak sortzen dira; apezgoak eta laikoek badute zeresanik gotzainak izendatzerakoan; laikoek ere parte hartu dezakete Elizaren gobernuan. Baina, paperetan eta agiritan gehiago da, eguneroko errealitatean isladatu gabe baita-go; zoritxarrez, noski. Bestalde, kontzilioak asko lagundu du elkarrekin politikoa eta Elizaren arteko independentzia zehazterakoan, bakoitzaren autonomia argiago ikusten baitugu.

Hala ere, nahiz eta egia izan Elizaren deszentralizazio epe bat zabaldu dela, baita Gregorio VII.a aita santuaren (XI. mendean) jarre retara ere iritsi gara: botere guztia berriro ere lotzea, zentralizatzea... Eta honi, arriskutsua deritzot.

Elizaren gizarte-dotrina berriz ez da *Rerum Novarum* entziklikarekin joan den gizaldian gelditzen. Vatikano II.eko *Gaudium et Spes*, Paulo VI.aren *Populorum progressio* eta *Octogesima adveniens*, eta Joan Paulo II.aren *Sollicitudo rei socialis* entziklikekin, gizarte-arloarekiko duen ardura mugimendu apostoliken eta kristau militanteen jokabide eta ekintzetan gauzatzen da. Bestalde, baztertuekiko eta txiroekiko konpromezua-aren adierazgarri litzateke Caritas. Alde honetatik, aurrerapauso handiak eman dira. Ez da ongintza-zerbitzuetarako agentzia, Eliza osoak bizi behar duen maitasun-ministerioa bizitzeko bitarteko bat baino.

Uste dut, gizartearen modernotasuna eta kultura berriaren berrikuntza onartu behar duela Elizak, gero eta gehiago:

- Askatasunaren arriskuak onartuz, kontuan izanez ez garelako toki guztietan epailariak, ohituren moral-epaiak zaindu behar ditugula...

- Erlijioarekiko eta Elizarekiko kritika hobeto onartzen ikasiz.
- Kristauen politika-aukerak zabalduz, eta politika berbera deskonfesionalizatuz.
- Gizarte zuzengabe honi ebanjelioaren osotasuna aurkeztuz, beldurrik gabe, inposaketarik gabe.
- Eliz erantzukizuna suspertuz: sinodotasuna, elkar ardurara, ministerio berriak...
- Eta, behartsuenganako eliz aukera bultzatuz.

#### ELIZARI BEGIRA

Bi mila urte hauetan hainbeste gauza egin ditu. Hainbeste gauza esan ditu. Txiki eta apal jaio zen eliza hau, biztuerako udaberri baten liraintasunarekin, galdu ezineko itzaropenaren berotasunarekin. Gure munduan, gure gizartean, gure kondairan Jesusen hots egindako Erreinua oihukatzeke eta ezartzeke egitekoa eman zioten. Eta ekin zion Izpirituaren indarrak eraginda, inork gutxietsiko ez zuen poza eta ausardiarekin.

Baina denbora pasa ahala, txikitik handira pasa zen, apala izatetik indartsu izatera, Jesusen Erreinua hots egitetik «bere erreinua» eraikitzaera, pozetik aspertzaera, hots egite eta salaketarako ausarta izatetik beldurti eta aprobetxategi izatera...

Vatikanoko II. kontzilioak bere burua aurrez aurre ikusteko parada eman dio eliza honi. Egia da, bere barruan gauza handiak daramatzala: Jesusen mezua, salbatzen duen askapena, Izpirituaren bizia, sakramentuen grazia. Eliza hau ez da Jainkoa, ez Kristo, ez Izpiritua; haien ahotsa eta jarraipena da kondairan. Eta Vatikanoko II.aren enbidoa bultzatu, jaso eta aureratu beharra dago oraindik: nahiz eta Elizaren misterioa ezagutu, bere aurpegia garbitu beharra dago, garbiagoa eta Kristorenagoa agertu dadin.

Gaurko egoerak eskaintzen digun munduarekin batera lan egiteko, Vatikanoko II.ak hain egoki erakutsi digunez (ikus *Gaudium et Spes*, IV. kap.). Gizadi osoari begira, Hirugarren Mun-

dua suspertu, baztertutako guztien alde ahalegindu, gizarteko bizikidetzaz gizaeragotu, utopiari eutsi, mundu guztiko senidetatasunaren kontzientzia bizia sortu, bizia defendatu, izadia zaindu, eta sortzen ari den kulturari kristau izpiritua eman: hauek izango lirateke, nere irudiko, elkarrekin landu beharreko biderik garrantzitsuenak. Eta Euskal Herriari begira, berriz: biziaren balioa indartsu baieztatu beharra; liskarturik eta zaturturik dagoen gizarte batean, baketutako alderdi bat garela aitortu beharra; gizarte hau baketzen bihotz zabalez saiatu beharra; eta gizarte honen gizatasunik gabeko alderdiak nobleziaz salatu beharra.

Oraindik Vatikanoko II. kontzilioko ondorioak gauzatu behar dira. Une hauek oraindik ere larriago bihurtzen dute egin-behar hori. Asko dira gaur egun Elizaren sinesgarritasuna eztabaidatzen dutenak. Elizak gizartean duen itzala asko jaitsi da. Bere garrantzi moralak auzipean dago. Giro honek guztiak zaildu egiten du urrunduekiko topabidea, eta ahuldu, fededun askok eliz elkarteari dion atxikimendua. Elizarekiko lotura bizkortu eta sendotzeko beharrezkoa da, beraz, Elizaren ezaugarria garbitzea. Eta hau, eliz irudia hobetzea baino zerbait sakonagoa da. Ez naiz *marketing* programa bati buruz ari, ezta aurpegiko zirujari buruz ere. Batez ere egiazko bizitza-aldaketaz ari natzaizu, bai fededunen bai elkartearen, bai eliz erakundearen mailan. Kristau-hizkuntzan bihotz-berritzea esaten zaio aldaketa honi. Abiapuntu eta ibilbide honetatik ikusten dut Elizaren etorkizuna eta bere zeregina.

#### AZKEN LABURPENA

Elizak bira berri bat eman behar izan zuen gaurko gizakia-  
ren bila irteteko eta berarekin elkarriketan jartzeko; baita ere bere burua eliz misiolari bezala ulertzeko, eta ez erosotasunean bizi den elkarte bezala; zerbitu asmoz aginte nahiaz baino gehiago. Bukatzeko, lau ondorio hauek azpimarratuko nituzke:

- Vatikanoko II. kontzilioak ahalegin handia egin zuen elkartearen zentzua berreskuratzeke (Jainkoaren Herria). Hau da,

Eliza ez da hierarkikoa, ez luke izan behar behintzat. Eliz agerietan Jainkoaren herria dela esaten da. Ez «hierarkologia», bai «eklesiologia» (elkartea, Jainkoaren herria).

- Eliza ez da herrialde bateko kide guztiak osatzen duten gizarte, ezta ohitura berbera duten guztiak osatzen dutena ere; Eliza fededunen elkartea da (fedea askatasunean). Kristautasun norberekoiaren arriskuak baztertu behar dira. Eliza zerbait bada, behintzat elkartezalea da eta ebanjeliaduna. Ekumenismoa gehiago indartu beharko litzateke.

- Vatikanoko II. kontzilioa orain dela 30 urte saiatu zen mundu eta gizaki modernoarekin elkarriketa berria sortzen, ebanjelioaren berri ona emateko asmoz noski. Ahalegin horretan gauza batzuk berreskuratu ziren: zientziarekiko begirunea, Elizaren elkartasun-sena, Jaunaren Hitza gaurkotuagoa, liturgia herri-hizkuntzetara itzulia izatea... Baina, ministerio berrien atea gehiago ireki beharko litzateke: zerbitzu berriak, aukera ausartak, emakumeen apaizgoa... Eta bestalde, erlijio nagusien baterakuntza-bideak gehiago bultzatzea, batez ere, monoteista direnenak.

- Ebanjelioa «inkulturatua»: Vatikanoko II.aren ondoren, misio-egitasmo berri bat sortzen da, herrialde bakoitzaren kulturara Ebanjelioa egokituz. Hau da, eliza katolikoan sustraitutako eta hari nahiz gizaki konkretuari leial zaien kristau-elkarteak sor daitezen. Behartsuekin solidarizatuz eta zuzengabekeriaren aurka borrokatuz ebanjelizatu behar da, gizakiaren askatasun osoa ebanjelizatzearen «ezaugarri» izanik.

Gure euskal gizartean dago kokatua eliza hau. Euskal Herrian dagoen eliza. Euskal elizaren deitura eta errealitatea nahiko urruti ikusten ditut. Oraingoan, nahiago dut horrela adieraztea, Kristoren eliza, kristau-elkartea, bere funtsezko elementuekin, eta Euskal Herri honetan gorpuzten dena. Egia da, oraindik asmo eta egitasmo dela euskal eliza, baina Euskal Herria bera ere ez al da gaur egun horrela?

Duela hogeita urte gertatutako seminario-hustutze hura, kontzilioaren gutxitzea, sekularizazioa eta eliz mugimenduen behararako abiadura hura, gaur egun gelditua dago; baina zaila zai-

gu horri jira-bira ematea. Hala ere, Elizatik espreski aldendu direnak eta urrutiratuta daudenak hurbildu beharra badago. Eta honen barruan, beste fenomeno hau ere sumatzen dut: «hirugarren gizakia», edota «alboko eliztar» izenez bataiatua izan dena, ez dagoela erabat eliza honetatik kanpo. Nolabaiteko lotura badu(!), baina nahiago du erakundearen eta sakramentuen egituretatik at bezala bizi.

Eliza beti salbamen-ezaugarria izan da, baina, aldi berean, kontraesan-ezaugarri. Hasieran, judutarrentzat behaztopa eta garai guztietako jentilentzat zorakeria izan zen. Erasotua eta pribilegioz betea; jakintsuek eta ahaltsuek iraindua eta bide batez Agintearekin bat egina.

Badira katolikoen artean Konstantinogandik hasita gaurdainoko Elizaren historia osoa agerian gaitzesten dutenak, Estatuaren eta gizartearen agintzen dutenen menpe ikusten dutelako. Baina ez dute kontuan hartzen, fedearen gordailu sakratua, hogei mendeetan zehar, oso leialki gordea eta zabaldua izan dela, batere aldatu gabe, nahiz eta batzuetan giza-ahuleriaz betetako ontzi hauskorretan guregana iritsi.

## JEAN LOUIS DAVANT

Iparraldeko eliza katolikoan zer aldakuntza Vatikanoko II. Kontzilioaz geroztik? Lehenbizi aipatu behar dut aldaketarik eza bi pundu nagusitan:

- Eliza barruti propiorik gabe geratu da mugaz honaindiko Euskal Herria.
- Euskaldun apezpikurik gabe halaber, nahiz bi bider eskatua zuen kristau andana batek apezpiku aldaketen kariatara (1964an eta 1986an).

Historia kontrastatua ezagutu du gure eskualdeak: lehenik apezpiku antieuskaldun bat, hargatik euskal liturgiaren babesle; gero apezpiku euskaltzale bat, euskararen tokia Elizan murriztuz doala deitoratzen duena guk bezala.

Mgr. Vincent (1964-1986) Frantzia behere horretakoa zen, hamalaueko gerlan hildako baten semea, bere amarekin orotza pen hori sakonki bizi zuena. Euskal arazoan ez zuen ezer ulertu, ez eta haren inguruko euskaldun apaiz mutil handiek ere. Haiek aldarrikatzen zuten hogei urte barne hilen zela euskara, beraz ez zuela balio haren alde den mendren indarririk gitea.

Lehenbiziko ondorioa izan zen Baionako seminario-apezgaitegi handiaren hustea, apezgai batzuek euskararen alde egin zituzten eskariak bota baitzituen horko zuzendariak, apezpikuaren babespean (1967-68).

Bigarrena izan zen Fededunak taldearen sorrera gertakari horren ingurutik. Gogoeten egiteko eta beren botzaren entzunarazteko biltzen hasi ginen fededun laiko batzuk, Marcel Mendibourck sustaturik, Manex Erdozaintzik eta Hiriart-Urrutyk lagundurik (geroztik zendu dira hiru apaiz horiek). Agerkari bat atera genuen noiztenka, *Fededunak* deitua hain zuzen ere. Batzuek, Erdozaintzirekin, euskal askapenerako teologia bat sortu nahi ukan zuten, baina Hiriart-Urrutyren ingurukoek ez zituzten horretan jarraiki. Ondorioz pixka bat ahuldurik egon zen Fededunak izeneko talde hori eta lan konkretu bati lotu zen apezpikuaren baimenarekin: euskal katexima eta katekesia bultzatu zituen, liburuak idatziz, publikatuz eta horretarako dirua berak bilduz. Ez zen lan makala. Baina bi ohar mezezi ditu. Bata: frantsesezko katexima zutenek ez zuten horrelako buruhausterik, ez eta diru-biltzerik. Bestea: pentsatzea debekatua bezala zitzaien, eskulanean mugatu behar zuten. Hots, euskalduna proletario, morroi eta mutil!

Hargatik apezpikuak euskal liturgia batuaren aldeko apostua egin zuen Erroman eta hemen. Berak euskaraz ikasi zuen pittin bat, ongi irakurtzeko heina bederen, eta elizkizunetan baliatzen zuen. Baina haren inguruko kargudunek ez zuten indarririk egin euskararen alde, aitzitik aurkako propaganda zuten egin, Hiriart-Urruty hor sartu arte.

Bestalde Mgr. Vincent horrek oso gaizki hartzen zuen aber-tzaletasuna. Baionako katedralean ihesliarrek eta haien lagunek antolatu zituzten (genituen) gose-oporretan zinez txarki portatu

zen (1970, 71, 72, 74): 1970eko Pazkoz, meza nagusian, katedrale barnearen itzulia eginez, jende guztia benedikatu zuen isopoaz, gure taldea ezik; 1971ko greban Monzon aldegitara gomitatu zuen bortizki; beti prefetari<sup>ekin</sup> eskuz esku ibili zen...

Beraz atseginez hartu genuen 1986an Mgr. Molerés apezpiku berriaren izendapena, nahiz euskaldun bat eskatua genuen. Landesetako semea da, bigarren maileko ikasketak Uztaritzen eginak ditu eta alde zurratik bagenekien euskarari eta euskal gogoari garrantzi handia emaiten ziela. Euskal hizkuntza eta kulturaren aldeko aldarrikapenak egin ditu hastetik eta gero askotan errepikatu. Euskal arazoa ere ongi ulertu du. Baina haren ahaleginen fruituak ez dira beti behar zuketen bezain ugariak eta oparoak agertu.

Segurki, Vaticano II.ak sortutako teologia eta liturgia ongi hartu dituzte apaizek eta kristau populuak. Urrunduz joan dira lehengo hertsikeria eta boztizkeria. Tolerantzia hedatu da Iparraldeko eliza katolikoan, bai euskaldungoari dagokiola, bai beste arazoei begira. Baina ber denboran murrizten hasi da euskararen tokia elizkizunetan. Arazo zinez kezkarria gertatzen ari zaigu hau, eta ez apaizen erruz.

Apaizak euskararen aldekoak ditugu ia denak. Arazoa laikotarik datorkigu, Elizan aginte gehiago hartzen duten arau, bereiziki apaiz eskasez. Zuberoan batibat oso latza egina zaigu. Bilakaera horren adierazgarri, gogoan dut Zuberoako laikoei berriki Mauleko elizan ukan dugun bilkura bat. Berrogeita hamar bat ginen bilduak. Liturgiaz genuen elkarrizketa, apaiz bat gidari: Donapauleko erretora, gure laguntzera Nafarroa Beheretik etorria. Bukatzean honek zerbait ulertzera eman du euskararen alde nolabait, «Elkanoren semeak» ikusgarritik Inakiren otoitza aipatuz eredutzat bere edertasunagatik... Eta hara non bizi-bizia oldartzen zaizkion bi emakume frantzimant! Nahiko nekez atera zaigu apaiza gatazkatik, batek bederen ez baitzion bakerik utzi nahi. Bitartean isilik ia berrogeita hamar euskaldun. Alta bada, hor ikusten nituen pastoraletan ari diren emakume batzuk (gizonak arras guti ginen bilkuran), beren haurrei euskaraz erakatsi dutenak gostaia gosta... baina hitzik ez dute atera. Euskaltzaleak aldiz ez zeuden hor, gutiz gehienak ez baitira Elizan ibiltzen ere.

Egia de Elizatik urrundu dela gazteria, denetan bezala, eta gaztea direla gaurko euskaltzaleen artean hamarretatik zortziak edo gehiago.

Beraz gora-gora mintzo den frantzimant gutiengo ttiki batek bere legea inposatzen dio isilik dagon euskaldun jende apalari, eta hau bakarrik uzten dugu euskaltzaleek bilkuretan, liturgian, katekesian, frantses hutsaren mende. Argi dago etorkizun beltza: edo gure eginbidea betetzen dugu fededun garen euskaltzaleok, edo urte gutiz Iparraldeko elizatik ate geratzen da euskara.

Horrelako gauzen aurka lan egiten duen apaiz talde bat badago, Herriarekin deitzen dena: maiz biltzen da, bereiziki euskal arazoari begira bere iritzi, aburuak agertuz.

Laikoen aldetik ere zerbait badago, baina ez hainbestekoa. Batzuek antzineko urteetan, urtero egonaldi batzuk antolatzen zituzten «Fedea eta Kultura» gaien inguruan. Baina langile gutiegi ziren eta orain akiturik daude. Bepiztekoa da xede hori, talde zabalago batekin. Hargatik orokorragoa da nire us-tetan euskaltzale fededunon eginbidea: liturgia, kantua, katekesia bultzatu, hazi, sustatu behar ditugu euskaraz.

## BEGOÑA ESKISABEL

Vatikanoko II. kontzilioaren ondoren, Afrikako Burundi herrian urte batzuk bizitakoa naiz eta hango biztanleekin saiatu nintzen pastoralgintzan, hezkuntzan, nekazaritza-animatzaile eta laguntzaile sozial bezala. Gertutik ezagutu nituen hango bailara edo mendisketako oinarritzko kristau komunitateak.

Han, lekuan lekukoek zuten beraien otoitz-ospakizunen ar-dura; katekistek laguntzen zituzten haur, gazte eta helduak kristau bidean hezitzen. Beraiekin bizi izan genituen liturgia eta ospakizun ederrak; Jaunaren Hitzaren ospakizunak; Jaunaren Hitzaren entzun, barneratu, gureganatu eta geure buruari mezu horrek eskatzen ziona besterenganatuz. Elikagai onuragarria



zitzaigun gure egunerokoan, senide eta ingurukoekin jarraitzeko anaitasunean. Apaiza hilean behin edo bi aldiz agertzen zen; bertakoekin egoteko egun bat edo bi hartu eta igandean meza ospatzen zuen. «Zuek zarete Eliza...». Vatikanoko II.aren mezua sakon bizi genuen han herritarrekin.

Hemen Euskal Herrian, berriz, mezu hori urruti gelditzen zai-gu. Hemengo elizetan ez dago otoitz-ospakizunik apaizik gabe, ezta ere Jaunaren Hitzaren ospakizunik... Joan XXIII.ak Elizaren ateak zabaldu zituen, baina hemen lapurren beldur-edo eliza gehienetako ateak itxita daude meza-garaian ezik.

Burunditik etorri berritan, Belgikan egin nuen urte t'ardi. Estimagarria zitzaidan Karmeldar<sup>m</sup> elizara joan eta Anaidiak kristauekin arratsaldero zuen otoitz-ospakizunean izatea, non gazte ugari bildu zen eta denon otoitza ospatzen genuen. Hemengo elizkizunetan, berriz, gazte gutxi izaten da eta jende heldua ere banaka bakarrik; izan ere, hemenego elizetako liturgia hotza da, aspaldiko galdera-erantzun, aipamen inbertsonalez egina.

Geure otoitz-ospakizunak geure hitzekin antolatzen badugu zer egina, garenaren adierazpena izan daitezen. Oinarrizko kristau talde batzuk saiatzen dira beraien artean eta poliki-poliki beraien ekintzak fruituak zabaltzen dituzte. Horien fruitu bat *Latinamerikarra 96* Agenda dugu, euskaraz argitaratua eta non eguneroko liturgia<sup>m</sup> Irakurgaiak azaltzen diren, edo erreferentziak behintzat; Euskal Herriko Elizaren arduradunek ere eskaini ez digutena, Oscar Romero Solidaritza Batzordeko kideek eskaini digute gure hizkuntzan; agenda horren laguntzarekin kristauok eguneroko liturgirako izendatuta dagoen Jaunaren Hitzaren giroan gure otoitza prestatu eta fedea sakontzeko bidea dugu.

1994an *Elizen arteko Biblia* euskaraz argitaratua izan zenean, poz handia izan nuen. Frantsesez argitaratua ezagutu nuen lehenik eta Burundin nintzela han bertakoen hizkuntzan argitaratu zuten. Poz eta atseginezko harrera izan zuen Burundin, eta ibili naizen lekuetan Biblia horrekin mugitu gara gure otoitza prestatzeko eta antolatzeko. Euskal Herrian ere geure Liburuia izan dadila eta berarekin Ekumenismo bideak egiten saia-

tu gaitzela. Kristauok badugu batuk bestearengandik zer ikasia, Elizetako kristauak entzun, harrera egin eta errespetuan hitz egin eta elkarrekin jarraituz Jaunaren izenean.

*Etudes* aldizkari ospetsuaren zuzendariak, 1995eko ale batean, «Holandar Katixima» izeneko irakurtzea garrantzitsua zela kristautentzat zioen. Hori ere *Jakin*-kideek euskaratu ziguten 1975ean. Gure esku dago gure hizkuntzan irakurtzea, bere mamia sakontzea. Liburu gutxi ditugu gure hizkuntzan erlijioari buruz Euskal Herriko kristauok; *Kristau bidea*, *Elizen arteko Biblia...* gure eskura daude gure fedeari eutsiz egunerokoan saiatzeko. Aspertu gabe gure fedea adierazten jarraitu dezagun «justizia eta bakea besarkatu arte».

## JESUS ESNAL

Nere kristautasuna nere senditik datorkit. Gero aberasten saiatu izan naiz, Parrokia eta Kristau Langile Katoliko taldeetan. Ez naiz seminariotik pasa. Aurrez, gaian sartu baino lehen, oinarri bezala, nere pentsamodua azaldu nahi nuke, hobeto ulertzeko gero azalduko ditudanak.

- Gure mundua sortu zuen, bere maitasuna besteengana zabaltzeko, Aita Jaungoikoak bere ahalmenez, eta lehen orduan sortutako mundua benetan garbia, zuzena, akatsik gabekoa dirudi zela.

- Mundu honetan ipini zituen gizon-emakumeak, bere antzeko eginez.

- Gizon-emakumeok beren askatasuna gaizki erabiliz, okerbidetik jo zuten.

- Orduan, Aitak, bere Semea bidali zuen mundu honetara mundua bide onera ekarri nahiz, eta Seme honek sortu zuen Eliza.

Horrela laburki esanda, guk, sinesten dugunok, batetik Aitarren lanari jarraituz, mundu hau landu behar dugu, aurrera

pen guztiak asmatuz, gizon-emakume guztien onerako tresna guztiak asmatuz. Etxebizitza egokiak, bide aurreratuak, lantoki aurreratuak ere, ikastetxeak, eta abar.

Baina, gizon-emakumeak, oker-bidetik joan ginenez, kristau bezala, baita ere, Semearen bideari jarraitu behar diogu, Elizan lan eginez denentzako nahi dugun mundu hobea izan dadin zuzena, solidaritatez eta elkar laguntzaz, Aitak hasiera batean mundu hau nahi zuen bezala.

Eliza munduan dagoenez, batetik dauka Jaungoikoaren laguntza, eta bestetik, gizon-emakumeen akats guztiak, eta gu kristau bezala hor gaude sartuta.

Azken 30 urte hauetan izan ditugu, batetik, aurrerapenak ekartzen dituzten arazoak; arazo onak izanik benetan aldaketak sortzen dira. Esate baterako, gaur, ez gara gure herri barruan egoten, kanpora atzerritara eta abar oso erraz ateratzen gara. Telebista, telefono eta abarrekin, hitz batean, hartu-emanak beste mundu batzuekin irekitzen zaizkigu, beren kultura, pentsaera eta abarrekin.

Bestetik, Estatu mailan, eta Euskal Herrian, frankismoak izugarritzko kaltea egin dio gure Elizari.

Azkenik, 60ko hamarkadaren hasieran Kontzilioak nahi izan du gure Eliza eguneratu —*aggiornamento*—, eta hiru gertaera hauekin, kristau munduak ez dugu izan ahalmenik behar bezala erantzuteko, ezagutuz alde onak eta txarrak izan ditugula, edo oraindik dauzkagula.

Baina nahikoa izan zen Vatikanoko II.a langak puskatuz, eta barrenera bakarrik begiratzen egon gabe, mundu zabalera bere modernismo eta guztiekin ondoan jartzea, lurrikaren antzera, gure artean sekularizazioa, barrengo tentsioak eta abar lehortzeko.

50eko hamarkadatik hasita, Estatu mailan eta Euskal Herrian sortu ziren Eliza barruan talde eta mugimendu batzuk beste ren artean, baina hauek beste ikusmira eta ekintza batekin.

Talde berezi hauek (JOC-HOAC eta abar) ikusten genuen Eliza ez dela Parrokia barruan barrenera begira bakarrik lan egi-

teko, baizik gatza gatz-ontzian ezik eltzera botatzeko denez, kristaua ere Elizako indarrarekin munduan gatza izateko dela. Horrela talde hauetatik sortu ziren militante benetan ondo homituak, sartuz munduan, politikan, klandestinitatean, sindikatuetan, eta abar. Beren helburua zuzentasunen alde burruka egitea zen, mundu hobe bat egitea, Kristoren Elizari jarraituz, hasieran esan dugun bezala, Aitak sortu zuen mundua berritzea, gizatiarrago, zuzenago, solidarioago eta abar egitea.

Jakina, burruka honek, frankismoari ez zion onik egiten, eta urte haietan Estatuko gotzainak frankismoarekin bat izanik, azkenean talde hauek ahuldu eta ia erabat desegin ziren.

Elizak ez du asmatu krisi honetatik irteten —denen tartean bokazio berrien eskasia—, eta munduan lan egiten asmatu ezinez, edo munduko gora-beherekin beldurtuz edo akaso ezinez, lana, Eliza bezala, Parrokia barrenera bakarrik begira egiten da.

Ezin ukatu gauza batzuetan ahalegina alde onera egiten ari direla Pastoral Taldeak sortuz elizabarrutitan, parrokiatan eta abar. Sortu dira baita ere herri-mailako taldeak, Caritas-ek berelanak egiten ditu eta, zerbait, espetxean daudenei laguntzen eta abar.

Baina ez gara ateratzen behar bezala, gatzaren antzera, mundu berri bat egitera sartuz kristau bezala, iritziak errespetatuz, bakoitza bere pentsaerarekin politika, sindikatu, kultura, eta kirol munduan, ez politika edo sindikalismoa eta abar egiteko, baizik eta hor barruan, besteen ondoan, gauzak zuzen, aurrerakoi eta munduaren eta gizon-emakumeen onerantz lan egiteko.

Lehen aitatu dut, Elizak frankismoarekin bat egin zuela, baina gaizki egingo nuke, esan gabe, eta oso indartsu abotsa goratuz, Euskal Herriko apaiz eta erlijioso askok zenbat lan egin zuten benetako kristautasunaren alde, eta beren herriaren alde. Bat baino gehiago fusilatuak izan ziren, eta beste askok, espetxean eta erbestean urteak igaro zituzten. Benetan ondo eta zuzen.

Azkenik, gure urte hauetan, berriz minduta gaude, ikusirik Elizak bere goi-mailatik, Erromatik esate baterako, azken gotzain-izendapenetan nola alde batera laga dituen, gure ustez,

Elizaren benetako bideak, Herriko gotzainak izendatu gabe. Bilbon, esate baterako.

Hori da kristau bezala jarraitu nahi dugun sufrimentua, eta irentsi beharrean izan gara, kristau bezala jarraitu nahi dugulako.

Hainbeste gauza esan gabe lagarik, gaur benetan Elizak izan beharra dauka Elkarte eta Ebanjelizatzaile, mundu hobe bat denon artean lortzeko.

Gure gotzain Setienek, nire ustez bide hori darama, eta egia eta Ebanjelioa zabaltzen saiatzen delako, hain kritikatu da.

Gure Elizak, gotzainek, apaizek eta gu sekularrok benetan izan behar dugu, edo saiatu behar dugu, jokutzen eta bizitzen Ebanjelioarekiko leialtasunarekin, Elizarekiko leialtasunarekin eta Gure Herriarekiko leialtasunarekin.

## XABIER IKOBALTZETA

Azken hogeita hamar urteotako Elizari begiratzea eta Euskal Herrian izan duen ezarreraz gogoetatzea ez da ariketa eroso edo erraza. Aldi horretako gertakarien trinkotasunak analisi xeheari uko egin eta inpresiorik errotueneren iruzkina egitera gonbidatzen du. Bi orrialdeko proposamen honek elkarrizketari ekin nahi dio, eztabaidaren eremu zabalean sartzeko asmorik gabe.

Kontzilio-artoko atek itxi ondoren, gotzainak bakoitza bere elizbarrutira etorri ziren, Eliza munduaren erdian birgaitzea bidera zezakeen elkarrizketa hasteko asmoz. Teologiako gogoeta seminarioetako hormarte estuetatik ateratzen ari zen, *campus*-etan sartzeko eta ideiak *universitas*-aren aurrez aurrez jartzeko. Jainkoari buruzko gogoetako intelektualak mahaikide egin ziren «susmoa»ren filosofoen ondoan. Erroma Europarekin adiskidetze-bidean zihoan.

Lehen hurbilketa hau itxarobidez beteta zetorren hasiera batean, baina sakratua profanoagandik, jainkotiarra gizatiarragan-

dik, Jainkoaren Erreinua munduagandik bereizten zuten mugak ez zeuden batak besteari amore emateko prest. Gure Euskal Herriko gizarte-bilbean zehar marxismoaren sutondoan jaiotako eskola guztiak zebiltzan; autonomia eta atxikimendu zabala jasotzen ari ziren inspirazio laikoko etikak. Europaranzko bidaiak Erromatik urrundu gintuen, bi bide erakutsiz Agindutako Lurrera iristeko.

Aniztasunak haustura ezarri zuen eta Eliza txoko estu batera baztertu zuen, baja garrantzitsuak pairatuz bai barne-erakundeetan, zein instituzio berekietan. Gizarte-bizitza arautzeko eta antolatzeko sakratuak bere esanahia galdu izanak, talde politiko eta sindikalek, historiak planteatzen zituen erronkak bereganatzeko, Eliza ordezkatzear bat, frankismoaren hiletetan kokatu gintuzten sinestedun ginen euskaldunak.

Gerra ondorean jaiotako lehen gazte-belaunaldia Herri honetako hiru sakralitate nagusietatik askatu zen: gero eta urrunduago egin zen modernitatearen aurka zegoen nazionalismo klasikoarengandik, aldendu egin zen familiaratik, gizarteratzeko egitura gisa harturik, eta alde batera utzi zuen Eliza, pentsamolde europarraren etorreraren eta diktadorearen erasoaren aurreko babes-esparru gisa harturik.

1978an estreinaldia eman genien politika-erreformari eta eliz erreformari. Intelektualki ahalmen handiko eta don Jose M. Setien lider zuen gotzain-talde batek Euskal Herriaren eta Elizaren arteko txertaketa bilatzeko enkargua jaso zuen. Hierarkian bertako elementuak zituela, tokian tokikoaren sorreraranzko lehen pausoak ematen hasi zen eta, Autonomien Estatuaren eskutik, aurpegi autonomoko Eliza gisa agertzen zen.

Gotzaineria eraberriturik eta garaiko joera aurrerazaleengandik hurbil zegoen teologi hizkera zutela —Askapen Teologiako korronte latinamerikarren ekarpena—, sartu ginen laurogeiko hamarkadan. Bat etortze honek, Euskal Herriaren askapen-prozesuan ere konprometitzen zela zirudien Eliza eraldatuaren irudia bideratzen zuen. Baina Francoren zerraldoa lurperatu zuen ahulezia politikoak eta O-23ak emandako kolpeak errealitatearen oinarria ezarrarazi zieten Estatuaren egungo egitu-

ran ilusioak zituztenei. Estatutuari emandako sostenguak, NATOri buruzko erreferendumaren aurreko zalantza arteko tonuak eta Euskal Herriak berez dituen eskubideez ahazteak eredu estatalaren irudi huts bihurtu dute Eliza. Gaitzespen erabatekoekin baterako isilune susmagarriak eta lider-hierarken gehiegizko nagusitasunak, kristauak eremu publikotik at ipini dituen eklesiozentrismora eraman gaituzte.

Euskalduntasuna «gizarte» edo «elkarte» kontzeptutik abiatuz ulertzeko eztabaida modernoa norbanakoaren eta kolektibitatearen eskubideen arteko banaketa sortarazten ari da, «pertsona» eta «herria»ren burujabetzaren artean. Elizak, bere kultur jatorri eta bokazio orokortzaileagatik, jarrera hobea erakusten du «gizarte-norbanako-pertsona» trilogiarako eta ez da arduratzen Euskal Herriaren ideia gauzatzen den datu bereiztaileaz.

Kulturaztapena —«bestelako kulturen» ebanjelizatzeko prozesuetan teologoek landu duten hitza— kezkarik entzunenetakoa gertatzen ari da garai batetik hona. Eliza barruko euskararen erabilera estetikoak eta euskal eledun hutsak diren eskualdeetan apaizik ez izanak jite hiritar, burokratiko eta posmodernoko eliz izaera bultzatu dute. Kulturaztapenak ez badu kolonizazioa esan nahi, planteamenduak gaur erabat beste erako bidea hartu beharko luke, euskal kasuari dagokionez.

Gaurko egunean jadanik eta arreta Euskal Herriko gotzainen berriketako izendapenean jarriz, badirudi egoera korapilatuz doala. Joan Paulo II.aren aitasantutzak, Tagliaferri nuntzioaren jarduerak eta don Anjel Sukiaren aholkularitzak eratua dute estrategia eta Kristoren Gorputzaren eliz ereduja Jainko-Herriarena ordekatzen ari da.

Ez litzateke arraroa gertatuko, epe laburrean, euskal elizaren baitan nortasun bikoitza ezagutzea: don Jose M. Setienen elizarena eta beste elizarena, alegia.

*Euskaratzailea:*  
ESTEBAN AGIRRE

## JULEN KALZADA

Euskal Elizak Kontzilio ostean izan duen eboluzioari buruz balorazio pisutsu bat emateko, Kontzilio osteko Eliza nik baino luzaroagoan bizi eta sakonago ezagutu duen bat izan beharko litzatekeela uste dut. Elizak dituen eta zuk zeuk ere aipatzen dituzun alderdi edo adar horietan Kontzilioaren izpiritua eta erabakiak nola mamitu ziren aztertzeko, bere perspektiba behar delako.

Baina eskatu didazunez, neuk bizi izan nituen alderdiei (eta ez guztiei agian) eta bizi nuen uneko Elizari buruz eman-go dizut iritzia. Hots, neure esperientziari buruz.

Gogoan izan, alde batetik, 69an eraman nindutela Zamorako kartzelara; nire testigantza, bada, ordura artekoa baino ez da izango. Orditik aurrera «Euskal Herritik aparte, mila legoa bitarte» eta «esku eta hanka loturik preso» eduki ninduten; hortaz, gehien ere urrutitiko ikusle edo entzule moduan baino ezin izan nuen jarraitu. Epe zeharo laburra, ikusten denez, eta gainera nahiko lainopean daukadana, denboraz ere urrun geratzen delako.

Bestalde, Kontzilioaren inguruan, oinarrizko arazo nagusi bat bizi izan genuen Bizkaiko apaizek, guztiek ez bada ere askok behintzat: Kontzilioaren edukian behar den beste sakontzeko zailtasuna alegia. Zeren zaila (gehiengo handi batentzat ezina) bihurtu baitzitzaigun Kontzilioak planteatzen zuen ildo berria, jarrera berria edo Erroman egosten ari zen hura eta hartzen ziren erabakiak ezagutu eta sakontzea.

Gauza solte eta gaineko batzuk ezagutzen genituen noski; baina urrutiko kanpai-hotsak ziren eta gainera garai hartako Espainiako aireek erlasturik heltzen zitzaizkigun. Bizkaiko Eliza hierarkikoaren barruan ez zen planifikatu berari buruzko patxadazko jardunaldi, ikastaro, mintegi edo antzeko beste zer-bait. Eta, jakina, Euskal Herriko Elizarik orduan ere ez zegoen. Bizkaiko Elizak Kontzilioan izan zuen ordezkariak (gure go-tzainak) bestalde, Kontzilioari buruz bere apaiz eta eliztarrei



eman zien informazioa, esaldi honekin laburbildu ohi zen: «*Ternía junto a mí un obispo negro, muy negro*».

Beraz, Kontzilioa ezagutzea bakoitzaren gogo edo arduraren pean geratu zen. Zorionez, 60ko hamarkadan Euskal Herriko gizartea ez ezik Jainkoaren herria bera ere aire berriz inguratutik zegoen eta apaiz-talde bat (apaiz gazteak bereziki) oso interesaturik egon zen Kontzilioa ondo ezagutu eta Euskal Herrira egokitzeko lanean. Egin zen apurtxo eskerrak berari egin zen.

Ezagutze-lan hau, geure kontura burutu genuen. Aldizkari, dokumentu eta antzeko materialak aurkitu, irakurri eta lagunei pasa. Kontzilioa (bere izpiritua eta irakatsiak) noraino gurganatu genuen zehaztea bera ere zaila egiten zait. Hala ere saiaturiko naiz hautsa kendu eta eskabideari erantzuten.

Nire ustez hemengo apaizek azertu handiz sumatu zuten Kontzilioaren izpiritu berri hori gurutzada osteko izpiritutik zeharo urruti zegoela. Beraz, garai hartan munduan nagusi ziren ideia aurrelariak sartzen eta Euskal Herriko ikuspegia ematen ahalegindu ziren.

Euskal Eliza aurrelari bat egiten, beraz. Horretarako:

Eliza euskaldundu beharra zegoen. Liturgia euskaratzetik hasita. Talde zabal bat saiatu zen lan horretan. Liturgiaren euskaratze-lan hau ongi burutu zen.

Baina Euskal Herriko Jainkoaren herriak Jainkoarekiko eta eliztarren arteko harremanetan euskara erabiltzeko orduan, aldiz, nire ustez nahiko motel agertu da oro har. Hala ere, esan beharra dago Herri Gaztedi bezalako eliz mugimenduak zeharo euskaldundu zuela bere burua, euskal herrietako apaizen bileretan ere oraindik erdara hutsa erabiltzen zen garaian bere barneko harreman guztiak euskara hutsean eginik, eta Euskal Herriko euskararen aldeko mugimenduan ere eragin handia izan zuela. Beste eliz mugimendu batzuek, aldiz —adibidez JOC, HOAC, LUIS, Mariaren Alabak etab.—, oso gutxi sakondu zuten Kontzilioaren herriratze-mota honetan.

Euskal Herriko Eliza gauzatu beharra zegoen. Gurutzadaren ostean egituratu zen Elizak ez zien Euskal Herrian bizi zi-

ren garai berriei eta Kontziliotik zetozen aire eta joera berriei erantzuten. Beraz Eliza Euskal Herrira maila askotan egokitu beharra zegoela nabaria zen. Talde zabal bat saiatu zen Eliza Euskal Herri mailan hainbat sailetan egituratzen. Eta lan ego-  
kia burutu zuen.

Lan-mota bat pastorgintza herriratu eta hemengo nortasu-  
na ematea zen. Hau da, Bizkaiko pastoral-lana ezin zitekeen  
izan Burgos eta Salamankakoaren antzekoa; edo Baionakoa ere  
ez Bordelekoaren antzekoa; Nafarroa, Baskongadetako hiru  
herrialdeak eta Iparraldea (Euskal Herriak) bilduko zituen pas-  
torgintza baino. Eta horretan saiatu ziren.

Talde honek bere pastoral-lanez gain, behin eta berriz eta hi-  
tzez eta egitez eskatu zion Eliz Hierarkiari Euskal Herriko egi-  
tura emateko Euskal Elizari, Kontzilioak horretarako baimena  
ez ezik iradoki ere egiten zuelako: Gotzainen Batzarra egiteko,  
Euskal Herriko mugetara moldatzen zen Artzapezpikutza ba-  
tean (edo pareko zerbituetan) egituratzeko... eskatu zion. Bai-  
na errebindikazio horiei ez zieten jaramonik egin ez garaiko  
gotzainek, ez gerokoek.

Eliza Euskal Herrira egokitzeko lanean genbiltzanok elizba-  
rrutiko hierarkiarekin geneuzkan harremanak ez ziren onak,  
gure Eliz Hierarkiak Euskal Herriaren zati bat Espainiaren  
baitan eta bestea Frantziaren baitan ikusi nahi zituelako eta  
Hegoaldea bera ere zatiturik mantendu, Kontzilioaren esan  
eta irakatsietara egokitu beharrean, apaiz-taldeek («Gogor» dei-  
tuak eta beste batzuek) hainbat eratako ekintza-motak egin zi-  
tuzten egituraketa hori gauza zedin eskatuz, baina ekintza ho-  
riek Euskal Herriko Elizaren eta Euskal Herriaren historian eza-  
gunak direnez, eta gainera luzatu egin naizenez, ez dut gehiago-  
rik ekingo.

## IÑAKI MENDIGUREN

Galderako 30 urteok nire bizitza gehientsuena hartzen du-  
te, eta azken 20ak ez ditut eliza katolikoan eman, eliza protes-

tante batean eta libre samar baizik. Kanpotik ikusi izan dut, Erromako eliza, eta honek bere on-gaitzak izan ditzake: bate-tik, zenbait alderdi gutxitxo ezagutzea ongi baloratzeko; bestetik, zenbait puntutan konparatzeko aukera.

Adinagatik, beraz, gutxi oroitzen naiz Kontzilio aurreko eli-zaz: alegia, liturgia zaharrekoaz eta, bere alderdirik beltzenez, Beldurraren Teologia eta —gure aita zenaren esanetan— arimetako diktadura praktikatzen zuen elizaz, orduan bekatua eta zigorra omen baitziren ardatz nagusiak.

Alde horretatik, behintzat, izan da aldaketarik. Euskal Herri-ko eliza katolikoak ere herrialde industrializatueta eliza gehien-tsuenek jasan duten krisialdi eta sekulartze-prozesu bizia ja-san du. Ondorioz, eliza, seminario eta komentuak asko hustu zaizkio eta, bide batez, gizarte-eragina biziki ahuldu. Garai batean Estatuarekin eta aginte zibilarekin zuen lotura ere as-ko lasaitu du. Bestalde, Kontzilioak berak itxaropen eta ilusio handia piztu eta bide berriak ireki zituela iruditzen zait, baina azken urteotan (Joan Paulo II.aren agintealdian, batez ere) ho-ri asko zapuztu dela esango nuke, nolabaiteko atzera-martxa egon balitz bezala.

Zer ulertu behar da «eliza katolikoa» esatean? Galderan ber-tan hierarkia eta komunitatea aipatzen dira. Baina non buka-tzen da bata eta non hasten bestea? Hierarkia ere ez da bakarra eta erabat homogeneoa (Setien ez da Sebastian edo Ratzin-ger). Are gutxiago da homogeneoa, komunitatea: aski joera ez-berdinetako gizabanako eta kristau-taldeek osatzen dute Eus-kal Herriko katolikoek komunitatea. Bereizten hasita, eta esta-tistikoki edo soziologikoki bakoitzak zer pisu duen ez badakit ere, sailkapen labur hau egingo nuke:

- Jaiotakoan elizan bataiatu-riko jende dezentek erabat eten du berarekin. Gradu desberdinetan bada ere, antiklerikalismo bortitza sumatzen dut batzuegan; beste askorengan hausnar-keta sakona, agnostizismo sana, pasotismoa, indiferentzia, etab.

- Beste batzuek, fede-bizipen handiegirik gabe, bataio, jau-nartze, ezkontza edo heriotzako orduan elizara jotzen jarraitzen

dute. Errentaren aitortpenean eliza katolikoari emango diote zerga, eta agian seme-alabak doktrinara bidali era bai.

- Badira katolikoak (laiko nahiz apaiz edo erlijiosoak, eta hauek beren mikro-komunitateak osatzen dituzte) fedea koherentzia handiagoz bizi dutenak. Alegia, Vatikanoko II. kontzilioaren hasierako izpiritu eta bide berritik zintzo eta ausarki aurrera egin dutenak. Hauek jatorrizko kristau-mezuan sakondu dute, Biblia «berraurkituz»; hierarkia, tradizioak, historiaren zama, etab. erlatibizatu dituzte; kristau-mezua egungo errealitate egokitu eta gizartean, politikan, kulturean... ondorio guztiekin bizitzeko ahalegina egiten dute, besteak beste, eliza benetan euskalduntzeko ahalegina; laikoen eta kleroaren arteko koska berdindu dute; jarrera ekumeniko zabalagoa dute, etab. Niretzat talderik interesgarriena litzateke.

- Bada beste multzo bat hemen bertoko nahiz Vatikanoko hierarkiari estuago lotua, eta hauek doktrina ofizialari jarraitzen diote zintzo. Nolako gotzaina, halako jarrera dute batzuek; eta nolako aita «santua», halako jarrera besteek (kontserbadoreenak sartuko nituzke hemen, opusdei-zaleak, etab.)

Eliza katolikoa, erakunde bezala hartuta, bakarra da, oso zentralizatua eta, eliza protestanteek munduan zehar duten dibertsitate edo aniztasunaren aldean, oso monolitiko, homogeneo eta uniforme. Beraz, maila gorenean Erromak ezartzen du doktrina ofiziala. Gero, estatuka edo, gotzain-batzarrak daude, dinamika autonomo erlatiboarekin. Eta jakina da Baionako apezpikua Aturritik gora joaten dela eta Hegoaldeko laurak Ebrotik behera. Zentzu honetan, bertoko gotzainak zenbait ekintzatarako batu arren, ezin da esan Euskal Herriko eliza katolikoa gorputz autonomo bat denik, eta ez dut uste bilakera propio berezirik izan dezakeenik; are gutxiago bertoko gotzain guztiak ildo beretsukoak ez diren bitartean, eta, azken izendapenek erakutsi dutenez, ez dirudi honetarako asmorik dagoenik.

Egia da gotzainen izaera edo nortasunak marka dezakeela beren kargualdia dagokien elizbarrutian. Adibidez, ukazina iruditzen zait Setienen figurak azken urteotan izan duen eragina

Gipuzkoako eliza katolikoan. Baina hau ere neurri batean bakarrik; zeren eta, zenbat eta gorago hierarkian, orduan eta Erromari lotuago agertzen baita jendea, doktrina-mailan, behintzat; ez dakit norberaren gogoz edo halabeharrez. Euskal gatazka politikoari buruz badu Setienek ahots propio eta ausarta, hau aitortu behar zaio; baina gai honetan ere, beste gotzainak (oso inpartziala ez den) diplomazia vatikanoaren superzuhurtiaz jokutzen edota agintean dagoenaren musikaz dantzatza egiten ikusten ditut gehienetan.

Eliza ofizial honi aldatzeko gogo eta presa gutxi sumatzen diot nik. Elizak, oro har —eta ez eliza katolikoa bakarrik, baina bera bereziki—, kontserbadoreak dira, eta aldaketak ezinbestean, halabeharrez eta beranduegi egiten dituztela iruditzen zait. Eliza katolikoa oso atzera dabil barne-demokrazia, zelibato, emakumezkoen apaizte, famili eta sexu-kontu edo beste arazo askotan. Lehen zituen pribilegioei ere —eta orain Hegoaldeaz eta Espainiaz ari naiz— ahal duen neurrian eutsi egin nahi diela iruditzen zait, eta honetarako berak hain trebeki erabili ohi dituen p resio-bideez baliatzen dela. Hau gertatzen da, nire ustez, bere ekonomia edo hezkuntza-eragina arriskuan ikusten duenean.

Baina, batez ere, funtsezko alderdi batean dabil eskas eliza katolikoa, baita beste elizak ere; gaurko gizakiari sinesgarri eta interesgarri gertatzeko moduan kristau-mezua eguneratzen. Eta hau erabakiorra da.

## MARTIN ORBE

### KONTZILIO BAT IZAN ZEN

Kontzilio ondorengo hogeita hamar urteetan Elizak izan duen bilakaera baino areago Kontziliotik hogeita hamargarren urtera Eliza nola ikusten dudan izango litzateke nire gogoeta xume hau; Bizkaiko elizari begira egindakoa gehienbat.

Gaia honela jorratzeak Kontzilioa gaur egungo elizgintzarekin bide-erakusle eta erreferentzia-puntu baino areago, jadanik

Elizaren historiaren kapitulutzat hartzea esan nahi ez ete duen nago. Eta, tamalez, nire behatoki mehar bezain llaburretik begiratuta horrelango zerbaiten susmoa daukat. Izan ere, bai Bizkaian eta bai Euskal Herrian, azkenaldian, izan ditugun apezpikuen izendapenetan ikusitakoaz, kasurako, Kontzilioaren ondoren urratutako bideak ala ahaztu ala bazterrean utzi direla ematen du.

Ez dago esan beharrik, Eliza Erromako erakunde hierarkiakoak eta gure elizbarrutietako apezpikuak baino askoz gehiago dela; baina izatez horrela izanik eta horixe ozenki aldarrikatu arren, badirudi eliz gidariek beraiei meneko zaien artaldea gogokoago dutela eta eliztarrok ere hor nonbait ez dugu gehiagorako ez gogo gehiegirik ez kemen eta indar soberakinik.

Elizaren bozeramaileek, maizenik, ederrespenez beterik eliz erakundearen ahaleginez eta lorpenez jardun ohi dutenez, zilegi bekit neure inguruan somatzen ditudan gabeziez aritzea.

Ohartzen naiz deuseztatzailea aterako dela Bizkaiko elizaz emango dudan ikuspegia, baina hala halako alkar maitasun orohartzailearen izenean eliztarren ezintasunak, huts egiteak eta —nola ez— saldukeriak ere edo errazegi zuritu edo koldarkeriaz estaltzen direnez, uste dut beharrezko zaigula zintzoki egindako autokritika eta kritika, garratza izanik ere.

## ABIAPUNTUA

Bizkaiko elizari dagokionez, bada, Kontzilioaren harreran gertatu ziren bi gabezia aipatuz hasiko nintzateke.

- Bizkaiko elizaren buruzagitza, nolabait esateko, ez zen Kontzilioaren irakatsi eta jokamoldeen aldekoa. Hauen jarra, beraz, ezin izan Kontzilioak markatutako bideetatik gogoz eta esperantzaz abiatzea.

Elizako gidaritzari zor zaion obedientziaren ildotik ulertu zuten Kontzilioak eskainitako irakatsiak onartu eta proposatutako eraldaketak bultzatzea.

- Kontzilioaren aldekoak ere izan ziren, noski, Bizkaiko elizan, eta 1968. urteaz geroztik nagusitu egin zirela esan daiteke. Ukaezina maila guztietako eliztar askoren borondate eta ahalegina. Halaz ere, ahalegin horretan, eliztarrok behin eta berri, aleka izan ezik, gainditu ezin dugun erronka zaila aipatu behar.

Izan ere, Elizaren diskurtso teorikoa, formalki bederen, Kontzilioarenari egokitu zitzaion eta Gotzaitegi eta elizbarrutiko organigrama Kontzilioaren eskakizunei erantzuteko berrantolatu; baina nire uste apalean hori guztia baino harantzago dago elizgintzaren muina, hots, bizi eta sufritu, lan eta atsedean, amets eta etsipen... hitz batez, bizitzako mila arlo korapilatsutan ari diren herritarren artean presentzia umil eta enkarnatua hezurmamitzea litzateke kristauon berarizko zeregina; eta ez dut uste horretan aurrerapauso aipagarririk eman zenik.

Hurbiletik ezagutzen dudan datua aipatzearen, hogeita hamar apaiz bizkaitar izan ziren Zamorako kartzela konkordatorioan 60ko hamarkadan; beste hainbatek ihes egin behar izan zuten...

Apaiz hauen paraderoa ez zen bide bakar eta beretsutik gauzatu, ekimen eta jarrera desberdinetatik baino, hau da, zenbait talde eta herritarren ahalegin politiko, sozial eta kulturalera, herritarren zerbitzari gisa, hurreratzetik hain zuzen.

Herri kontzientziaz ari ziren herritar saiatuenen ahaleginak isladatzen ziren apaiz haien jarrera eta ekintzetan. Eta herritar askok eta askok prezio latza ordaindu behar izan zuten: atxiloketak, torturak, epaiketa militarrek, kartzela-zigor luzeak, erbesteratzeak...

Eta gogorra da esatea, baina nik uste eliz erakundeak 36.eko gerrate zibilean izan zuen jokabide berdintsua izan zuela Bizkaiko elizak, hots, arazoaren jatorri eta muina berraztertu eta zigor-bidean jarritakoengana hurreratu beharrean, garaiko botere politiko eta sozialen agindu eta erabakietara makurtu. Eta horrela, gerrate zibilean herritar eta eliztar askok jasan behar izan zuten etsipena, errepikatu egin zen belaunaldi gazteetan 60ko eta 70eko hamarkadetan.

Egin kontu, 1969. urtean, Bilbo eta Donostiako apezpikuentzat, torturak, «detenidu batzuk», presondegietara sartu aurretik, hartutako «tratu txarra» zirela. Eta tratu txar horien egiazkotasunari dagokionez, askoren artean zabal dabilen «zurrumurrua» baino ez zela, apezpikuen ustez. Delako zurrumurrua egia izatekotan, agintarien zerbitzari batzuen aldetiko gogorke-riaren erabilera ez zuzena litzateke; eta «oinarri bakoa eta geitua» izanez gero, agintarien kontrako propaganda. Eta honako hauxe apezpikuen ondorioa: horrelakoetan «egia zeatz jakitea gauza erraza» ez denez, «zurrumurru ori zabaldu dana, or da- goen egite bat» dela.

#### EGOKITZAPENA

Espainiako erregimen politikoaren aldaketa 1976.ean abiatu zen. Data horretarako, esan daiteke, Elizak burututzat ematen zuela Kontzilioaren irakaspenen hausnarketa eta bitarteko pastoralen egokitzapena.

Ez da iruzkin labur hau demokraziaren argi eta itzalak aztertzen hasteko tokia, baina demokraziaren ulerpenaz irakurketa kritikoa egin beharra dagoela deritzot. Izan ere, demokraziaren kontzeptua sakralizatu eta absolutizatu egin da eta, honen bestez, herritarren beharrei erantzuteko marko auneragarri baino gehiago txandatu ohi diren ordezkariak, beraien neurri- ra, gobernatzen duten status politiko-soziala bilakatu da.

Eliza, bere aldetik, erraz egokitu da egoera honetara. Bizkaiko eliza, salbuespenak salbu, demokrazia formalaren esparruan murgildu da eta Elizaren jardunaren eta gizarte zibilaren bila- kaeraren artean alkar komenentziazko eta begirune interesdun distantzia neurtua nagusitu da. Diogunaren argigarri, har di- tzagun gure herrian soluziobideratzeke dauden zenbait funtsez- ko arazori buruzko jarrerak.

#### **Arazo politikoa**

Elizaren diagnosi eta ondorengo jarrera, nagusiki, honako hau dela uste dut. Demokrazian gaudenez, demokraziaren ba-



liabideetatik konpondu behar da Euskal Herriko gatazkaren arazoa. Printzipio eta jarrera ezin borobilagoa, dudarik gabe, baina printzipio aseptikoekin ez dira arazoak konpontzen.

Demakrazia, bere akats eta guzti, sistema politiko hobere-na dela bezain egia da, gure demokrazia hau, hogeitertan, ez dela gai izan Euskal Herriko egoera gatazkatsuari konponbide egokia emateko. Eta ez du balio sistemari eta gehiengo sozialari oldartzen zaion gitxiengoa dela arazoaren errudun eta errudun bakarra esateak. Demokrazia gehiengo eta gitxiengoaren arteko indar erlazio matematikoa baino zerbait gehiago da, ezer izatekotan.

Badirudi, klase politiko profesionalaren mimetismoz ari dela Eliza. Harentzat, «radikalak», eta hauexek soil soilik, dira gatazkaren errudun. Elizarentzat «polarizatuak» dira saltsa horietan dabilzanak. Bien bitartean arazoa geroz eta gordinagoa da eta egunean baino egunean alkarrekiko arrotzago bihurtuz doaz Eliza eta euskal erresistenteak. Indarkeria oro, datorren gunetik datorrela, gaitzestetik, alde bateko indarkeria soilik ikustera eta hori gaitzestera igaro gara Elizan.

Eta kontua da, Elizak —elizarrok— munduaren gatza izan behar dugula.

### **Arazo kulturala**

«Euskararen eta euskaldungoaren egoera, Elizan, inoiz baino oparagoa da» bezalako baieztapen borobilak egia dira; egia orokorrak. Noski, Eliza gizartean bizi da eta gizartearen aportazio guztiez elikatzen da; eta horrela izan behar du; hori ukatzeko bezain kamutsak ez gara.

Baina Elizak ez du oraindik egin arlo honetan, Euskal Herrian, izan dituen utzikerien autokritikarik. Eta aurrera begira, ez du bere egitura eta izaera euskalduntzeko plangintzarik. Eredu urbano erdaldunak Bizkaiko euskaldungoaren esparruak egunerik egunera ordezkatu daroaz. Eliz guneetan euskal *gizartea* da erreferentzia-puntua eta ez euskal *herria*; areago, berein beregi aitortzen da *euskal herria* izen soilak mesfidantza edo/eta gaitzespena sortarazten duela kristau banako eta talde aktiboetan.

Asko famatu dira Elizak eta elizgizonek euskarari eta euskal kulturari egindako aportazioak; ukaezinak dira. Baina bada hor elementalena izanik, lotsaz edo, ahaztu egiten den bereizketa egin beharra. Euskal Herriko eliz erakundea ez da inoiz izan ez euskalduna ez euskaltzalea eta, sarrerakoan aipatzen genuena kontuan hartuz, esan daiteke izateko asmorik ere ez duela. Hala, bada, elizgizon askok, pertsonalki eta maiz eliz agintariengandiko oztopo eta deskalifikazioen artean, lan oparoa burutu izan dute euskal letren zenbait alorretan. Beraiena da, beraz, meritua. Nori berea hori da legea.

Bestalde, elizgizonen kopurua nabarmenki urritzean eta euskaldungoaren kultura-maila sekulartu egin den heinean hedatu eta igotzean, begi-bistan geratu dira eliz erakundeak arlo honetan dituen gabeziak eta desfaseak.

Datu bakarra da, baina adierazgarria. Bizkaiko elizak ez du oraindik orain ez bereganatu ez erabaki apaiz-bidean ari direnak —gitxi, bestalde— euskaldunak izan beharra. Areago, gaia horrela planteatzeak ikaragarritzko tira-birak sortzen ditu.

### **Arazo soziala**

Legedia hobetu da...; sindikatuak hor daude... Hor dago, beraz, arazoak gainditzeko markoa. Marko demokratikoa hau ere, noski.

Baina, halaber, inoiz baino langabetu gehiago dago; pobrezia-guneak errealitate gordina dira; arrantza eta nekazaritza bezalako sektoreak itolarri estuan murgilduta daude... Aurpegi aurrierakor eta moderno duen sistema ekonomikoa erabat injustoa eta inhumanoa da. Aski da ondorenei erreparatzea: diferentziak gero eta nabarmenagoak aberatsen eta pobreen artean, lehenengo eta hirugarren/laugarren munduaren artean.

Euskal sindikatuek azken aldi honetan egiten ari diren azterketetan egoera injusto hori baieztatu besterik ez dute egiten. Ildo beretik Eustat-en azken datuen arabera, Bilbon bereziki, diferentzia sozialak, auzoka, nabarmenak dira.

Egoera honen aurrean, «aurpegi berriko Caritas» al da Elizak duen erantzun bakarra? Behartsuei adierazten ete zaie,

egiaz, Berri Ona eta behartsuek ebanjelizatzen ete gaituzte? Sozialki eta politikoki pobreak direnen guneetan eraiki nahi dugu Eliza ala Gotzaitetik bulegoetan eta gure parrokia ingurumarietan eraikitako eliz eredia eskaintzera joan ohi dugu ezin ari direnengana? Akitu al da profetismoa Elizan?

#### AURRERA BEGIRA

Ez dakit nik zenbat argi gorri piztu behar diren Elizak barne-azterketa sakona egin beharra ikus dezan; dagoeneko, eta aspaldixotik, hainbat piztuta daudela esango nuke.

Oraintsura arte Sendotza hartu ondoren, eta orain Lehen jaunartzea egin ondoren alde egiten digute umeek gure elizetatik; gelditzen zaizkigunak eliz barneko ekintza eta taldeetan ari dira, baina ez dira ikusten<sup>1</sup> noski, garaurik ere ez talde «markatuetan»; Bizkaiko elizarentzat badirudi BAK (Bakearen Aldeko Koordinakundea) dela Euskal Herriko talde bakezale eta bakegile bakarra; apaizgaiak ia agortu dira eta ez dirudi erraza izango denik Elizak nahi duen bezalako apaizgorako bokazioak errekuperatzea; Elizak onetsitako talde eta ekinbideetan menekotasunez jardutea erabiltzen da fede-hazkundea neurtzeko parametrotzat; Elizaren zenbait ageriko agerpen, hala nola parrokia askotako burokrazia eta harrera-jitea, eliz barneko antolaketa ekonomiko eta administratiboa, zenbait erlijioso ordenen bizi-tan-kerak, etab. testimonio baina areago antitestimonio bilakatu dira; geroz eta nabarmenagoa da Elizaren mezu ofizial eta elizatarren sineskizun eta jardunbide erreala arteko urradura...

Eliza ez da —horrela definitu zuen Kontzilioak— «gizarte burutua», «Jainko-herri» baizik. Jainko-herri hori herriz herri hezurramitzeko ezin egin izango zaio muzin norbere herriari; aurretik herri minorizatua dugunean. Eliza huts-eginez ere ezin da izan genozidioaren gaizkide.

Ahaztuxea dirudien arren, Kontzilio ondoren finkatutako bideetatik abiatu beharko dugu Eliza indarberritzeko; orain arteko handikeria eta giza-aldrak erabat ahaztuta. Bihotz zabalaz aztertu beharko dugu zeintzuk diren eta non dauden egun-

go «garaien zantzuak» eta zuhurtziaz eta apaltasunez erabili behar harko ditugu Nazareteko Jesusek Hobetsi eta geure esku ditugun «bitartekotzak».

1. Herrigintza arlo desberdinetako taldeetan.

## JOSE ANTONIO PAGOLA

Elizak Euskal Herrian Kontzilio ondorengo 30 urteotan izan duen jarduera aurkeztuko dut, laburki bada ere. Jarduera horren alderdi pastoralaz azpimarratuko dut, batez ere. 1979. urteaz geroztik Donostiako elizbarrutiko Bikario Nagusi naizenez, iruditzen zait, hori izan daitekeela nire ekarpenik interesgarriena gogoeta honen inguruan.

### ELIZBARRUTIEN ARTEKO ELKARLANA

Vatikanoko II. kontzilioaz geroztik, Euskal Herriko —hegoaldeko— elizbarrutien arteko harreman eta elkarlan estuagoen beharra sumatzen da. Baionakoarekin ere badira harremanak liturgi liburuak euskarara itzuli eta argitaratzeko. 1977az geroztik ohiko batzarrak egiten dituzte Iruñea-Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainek (6/8 bat batzar urtean). Urte horretan bertan sortzen da pastoraltzarako elizbarruti arteko Idazkaritza Iraunkorra. Elizbarruti horietako bikario nagusiek eta idazkari orokorrek osatzen dute idazkaritza hori. Elizbarrutietako pastoralgintza koordinatzea eta gotzainen batzarrak prestatzea da berorren eginkizuna. Idazkaritza honen jarduera aski bizia izanda (100dik gora izan dira egindako batzarrak). 1985ean elizbarruti guztien jabetzako egoitza iraunkor bat jartzen da Gasteizen.

### IRUÑEKO ELIZ PROBINTZIA

Une hartan gure elizbarrutietako gotzain zirenen eskariz, Espainiako Gotzainen Batzarrak Iruñeko Eliz Probintziaren bimol-

daketari bere oniritzia ematen dio, 1978ko azaroan; Bilbo, Donostia eta Gasteiz Iruñeari loturik geratuko ziren; Jaca Zaragozarakin; Calahorra, berriz Burgosekin. Erromako Aulki Gorenari zegokion, birmoldaketa hori egiteko une egokia erabakitzea, kontuan izanik aldaketa horrek sozio-politiko ikuspegitik ekar zitzakeen ondorioak. Geroztik hainbat ahalegin egin izan arren, oraingoz Erromak ez du inolako erabakirik hartu.

#### GURE GOTZAINEN IRAKASPENA

1977az geroztik, gure gotzainek pastoral idazki-sorta ederra eman dute argitara, fedeari buruzko oinarritzko gaiak jorratuz eta pastoral-argibideak emanez. Urtero Garizuma inguruan argitaratu izan Idazki hauek garrantzi handikoak izan dira, Kontziliotik datorren Elizaren berrikuntza Euskal Herrian sustatzeko (ikus «*Al servicio de la Palabra*», Ed. EGA, Bilbo 1993). Era berean, gotzainek, bai bakarka bai elkarrekin, garrantzi handiko pastoral-idazkiak eman dituzte argitara, Euskal Herriko arazo sozio-politikoei buruz (ikus Jose Antonio Pagola, «*Una ética para la paz. Los Obispos del País Vasco 1968-1992*», Ed. Idatz, Donostia 1993). Horien artean azpimarratzekoa da, 1981eko otsailaren 23ko Estatu-kolpe huts egindakoaren ondoren idatzitakoa: «Pakea salbatzeko, salba askatasuna».

#### TEOLOGIA

Bokazioen krisiak seminarioen ahultasuna ekarri du berekin. Horrek gure elizbarrutietako seminarioen arteko harremanak estutu beharra eragin du (erretoreen arteko batzarrak), eta irakasleen arteko era askotako elkarlanari bideak ireki dizkio. Bestalde, Gasteizko Teologi Fakultateak eskaintzen dituen teologi berrikuntzarako ikastaroak, eta Donostia eta Bilboko Teologi eta Pastoral Ikastetxeek ematen dituztenak, garrantzi handiko lana ari dira egiten apaizen teologi eta pastoral-alorreko berrikuntzan. A. Arrupek bazuen gogoia eta egin zituen ahaleginak Deustuko eta Gasteizko Fakultateak bateratzeko. Baina

oraindik ez da hori lortu. 1990.eko otsailean bi fakultate horiek Teologi Biltzar bat eratu zuten, «*Cambios socio-culturales en el País Vasco y fe cristiana*» gaiaren inguruan, baina geroztik ez du jarraipenik izan. Bestalde, euskaraz egindako teologiak ez du garapenik izan.

#### PASTORAL EGITURAKETA

Elizbarruti guztietan sortu eta bideratuak izan dira, Vatikanoko II.ak eskatutako pastoral-egiturak: Apaiz Batzordea eta Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua. Iruñea-Tutera, Baiona, Bilbo eta Gasteizko elizbarrutietan Sinodoak egin dira pastoralgintza eraberritzeko asmoz. Donostian, ordea, beste bide bat hartu nahi izan da; 1980az geroztik Elizbarrutiko Batzarrak egin dira, pastoralgintzako hari nagusiak eta helburuak finkatzeko. Horrela, elizbarruti guztiek beren Pastoral Kontseiluek onartutako pastoral egitarauaren bidetik ari dira lanean.

#### PASTORAL GOGOETA

Egia da apaizen sekularizazioak ondorio nabarmenak izan dituela; baina aitortu beharra dago, apaizek eta erlijiosoek ahalgin handiak egin dituztela pastoralgintza eraberritzeko. Elizbarruti arteko harremanei dagokienez, Loiolan (1975ean) eta Be-goñan (1976an) egindako elizbarruti arteko Pastoral Jardunaldiak gogoratu behar ditugu, eta urtero egin ohi diren Artzipresteen Elizbarruti arteko Topaketak. Garrantzi handiko kontua da Euskal Herriko Erlijiosoen Buruzagi Nagusien Elkartearen sortu izana, eta 1977az geroztik urtero egin ohi diren gotzainen eta buruzagi nagusi horien arteko topaketak. Pastoral gogoeta honek guztiak pastoralgintza ebanjelizatzaileagoa bultzatu du.

#### LAIKOAK

Urte hauetan zehar Elizaren jardueran eta bizitzan laikoen parte hartzea nabarmenki hazi da. Laikoak dira pastoral-alor

desberdinak suspertu eta bultzatzen dituztenak (katekesia, liturgia, karitate-pastoralta). Parrokia askotan eratuak izan diren Pastoral Kontseiluei esker, partehartze arduratsuagoa izan dezakete kristau-elkarteen bizitzan. Aldi berean, aitortu beharra dago apostolutzako mugimenduen krisi gogorra nabari dela, eta sozial alorrean eta gizarte-bizitzan kristauek duten jarduera ere oso eskasa dela.

## LITURGIA

Kontzilioaz geroztik, elizbarruti arteko itzulpen-talde bat eratu zen, Baionako elizbarrutia barne, liturgi testuak euskaratzeko. Lan honen ondorio izan dira hainbat argitalpen gure parrokia eta erlijioso-erlijiosa elkarteetan liturgia euskaraz ospatu ahal izateko, hala nola: *Orduen Liturgia* (1977) eta *Orduen Liturgia -ko Doituak* (1980), *Irakurgaiak* (1978), *Meza Liburua* (1984), *Bataioa* (1970), *Hiletak* (1974), printzipalena aipatzearen. Une honetan *Ezkontza* eta *Hiletak* (argitalpen eraberritua) prestatzen ari dira. Lan handia egin da liturgiarako kantutegiaren berrikuntzan ere, bai herriarentzat, bai abesbatzentzat. Eta zerbitzu estimagarria eskaintzen da *Mintzo eta kantu* aldizkariaren bidez, iganderoko Mezarako lagungarriak eskainiz.

Eliza Katolikoko eta Protestanteetako kristauen lankidetzaz eta euskal elizbarrutien laguntzaz argitaratu da *Elizen Arteko Biblia* (1994); eta oraintsu hirueledun *Itun Berria: grekoa, latina, euskara* (1996). Itzulpen-alorrean egindako lan hau kontzilio ondorengo ekintzarik baliotsuenetakoa jo genezake, zalantzarik gabe, eta Elizak euskal kulturaren mesedetan egindako ekarpenik garrantzitsuenetakoa.

## KATEKESIA

Urteotan haurren katekesi-alorrean hobekuntza handia nabari da (katekesi-hezitzaileen prestaera, testuak, metodologia). Espainiako Gotzainen Batzarrak elizbarruti guztietarako prestatutako oinarrizko kristau-ikasbideak eta gure elizbarru-

tietako katekesi-idazkaritzek ontolatutako testuak euskarara itzuliak eta argitara emanak izan dira. Garapen handia ezagutu du, Sendotzaren inguruan gazteekin egindako fede-hezierak e re. Gai honi buruz, elizbarruti arteko topaketa egin zen Arantzazun (1990). Helduen katekesia bera eta laikoen kristau-heziera hedatzen eta indartzen doa (Teologi Eskolak, Guraso Eskolak, etab.). Azken urteotan arreta berezia jartzen ari zaio ezkontzako eta famili pastoraltzari.

Elizbarrutietako Idazkaritza Sozialen jarduera garrantzi handikoa izan da urteotan; elkarrekin antolatutako urteroko argitalpen-egitasmoak dituzte sozio-politika alorreko gaiei buruz.

#### KARITATE PASTORALTZA

Garapen handia izan du Caritas-en ekintzak; garrantzi handiko egitasmoak bideratu dituzte langabetuei laguntzeko, eta behar-egoera berrietan aurkitzen direnentzat (etxerik gabeko, ama ezkongabe, tratu txarrak jasandako emakume, zahar bakarti) zerbitzu berriak sortu dituzte horrelakoentzat. Garapen handia izan dute osasun-pastoraltzak eta espetxe-pastoraltzak e re (une honetan elizbarruti arteko argibide-arauak prestatzen ari dira). Elizbarruti guztietan antolatua dago «Gizakia Helburu» izeneko droga-menpetasunean daudenei laguntzeko programa; eta egoitzak sortu dira senitartekoen laguntzarik gabe dauden HIESaren menpekoentzat (Donostian, Bilbon).

#### EKONOMIA

Gure elizbarruti guztietan ekonomia egituratzekoan hiru irizpide erabili dira, batez ere: apaizen soldataren berdintasuna, parroki arteko solidaritza eta autofinantzaketak.

#### ETB-KO PROGRAMA ERLIJIOSOAK

ETB martxan jarri zenez geroztik, igandero *Meza Santua* eskaintzen da euskaraz gure elizbarrutietako parrokiaren bate-



tik, Baiona barne. Bada kristau-gogoeta labur bat ere astero ematen dena. Nolanahi ere, aitortu beharra dago, behar bezala prestaturiko pertsonen falta sumatzen dela, beste programa batzuez arduratu ahal izateko.

#### GURE ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK

Bokazioak gutxitu egin badira ere, Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiek aurrera jarraitzen dute 1948an beren gain hartutako erantzukizunarekin. Misio-ekintza hau hedatzen joan da urteotan Hego Amerikako lurraldeetan (Ekuador, Venezuela, Brasil, Txile) eta Afrikakoetan (Angola, Ruanda, Zaire).

## MAIXUX REKALDE

Kontzilio ondoren igaro diren 30 hamar urte hauetan eliza katolikoak ahalegin handiak egin ditu, nire iritziz, Euskal Herrian, bere izaera gaurko gizarteari egokitzeko asmotan. Hori egia da, baina asmo horiek gauzatzerakoan motz geratu dela uste dut, zenbait arlotan hutsuneak aise nabarmentzen direlarik.

Vatikanoko II. kontzilio aurretik Juan XXIII Aita Santuak zioen «Elizan haize berria sartzeko leihoa ireki» behar zela, eta horren eraginez eratu zuen aipatu Kontzilioa. Euskal Herriko Elizak leihoa ireki zuen baina etorkizunaren beldur edota «berritasun» hori handiegia, jasanezina, arriskugarria izango zela-koan, leihoa erdi irekia geratu da. Alde ederra dago leihoa zabal-zabal ireki edo erdiska egitea eta, esango nuke, zenbait arlotan zirrikitu bat besterik ez dela ireki.

Kontzilioak beste gauza eder askoren artean bi gai oso garrantzitsu aztertu eta erabaki zituen:

- «Eliza Jaungoikoaren herria da», eta
- «Eliza gizartearen zerbitzurako sortua da».

Jaungoikoaren herria dela aitortzerakoan Eliza bataiatu guztiok eratzen dugula esan nahi du eta, horren ondorioz, se-

kularrak ere partaide biziak garela; beraz, gure ardua hartu behar dugula, zama handiagoa datorkigula baina, era berean, hierarkiak ere aintzakotzat hartu behar gaituela.

Urrats asko eman dira arlo honetan, hala nola, Elizbarrutiko eta Parrokietako Pastoral Kontseiluak eratuz, haurren, gazteen eta helduen katekesiak sendotuz, finantza-arlorako eta liturgiarako taldeak sortuz, gaixo, espetxeratu eta behartsuei laguntza emateko erakundeak bultzatuz... Baina oraindik orientabideak goitik behera datoz zuzenean, ez dira ia kontuan hartzen taldeetan sortzen diren iritziak eta, are gutxiago, emakumezkoen iritziak baldin badira. Hemen azpimarratu nahi nuke zein baztertua aurkitzen den emakumea Elizaren erabakiak hartzeko mailetan, eta hori lehen aipatutako erakunde horietan partehartzaile gehienak —eta oso nabarmen— emakumeak izanik.

Orokorrean, haurrak bezala tratatzen gaituzten sentimendu bizia eta zabala dago emakumeengan.

Arlo honetan hutsunea bi aldeetakoa dela deritzot: bate-tik, kontuan hartzen ez gaituztelako eta bestetik, sekularrok ere behar adina arduratzen ez garelako. Lankidetzak sakona eta partekatua eskatzen du honek, batak besteari entzun eta Izpiritu Santuak indarra eta argia denongan zabaltzen duelako egian oinarritua.

«Eliza gizartearen zerbitzurako sortua da». Nire iritziz honek eskatzen du *gaurko* gizarteari egokitu behar diola bere zerbitzua eta horretarako, lehenengoz eta behin, *gizartea* ongi ezagutu eta barruan dituen baloreak aurkitu behar dituela.

Urte gutxitan gure gizartea asko aldatu da, gizarte anitza da gaurkoa eta askotan gure Elizbarrutiak bere joeretan lehengo «kristiandade»-gizarteko erakundeetan jarraitzen du. Nola, bestela, ulertu jendea parrokietara erakartzeko ahalegin horiek? Ez al litzateke egokiagoa izango Eliza gizartera gehiago hurbiltzea eta zabaltzea?

Horrek ahalegin handiagoa eskatzen du; zailagoa da, gauza berriak martxan jarri behar direlako eta arriskua ere barruan

daramatelako. Askoz ere errazagoa da lehengoan, «beti horrela egin da» horretan, jarraitzea.

Kristauok, orokorran, joera honetan hezituak izan garen ez gara gizarteak sortzen dituen erakundeetan murgiltzen eta hor, barrutik, kristau baloreekin jokutzen. Beldurrez edota ausardia ezaren ondorioz, kristau erakundeetan bakarrik biltzen gara gehienetan eta «paraleloki» bezala aurrera egiten dugu baina ez gizartean «txertaturik». Horrela, egun, gure elizetan haurrak edota adineko gizakiak ikusten ditugu, gazteak oso gutxi. Eta nik uste dut esanahi handiko konstatazioa dela hau.

Kristau-heziketaren barruan gizartea gehiago ezagutu eta ikertu behar genuke bere baloreak eta elementu ezkorrak zein diren bereizteko. Honek hain beharrezkoa zaigun zentzu kritikoa garatzen lagunduko liguke eta ez genituzke txartzat joko gizarteak dituen hainbat elementu. Eta zentzu kritikoa gizartearekiko bakarrik ez, Elizarekiko ere bai, horrela ikasiko genuke nondik jo beharko genukeen, zein bidek balio ez diguten, eta abar. Gaur egun behar-beharrezko tresna dugu hau gizartean kristau-mezua zabaltzeko eta biziarazteko.

Oinarrizko kristau elkarteak sortzeko ahalegin handia egin da baina bide luzea egin beharra dago oraindik; agian lege psikologikoak gehiago kontuan hartu beharko lirerateke, zeinen nola elkarte egin elkar ezagutu ere egiten ez badira kristauak?

Euskara-munduan eman diren aurrerapausoak aipatu nahi ditut: Itun Berria aspalditik eta Biblia osoa ere argitaratzea, Elizbarrutiak duen Idatz argitaletxea eta eliz ospakizunetarako liburu guztien itzulpenak osatzea. Hemen azpimarragarria da Hego eta Iparraldeko elizbarrutiek elkarrekin lan egiten dutela. Kontraesan handia dago, ordea, eguneroko bizitzan eta idazki lanetan, euskararen erabilerari bagagozkio, erdara baita nagusi. Adibide bezala hor dago hilerok argitaratzen den aldizkari nagusia.

Euskal Herriko Hegoaldean elizbarrutiarteko pastoral ekin-tza eraman da urte askotan baina oraindik ez da Probintzia Eklesiatikoa izendatzea lortu. Ulerkaitza egiten zaio kristau askori, eta «noiz arte?» ezpainetan ibiltzen den galdera da. Elizak

ere bere erakundeak martxan jartzeko Estatuak dituen administrazio-erakunde berberak jarraitu behar al ditu? Noiz askatu eta atera morrontza horretatik? Azken urte hauetan zalantza hori areagotu egin da kanpotik ekarri baitituzte hiru elizbarrutiko gotzainak.

Dena dela, hemen deskribatzen saiatu naizen egoera honek zera azaltzen digu: Eliza bizi-bizirik dagoela; nola bestela konturatu gauza horietaz? Honen guztiaren oinarrian zera dago: Jesusen Izpirituari leialago jarraitu nahia. Hark ekarri zizun salbazio-bideari atxikitzea eta Haren mezua gaurko gizartearen beharrei egokitzea.

Jakina, honek berehala planteatzen du ez dela gehiengoen eliza izango; kristauok gutxiago izango garela eta «kristiandadeko» erakundeak pixkanaka-pixkanaka desagertzen joango direla gaurko gizarteak behar dituen erakundeak sortuz. Ez da gehiago Eliza gizartean nagusi izango. Era berean, Jesusek gehien maite zituen behartsuen zerbitzuan emango du Elizak bere bizia, horien aldeko aukera egingo duelarik behartsuak eta xumeak izan baitziren Jesusek, bereziki eta gehien, maite izan zituenak.

## JULEN URKIZA

Nekez erantzun diezaiokegu bi orrialdetan galdera honi, gauza asko eta arlo guztiz ezberdinetakoak jakitea eskatzen baitu. Lerro gutxitan erantzuteak behar den bezala ez baloratze-ko arriskua dakar; alde on eta txar guztia bi orrialdetan kontatzea bi ikuspegiak parez pare jartzea dela dirudi, eta hau, gehienetan, edo ia beti, historikoki ez da zuzena izaten edota osorik manipulaturia izaten da. Hala ere, *Jakin* aldizkariaren eskabidea aintzat hartuz, zenbait pentsamendu adieraziko ditut, ez arlo guztiei buruz, batzuei buruz baizik.

Kontzilioak (1962-1965), eliz eta gizarte-gertakari hain garrantzitsua izanik, inor ere ez zuen axolagabe utzi: haren dokumentu ugariak, Elizaren bizitza eta doktrinaren hainbeste gai hartzen zituztela, nahitanahiez ukitu behar kristaurik gehienei.

Ongi datorkigu gogoratzea Espainiako apezpikuak, ezaguna denez, noraezean eta ia jokoz kanpo bezala egon zirela kontzilioaren hasieran. Baina apaiz sekular eta erregularrek eta kristau-herriak orokorki izan zuten bultzada fresko eta berritzaileak ekarri zuen, Euskal Herrian zehazki, kontzilioko orientabideak, ez kultura alemanekoak bezala bizkor aplikatzea, baptateko jauzi gogorrak egitea baizik; horrek, beste nazio batzuetan baino alde positibo eta negatibo gehiago izan zirela hemen esan nahi du.

Eta Jainkoaren Herriari bere kristau-bizitzan lehenen bizitzea egokitu zitzaiona liturgia izan zen: aldakuntza izugarria gertatu zen hor; klero sekular eta erregularren ekintza bizia eta handia izan zen kontzilioaren lehen dokumentu oso garrantzitsua izan zen *Constitutio de sacra Liturgia*-ren (1963.XII.4) aplikazioan. Kristau-komunitatearen bizitzan liturgiak iraulketa garrantzitsua ekarri zuen: bizitza gehiago, Jainkoaren Hitzetik hurbilago, herriaren parte hartze handiagoa eskatzen eta exigitzen zen. Eta hau nahiko ondo egin zen, bizitasunez. Batzuek orduan eta orain ere penaz gogoratu arren, esaterako, kultura- eta musika-arloa, eta benetan galera batzuk tamalgarriak izan arren, alde positiboa askoz ere handiagoa izan da liturgian kristau-komunitatearen bizitzari dagokionez. Ez dugu ahaztu behar kontzilioaren azken dokumentuak, hau da, *Gaudium et spes* izeneko dokumentu pastoralak (1965.XII.7) izan zuen eragina ere.

Kontzilio osteko lehenengo urteetan, kontzilioaren mugimenduak esan nahi zuenari buruz, nahaste pixka bat ere izan zen, eta hainbat oker gertatu ziren, bai kultura eta liturgiari begira eta baita pastoral arloari begira ere, esaterako, irudiak baztertzea: une hartako ekintza berritzailearen eraginez, aurreko liturgi formak eta artea desegin ziren ganoragabe eta etorkizunaren zentzurik gabe. Era berean, laikoen apostolutza-talde batzuk, parrokietan eta erlijiosoen elizetan kristau-ekintzan esanguratsuak zirenak, galdu ziren; hauek, besteak beste: Katoliko-ekintza, Luistarrak, Mariaren Legioa eta erlijioso-ordenetako hirugarren ordenako mugimendu ugari eta sendoak. Nolabaiteko nahastea zegoen lehen urte haietan desegin ziren talde horiek, beharbada, haien garrantzi handiaz konturatu gabe eta

desegite horren ondorio kaltegarriekin jabetu gabe. Eta hori guztiori hainbat okerrago gertatu zen, mugimendu horien orde ez baitzen haien galera arintzeko edo haiek hobetzeko berririk ezer sortu. Geroago, azken hamabost urteetan sortu dira zenbait talde, batez ere haur eta gazteen artean parroketan egin izan den katekesi lanaren inguruan.

Benetan gauza positibotzat hartu behar da parroketako zuzendaritzan laikoen parte hartzea eta ekintza.

Kontzilio osteko 30 urteotan izan dugun liturgi garapenari buruz nire iritzia hau da: kristau-herriaren erantzuna berritze eta egokitze honi dagokionez, ona izan zela eta ona dela; uste izan zitekeena baino hobea, batez ere berritze guztiaren eragileen artean gehienak pertsona helduak zirela kontuan hartzen badugu. Baina era berean esan daiteke ez dela aurreratu *gazteriaren* parte hartzea kontzilio aurrean bezain zabala izan balitz aurreratuko zen adina. Liturgi ekintzak garapen-aukera handiak eskaintzen ditu, oinarria bizitzan bertan duelako, kristau-kumunitateko pertsonen bizitasunean.

Liturgi ekintza honi dagokionez, aipatzekoa da kristau-herriarekiko hurbiltasuna, hain zuzen ere euskararen erabileragatik: liturgiako erabiltze ugaria, liturgi liburuen eta katekesi liburuen argitalpenak etab. euskararen onerako laguntza handia izan dira; Euskal Herrian gaur egun jendaurrean eta egunero egiten den euskararen erabilerarik ugariena hauxe dela esan go genuke. Honi loturik, uste dut, gazteriaren zati handi bat parte bizi bezala Elizatik urruntzeak harentzat defizita ekarri duela eta euskararentzat berarentzat kalte handia. Eta hau guztia euskararen garapen eta salbatzeari begira diot soilik. Zenbait taldek eraginda gertatu den gazteriaren urruntze eta, areago, Elizak arikiko haustura hau, huts historiko larria izan da.

Euskaldunen lan pastoralaren barruan, misio-ekintzari dagokionez ere egin genezake balantze bat: Euskal Elizak, eta batez ere klero erregularrak, une distiratsuak izan ditu XVI-XVII. mendeetan eta XIX.aren amaieran eta XX.aren hasieran. Kontzilio osteko lehenengo urteetan misio-arloan ere izan zen nahaste pixka bat. Hala ere, hainbat erlijiosok nahiz apaiz diozesia-

rek eta baita laikok euren burua dohainik eskainita, horretan egindako lana ikusirik, balantze oso ona ematen digula esan behar. Azken aldi honetan ekintza horrek pixka bat behera egin du, pertsona gazteen hutsuneagatik batez ere.

Alde batetik pastoral eta liturgi gaiari loturik eta bestetik euskararen erabilera eta honek herrian izan duen eraginari loturik, argitalpenen balantze txiki bat egin nahi nuke. Antzina, eza-guna denez, gai erlijiosoak erabiltzen zituzten liburuak, eta beste gai batzuetakoak, apaiz eta erlijiosoek idatziak ziren nagusi. Gaur egun gizarteko beste talde batzuetakoek ere liburu-gintzari eman diote era askotako gaiak jorratuz. Kontzilio ostean, liburu erlijiosoak argitaratzen jarraitu izan da; 1963-1994 urteetan 440 liburu argitaratu dira euskaraz; kopuruari dagokionez, liturgi arloko argitalpenetan egin zen ahalegina go-goan izan beharra dago 1964-1970 bitartean (45 liburu gutxi gora-behera) eta 1982-1987 bitartean (37 liburu gutxi gora-behera). Hauen artean bi liturgi liburu nagusiak azpimarratu behar: *Meza-liburua* eta *Irakurgaien liburua*. Eta katekesi-arlokoak, batez ere katekesiko testuak: 1974-1979 urteetan (40 liburu-edo) eta 1982-1988 bitartean (73 liburu gutxi gora-behera). Azken sei urteotan, euskaraz argitaratutako erlijio-liburuei dagokienez, kopuruak behera egin du eta horrek alde horretatik balantze negatiboa ematen digu. Dena dela ia gauza normala dirudi, liturgi eta katekesi-arloan zen hutsunea aurreko urteetan betez joan baitzen; baina, hala ere, arlo horretan aurrera egin beharra guztiz nabaria da. Beste aldetik, argitalpen batzuen kalitatea aurreko garaietakoena baino askoz ere handiagoa da. Azken bi urteetako adibideak jarriko ditut soilik, 1994-1995. urteetakoak: *Elizen arteko Biblia*, *Itun Berrira. Grekoa-Latina-Euskara*, Jaime Kerexetak Bibliako liburuen argitalpenetan egin duen lan handiaren jarraipen ederra izanik, eta *Elizaren Historia Euskal Herrian*, euskaraz Elizaren historiari buruz ikerketa-arlo eta estilo berri bat ireki duelarik, etab. Liburu hauek, euren kalitate handiagatik ongi betetzen dute kopuruz izan dugun hutsunea edo gutxitzea. Bibliako testuen argitalpenekin batera Bibliaren iruzkin edo komentarioak argitaratu dira, gutxi izan arren, lehendik ezer ez zegoelako esanguratsuenak direnak.

# GUNEN GURPILEAN

---

JOXERRA GARZIA

GURPILAREN ZOROA  
HEDABIDEAK (EUSKAL) KULTURAN  
BI BEGIRATU ZORROTZ  
LAPURRETA INTELEKTUALA  
EUSKAL KULTURA HEDABIDEETAN  
AUSPOA, GUGGENHEIM, KURSAALA

IÑIGO ARANBARRI

ARPOIAREN TRABESA  
TRADIZIOAREN AUSPOAK  
LAU ESKUTARA

IMANOL AGIRRE

8 URTE, 7 HILABETE ETA 6 EGUN  
AMA TIERRA  
ZELULOIDEA BARRA-BARRA  
KALE EGIN BARIK  
25 URTE KONTRABANDOAN  
LIVE IN CARMEN

LONTXO OIHARTZABAL

EUSKARAZ GAUZATZEN DEN UNIBERTSITATEA  
UNIBERTSITATE BAKAR BATEAN BI UNIBERTSITATE?  
ERREKTOREORDETZAK ETA SAILAK

KIKE AMONARRIZ

EZKORTASUNA  
ZE ARRAROA EUSKARARIK GABE NAFARROA  
HIZKUNTZ ESKUBIDEAK  
ATOMOTIK UNIBERTSORA



KULTURA  
LITERATURA  
IKUSKIZUNAK  
UNIBERTSITATEA  
SOZIOLINGUISTIKA

## KULTURA

---

JOXERRA GARZIA

### GURPILAREN ZOROA

Kulturaren lapikoan egosten diren gaiei erreparatu behar izaten zaie *Jakin*-erako kronikatxo hauek osatu ahal izateko. Pentsan irakurriak eta irrati-telebistaz entzundakoak izan ohi dira hemen azalduko hamarretik bederatzi. Gure sailaren izenburuak agintzen digu egunen gurpilean ibiltzeko, eta gu —ni behintzat— horretan ahalegintzen gara, hil ala bizi, ez baita munduan inortxo ere izanen, euskal kulturgilea bezain —onerako ala txarrerako— esaneko zintzo eta leialik. Egunerokotasunak ezartzen dizkigun gai horiei geure ukitutxo ematera mugatzen da, beraz, gure originaltasuna, horrelakorik inoiz lortzen badugu, behintzat. Liluraturik bezala gertatzen gara gurpil zoro horri begira, begiak inola ere alden

ezinik bertatik, txoria —Atxagari sinisterra— sugearen begiradapean geratu ohi den bezala. Ondorioz, sugeak ezartzen du agenda. Hark erabakitzen du zertaz hitz egin eta —batez ere— zer isildu. Gaur egungo kazetaritzari egozten diogun gaitzik gaitzenezakoa hori izanik, ez ote gabilta gu geu ere horretaz kutsaturik?

Autoan denbora luzeegiz gidatzen ibiliari ere halaxe gertatzen zaio batzuetan, begiak kliskatu ezin, eta begirada errepidearen puntu zehaztezin batean iltzatzen zaiola. Ikusi, ordea, deus gutxi ikusten da horrelakoetan. Nondik edo handik kemena bildu eta burua gogor astintzea izaten da liluramendua hausteko modu bakarra.

Irakurle maltzurak honezkero susmatuko zuenez, gaurko honetan hedabideez hitz egiteko asmoa neukan, nola edo hala zuritu beharra. Zuriketa-lanak gora-behera, egia esan, eguna joan eta eguna etorri ez dut topatzen ezer berririk prentsan, irratan eta telebistan. Kaleidoskopioekin gertatzen den bezala, jira-biraka dabilela kolore bakarreko irudi du. Gelditu arte ez zaizkigu koloreak banan-banan bistaraten.

Geldi arazi dezagun, bada, behingoz, gurpila. Burua astindu, eta hitz egin dezagun, besterik ezean, sugaez. Eta begiradez. □

#### HEDABIDEAK (EUSKAL) KULTURAN

Ez dakit telebista-katea frantses eta espainolek kulturgintzan diharduten. Zehazkiago: ez dakit telebista egitea, besterik gabe, kulturgintza ote den Frantzian edo Espainian. Baina gaur eta hemen, ETB-1, besterik gabe, kulturgintza da. Eta *Euskaldunon Egunkaria*, eta *Argia*, eta herrietako aldizkari euskaraz dihardutenak, eta Euskadi Irratia.

Horregatik esan liteke, erratzeko beldur handirik gabe, maiatzaren amaieran Donostian egin ziren Euskalkom jardunaldiak kulturgintzaz izan zirela. Eta horregatik da harrigarria bertan euskal kultura ofizialaren arduradunik ez azaltzea, Xabier Huizi jauna salbu. Gonbidaturik egonik ez agertzea, berriz, susmagarria da guztiz. Ohiko eta betiko euskararen militantez gainera, han azaldu ziren, beren ikuspegia ematera, Radio

Euskadi, *Deia*, *Egin*, Herri Irratia, eta baita *Diario Vasco* eta *Correo*-ko ordezkariak ere. Eta horiek agertzen diren foruma zergatik zaio susmagarri Kultura Saileko jendeari? Nola iritsi gara mundu ofizialaren eta ezofizialaren arteko inkomunikazio—edo alde batetik komunikatu nahi ez— honetara?

Euskalgintza ezofizialaren ordezkariak ziren Euskalkom-eko partaide gehienak. Luis Fernandez, *Egunkaria*-ko kazetari eta idazle trebeak (derrigorrez irakurtzekoa da bere «Kontaktua» ipuina) azaldu zuen, modu ezinago ikusgarrian, euskarazko kazetariaren bizimodu eskas eta petrala. Modu literarioan, nik uste, nahiz berak bere txostenean literaturarik ez zegoela erantzun zidan. Literaturak ez al du balio errealitatea errealago egiteko ere?

Alderdi pertsonalak alde batera utzirik, interesgarria izan zen Siadecoren ekarria ere, euskarazko produktuen kontsumitzaileak kuantifikatze aldera. Diru-eskasiaren kausaz ikerketa hogeita hiru urte bitarteko euskaldunetara mugatu behar izan bada ere, datu jakingarriak plazaratu zituen Kike Amonarrizen aldakari zientifikoak. Labur esanik, 9.000 lagun omen dira euskarazko produktuen kontsumitzaile petoak. Pentsatzekoa da horien bizkar doazela, gehienbat, euskarazko kulturagintzaren zehar-zerga gehienak. Euskarazko produktuen nola-halako kontsumitzaileak, berriz, 40.000 inguru dirateke, Siadecoren azterketaren arabera. Euskarazko kulturagintzak derrigorrezkoa du nola-halako kontsumitzaile horiek kontsumitzaile peto bihurtzeko estrategia egokiak asmatzea.

Euskararen merkatua nola sendotu eta zabaldu: hori da, eta ez kulturarako geratzen diren diru-apurren banaketa-kontuak, erakundeen eta kultur eragileen artean lehen bait lehen eztabaidatu behar litzatekeena. □

#### BI BEGIRATU ZORROTZ

Jon Sarasua da, dudarik gabe, 9.000 euskara-kontsumitzaile horietako bat. Kontsumitzaile eta ekoizle, euskal gune horretako asko eta asko bezala. Eta ez hori bakarrik: kontsumitzaile,

ekoizle eta baita, ahal den moduan distantzia apur bat hartuz, guztiaren ikerle ere.

Maiatzaren 17an aurkeztu zuen Sarasuak bere tesi doktora-la, Leioan. Gutxienekoa iruditzen zait lortu zuen nota laudetsua. Horrelakoetan ohi den tentsioa desegin, eta kultur ekitaldi ohiko, normal, arrunt baten giroa sortzea lortu zuen Jonek bere tesi-irakurketan. Ez da gutxi. Garrantzitsuago, ordea, tesia bera dela uste dut. Egiten diren asko eta asko ez bezala, *zentzuz* beteriko tesia egin baitu Sarasuak. Metodologiaren alde-tik kritikaren bat egin ahal izango zaio, baina garbi dago tesiak helburu garbi bat daukala: euskarazko kazetagintzaren arazo larrienetako bat bere osotasunean azaldu eta konponbidean jar-tzea. Tesiaren beraren arazoa konpontzea beste xede jakinik ga-beko hainbeste tesi egiten den garaian estimatzekoa da hori. Estimatzekoa, orobat, metodologiakeriatik bezala kuantofrenia-tik ere urruti ibiltzea. «Bi begiratu euskarazko kazetaritzaren estiloari», horixe du tesiak izenburu, eta izenburutik beretik an-tzematen zaio edukinean ezezik forman ere bide berriak urratze-ko borondatea. Ausart jokatu du, oraingo honetan ere, Jonek, nahiz Joxe Azurmendi epaimahaikideak ausartago jokatu iza-na estimatuko omen zion.

Esan dezadan, honetara ezkerro, harrigarria dela zeinen zai-la zaien unibertsitateari bere ikerketen emaitzak gizarteratzea. Arrazoi bila hasita, ikergaien eta iker-beharren arteko amildegia aipatu beharko da lehenik. Jakinduria eta azter-tresneria dauzkagun arazoetara egokitu beharrean, gure metodologiari egoki zaizkion arazo berriak sortu eta haientzako soluzio txu-kun bezain alferrikakoak asmatzeko joera onanistan galtzen ga-rra askotan, benetako arazoekin aski ez bagenu bezala. Cam-pus nagusia hiritik urrun egotea ere ez da lagungarri gertatzen. Eta norbaitek azaldu beharko du noizpait zer dela eta ez den metroaren bidez unibertsitatea metropolizatu nahi izan.□

#### LAPURRETA INTELEKTUALA

Dena ez da autismoa. Kulturgintzak gaur egun duen arazorik larrienararen inguruan jardunaldi interesgarriak egin dira

Leioan bertan, ekainean, «Ikusentzutekoak eta jabego intelektuala» izenburupean.

Aieka askotako arazo larria, zinez. Izenetik hasita, edozeri deitzen baitzaio gaur egun *jabego intelektuala*, edonori *egile*. Eta arazoa gaur egun larria izanik, are larriago izanen da urte gutxi barru, globaltasunaren profetek iragartzen dituzten informazioaren autopistetan edozeinek izango baitu, itxura denez, peajea kobratzeko eskubiderik, sortzaileak izan ezik. Baina hain urrutira gabe ere, Arralden bertan, ohartuko zinetenez, aspaldi ez da diruaren hotsa beste doinurik entzuten.

Arazoak, nolnahi ere, atal ziztrin hau baino leku zabalagoa merezi du, eta bego horrenbestez hurrengo baterako.□

#### EUSKAL KULTURA HEDABIDEETAN

Euskarazko hedabideak euskal kulturgintzaren ataltzat jo baditugu ere, ikus dezagun orain euskal kulturak zer toki daukan hedabideetan, erdarazko nahiz euskarazkoetan.

Erdarazkoei gagozkielarik, ez da erraz diagnosis egiten. Batetik, eta Euskalkom jardunaldietan besterik esan bazen ere, badirudi euskal mundua oro har halako bitxikeria moduan ikusten dutela, desagertzeaz dagoen espezieren bat bailitzen, eta nekez lortzen duela oihartzunik erdal hedabideetan, non eta istilu edo liskarren berri emateko ez bada, behintzat. Horrekin batera, ordea, aipagarria da erdal hedabideetan euskarazko kultur gaiak direla gehien islatzen direnak, kazetaritzaren ikuspegitik interes edo gaurkotasun handirik gabeak.

Interesgarriago deritzot, ordea, euskarazko komunikabideek kulturaren biko duten politika aztertzeari. Gaia ez da, egia esan, pare bat lerrotan ebazteko modukoa, baina oro har esan liteke kulturak —*strictu sensu*— hutsaren hurrengo presentzia duela hedabiderik indartsuenean, ETB-lean, alegia. Euskarazkoetan ezezik, gainerako mass-medieta ere aspaldian ez da, audientzien aitzakian, azalkeria eta hutsalkeria baizik ametitzen. Aditurik ezkorrenek diotenez, ezinbestekoa omen da hori, mediumak berak bere-berea duen dinamikaren ondorio

saihetsezina. H.M. Enzensbergerren azken lanak dira jarrera etsi horren lekuko. Euskarazko katearen programazio-arduradunen homologazio-konplexua sendatzen ez den bitartean berdin segitu beharko dugu, normal-itxura egitearren inoren subnormalkeriak txukun plagiatzeari beste harrokeriarik gabe.

Beti telebistari begira egon partez, ordea, hobe genuke esku-rago ditugun beste hedabide txikiagoetan kulturari ateak eta leihoak zabaltzen saiatzea. Gertueneko zaidan alorrera mugaturik, irriak bide ezin egokiagoa eskaintzen du literaturare n promoziorako. Euskal Idazleen Elkartetik bada horri ekiteko asmorik, oraingoz asmoak asmo huts diren arren.

Euskarazko kazetaritzaren erreferentzia nagusia izateko asmoz sortu ziren Andoaingo Rikardo Arregi sariketak aldaketa erabatekoa izan du aurtan. Prentsa idatzia —orain arte aintzat hartzen duen bakarra— ezezik, ikus-entzunezkoetara ere hedatu da. Oraindik goiz da ibilbide berriaz deus ere esateko, eta nahiago dut nire balorazioa hurrengo kronikarako uztea. □

#### AUSPOA, GUGGENHEIM, KURSAALA

K ronikatxo hau entregatzeko epea gainean dudala, egunen gurpilaren jira-birak lilurapean harrapatu nau berriro. Aitzaki hirukoitzez.

Bat. *Auspoaren Auspoa*, aita Zabalaren artikuluak biltzen dituen liburua aurkeztu da Koldo Mitxelenarenean. Aspertu gabe jardun liteke Zabalaren merituak laudatzen, merezi duen mailatik pasatzeko arriskurik gabe. Aurkezpen horretan, ordea, usain txarreko gauza asko izan ziren. Bat baino ez aipatzearren, ez Bertsozale Elkarteak, ez Imanol Lazkano, ez hari jakin batez kanpoko inor ez zen gonbidatu izan. Aldera bedi jokabide horri Bertsozale Elkartearenarekin, eta ikusiko da zein dabilen gerra piztu nahirik.

Bi. Bilbo autopistaz pasatzean, Guggenheim museumaren eraikina gero eta ederrago ageri da, ibai-ertzean, gotorki. Ozeanoarteko zenbat bidaia ez ote litekeen amets, itsasuntzi esker-garen brankari begira. 38.000 milioi pezeta izango omen dira,

denera, Ramon Zalloren kalkuluen arabera. Eta ez genuke deus ere esatekorik, baldin eta gure txintxorroak hondoratzeko zorian ez baleude, txukera triste bat erosteko ere dirurik ez dugularik.

Hiru. Kurssaalerako agindu baino diru gutxiago emango omen du Espainiako Ministerioak. Bestalde, Moneoren azken sariak balio erantsi bat eman dio Donostiako egitasmoari. Idazleen Elkartearen egoitza, oraingoz alokairuan daukaguna, orube horren pare-parean dago, Zurriola pasealekuan. Oraingoz, itsas bista ederra daukagu leihotik. Proiektua gauza dadinean, artean dohaneko egoitzarik lortu ez badugu behintzat, Moneoren kuboek izkutatuko digute itsasoa begien bistatik. Ez ahal da ezeren metafora izango!□

## LITERATURA

IÑIGO ARANBARRI

### ARPOIAREN TRABESA

Inazio Mujika Iraolak trabes gaitza du egina Agirre Asteasu-koaren arpoiaren kontu honekin. Eta honezkero ere hasi zaizkiolakoan nago belarri ertzerak kalakari eta gaizto, Orixeri bere garaian bezalaxe, «*Inazio, hik orain dela ehun urte bizi behar huen*»-ka. Alegia, ez duela zertan sofritu klasikoenganako zabar den aro honen alper-harria bere hezur-mamietan eta uzteko esku artean darabilen langintza eskertzarreko horri, hemen jendeak klasikoak maite, maite dituela, baina ez postura horretan.

Trabes, ispixo handia dute egina Inaziok eta Alberdaniak klasikoen kontu honekin, lehenago beste batzuek zertu bezala. Eta kostatuko zaie Hordago-~~ren~~bilduma beltza edota Labayrukoen andabide gorria berdintzen, baina behingoz hizkuntzalaritza bazter uztera eta klasikoen literaturaz gozatzera egindako deiak merezi du bederik ardo bat txoko honetan.

Azken batean hori baita berrikuntza: klasikoen literaturtasuna sare komertzial zibil batean aldarrikatzea. Eta honekin esan nahi da klasikoen betiko irakurketa filologiko-unibertsitarioaz gain badagoela, edo hobeto esanda, zerua irabazita duen Mujika sinestuta dagoela badela beste irakurketa bat, literaturzalearena, liburugintzaren txara lohian neurri batean era honetako edizioak —begietarik sartzen direla ez da gezurra— kontsumitzera eta ordaintzera datorrena.

Inazio Mujikaren trabesa, zer esango dizuet nik, gustatzen zait. Eta ez neure denboran klasikoak irakurtzen plazer larregirik ukan dudalako, baina Agirre ren arpoiaren edizioaren kariatara hark egin adierazpenetan bada etorkizunari ezeze gaur egungo narratibari egindako keinurik. Eta honelako ekarpenak ez dira eguneroko opil.

Urtetxoak dira, ez asko, borborrean zetorren itzulpengintzak narratibaren sormenean izan zitzakeen zain onuragarriez luze eta suelto hitz egiten hasi zela. Orain, honelako edizioen bitartez klasikoena ekarri nahi bide da. Jaurlaritzak eta Editoreen Elkarteak bultzatu Klasikoak saila agor-hurren delarik, ez da formula txarra klasikoan sail zibil bati honelako demaren bidez ematea segida.

Arpoilariaren sermoinen pasartean tasunak eta Biblian jasotzen diren istorioen literaturtasun une zoragarriak zenbaterainokoak diren berriz, ez nauzue hor harrapatuko. Lanbro-zirina ari du eta albistegietan, tertulietan, behin eta berriro eta aho-betean darie esatariei *tradizioa* hitza. Nahi gabe bezala, iraganari gorrotoa hartzen diozun egun horietakoa da sanmartzialen osteko lardatx hau.

Hala ere, bada arrazoirik Mujikaren trabesaren alde egoteko. Izenburu ondo literarioa du. □

#### TRADIZIOAREN AUSPOAK

*Auspoaren auspoa* izenez bataiatu ditu Antonio Zabalak bere idazlanak biltzen dituen liburuki biak. Ezin hobeto babetua, liburuen aurkezpena ezezik Auspoa bildumak egin bi-



dearen gorazarrea bilakatu zen Donostiako ekitaldia. Bertso-lari eta kontalariez gain izan zen bestelako babesik bertan. Iraganetik gaur egunera luzatu nahi zen bidea, eta horrela erakusteko —*ghetto* itxura haustetik hasita— egin ziren aha-lerinak ez ziren alferrikako suertatu. Ona marketina.

Auspoaz hitz egitea Azkue eta Barandiaranen ondoren ahozko literaturaz egindako bilketa-lanik nagusienaz hitz egitea da. Eta bilketa diogunean bildutako materialaren antolaketa, aukeraketa eta prestaketa diogu, beren lan eta osterantzeko *ke-ta* guztiekin. Bilketa ezezik sustrai beretsuak dituen sormen-lanen bilduma ere bada. Hori da Auspoa. Mundua ikusteko era bat. Itzuliko ez den denboraren tarratak. Sarritan euskalgin-tza modernoak bere azpian, ondoan edo gainean sentitu izan duen gizarte paraleloa. Lehen intsumitu-elkartea. Baina badoana beti, badoana.

Joatearenez da marketinaren barruan sartzen. Aita Zabalak berak berriki gaztigatua da nola Faustino Etxebarriaren liburuaren prestaketan testuaren batasuna izan zuten arazo nagusi. *Nire gazte denpora* liburu interesgarria zen, aberatsa iragana berregituratze horretan eta ondo, oso ondo idatzia. Baina bazuen koskarik: gipuzkoarkeria gehiegitxo bizkaitarra izateko.

Gipuzkerazko aditzak «bizkaieratzen» pasatutako orduak ondo gogoan izango dituzte biek seguruenik. Hala geratu zitzaizdan niri Zabalaren ahotik irakurri nuenean.

Pasadizoa ez du gehiegi harrotzea merezi, baina bada zer-baiten seinale. Nondik atera dituen Etxebarriak gipuzkera eta batuko aditzak eta moldeak ez da zail ikusten, bizi ere bizi behar baita norberaren esparrutik kanpokoekin. Baina etnoliteratura deitu den hori gero eta batuago badago ez da erraza samintasun zera hori ezabatzea esploratzailela jolasten den irakurlearen baitan. Hau badoa.

Baina beti ari da joaten, ez dakit ondo azaltzen dudan. Arazoa beste bat da. Gizarte paraleloa azaltzen denean ia elkarren berririk ez duten baina funtzioak ondo bananduta funtzionatzen duten bi munduz ari gara. Zaharrenak joan aurretik

edan behar du handik berriak, estandarrek. Hizkuntza globalizatzaile orotan gertatu beharreko egokitze-prozesu bat, nolabait deitzearren.

Horregatik uste dut bizkaieraren kasua eta Bidasoaz iparreako ez direla parekatzeko modukoak, ez tradizioaren honetan behintzat. Batean, estandarizazioaren barruan batez ere bertako idazleek egin beharreko indarrean dago giltza. Eta beti dira gutxi. Bestean, tradizio izugarri baten eta estandarizazio ez ondo ulertuaren artean dago egungo idazleen dema. Nafarrak zer? Beharbada ondoen asmatu dutenak.

Bien bitartean, Auspoatik datorren bidea gero eta gertuago-koa egiten ari zaio moderniarren euskaldunari. Eta iragana bertan da. □

#### LAU ESKUTARA

Hogeita hamar urte pasa Truman Capote-k Kansas-eko herri batean gertatu hilketen arrastoan hasi eta Olarrak maisuki itzuli zuen *Odol hotzean* idatzi zuela. Eleberri bat gehiago baldin eta kontatzen zen istorioa ez balitz horren baldintzatuta egon: benetako gertaera bat kontatzen zuen. «*Non fiction novel*» legez bataiatu zuen Capotek berak.

Aurrez egon zen antzerako ahaleginik, etiketarik gabe baina. Agian Rodolfo Walsh kazetari argentinarra da aipagarriena. *Operación masacre*-k 1956an militarrek Buenos Aires Handiko zabal malapartatu batean fusilaturiko zibilen pasioa eta heriotza dakartza literaturara. Ikerketa denez, denboraren eta ekintzen berregiketa zehatza nolana ere. Eta urrats berri bat: fikzioak ia zoko-mokorik ez duen narratiba-era.

Ez da fikzio-ezetik literaturara datorren adar bakarra ikerketara. Alde honetatik, euskal tradizioan errimeagoak izan gara gure mugetarik kanpo norberak bizi izandako gertaerak kontatzera, alegia, kronika-kutsu handiagoa duten lanei eustera. Europako Gerra Handian Iparraldeko kazetariak Ardenetako gerla-karrikarterik bertarik (bada berrikustea merezi duen terminogia militar osoa) Zerbitzarik, Saint-Pierrek edo Etxepare

mirikuak igorri kronikak gaur egunera arte luzatu den jeneroa a dugu. Eskola handia eman du Iparraldeko herri-prentsak, eta Aljeriako gerra bera ere (De Gaulle-ren *Aljeria frantsesa!* hura) ez zen ustekabeen igaro euskal irakurlegoarentzat.

Aldiz, hala uste dut, Hegoaldean gehiago landu da bidaien (bortxa gabeko kanporatzea esan beharko genuke?) jeneroa. Txina edota Palestinako misio-kronikei Anabitarte donostiarrek begirada interesgarri batekin eman zion jarraipena *Aprika-ko basamortuan* (1961) liburuarekin. Azken urteotan, euskal irakurleak aleka irakurri ditu euskaldunak erdal herrietan emandako denboraren berri ematen duten liburuak. Arretxek, Elexpurrak, Izagirrek, Ubedak abiaburua bera izanik —etxetik ateko urratsak—, azken emaitza arras bestelakoa izan daitekeela erakustera etorri dira.

Eta beroaldi honen erdian heldu da gure artera *Suetena Belfasten*, Imanol Muruak eta Humberto Unzuetak lau eskutara jotako pieza. Ezer gutxi dakit pianoan zernolako zailtasuna dakarren lau eskutara jotzeak, baina literaturan liburu honek suposatzen duen aurrerapausoa handia da zinez. Informazioa eta pasarte pertsonalagoak (eta beraz dramatizatuagoak: elkarrizketak eta) tartekatuz, kazetaritza eta literatura elkarren artean gozokiro nola uztartzen diren lekuko izango da irakurlea. Eta hor uste dut dagoela era honetako kroniken arrakastaren giltza. Ondo hartu dio neurria kontaktari Murua-Unzuetatik bikoteak, zintzotasun itxura eman diote gertaerei (ondo kontatua horregatik fikzioa bada!), eta ez dute honen leku emblematikoei ezinbestean zor zaien ironia ahaztu. Irlandan izan gabe sentitu naiz bertan, eta hori, kazetaritzari esker baino, literaturaren meritua delakoan nago.

Narratibaren bide hau ez litzateke posible izango euskal prentsak azken urteotan bizi izan duen sendotze-prozesurik gabe. Pianorako baino honelako lanetarako esku on asko ari da egiten egunero egunero erredakzioetako teklatueta. Hautatu lekuarekin eta tonuarekin asmatzea da, eta agian literaturara irakurle gehiago arrimatzeko amu ere izan daiteke kroniken hau. Baina auskalo.□

# IKUSKIZUNAK

---

IMANOL AGIRRE

8 URTE, 7 HILABETE ETA 6 EGUN

*Eremuko dunen atzetik* nahi baino denbora gehiago eman dugu Juan Carlos Perezen doinu barik. Abendu urruti batean (*elurretan*) jaitsi zituen Fadurako eskailerak eta ekain bero honetan (*Hau berua!*) gaintitu zituen Bilboko Kafe Antzokikoak (begi bistan da ezinbestekoa dugula Bilboko areto hau aipatzea ikuskizun antzindariak aztertzerakoan). Itoiz, Hertzainak eta Kortatu galdu genituenetik ez da izan berdin. Rock-aroaren belaunaldi hark arrastoa utzi baitzuen gure zainetan.

90eko hamarkada maldan behera doa. Euskal musikagintza-  
ren etengabeko bilakaera isladatu da estilo eta ikuslegoan. Juan Carlosen kontzertura lehengo Itoiz-zaleak abiatu ziren, gazte gutxi eta hogeita hamar udaberri aski beteriko ikusle franko, lagun zaharrarekin berriro topo egiteko. Baina ikusleak ez ziren lehengoak eta Juan Carlosek ez dauka zer ikusirik aurreko jarrerarekin. Oraingoan pianoan jarririk, gitarra ez du ia lepoan zintzilikatzen. Bandaren kideak ere berriak dira eta ohizko instrumentuez gain, vibraphonoa eta saxo-bikote bat nabarmatzen dira eszenatokian. Pop dotorearen eremuan koka daitekeen taldea da. Euskal Herrian esperientzia bakarra. Agian, horregatik, kontzertuaren hasieran hotza sentitu genuen. Ikusleak ez ziren proposamen berrian murgildu. Kontuan izan ekainean itsasoko ura ere hotz samar dagoela oraindino. Eszenaz bestaldean, Juan Carlosen ahotsa inoiz baino moldatuago aditu genuen, inoiz baino hobeto kantatzen baitu. Luxuko musikariak ditu aldamenen. Talde txikien gaurko joerei aurre eginez, behar duen sonoritatea eraman nahi du eszenara. Hau da, antzokietara, ez baitu kalean jo nahi.

Kontzertua labur gertatu zen, *berua* sentitzen hasiak ginenean amaiera eman zioten. Estraineko urratsa zen eta gehiagorik ezin zuten eskaini. Dena den, hemengo zenbait musikaririk

tauletan herabetiak dirudite. Sarriegi ez dira ausartzen emanaldiak biribiltzen. Musika-kontzertuak ikuskari oso bat balira bezala ulertu behar dira nire ustez. Argi eta soinuaz gain, hamaika ñabar dura zain daitezke. Soinuaren kalitateak Juan Carlosen eskuak lotu zituen eta jakin badakigu askoz gehiago emango duela denboraren poderioz.

«*Nik ez nuen aukeratu hemen jaiotzea baina nere amak esaten dit orduan inork ezin izan zuela aukeratu... eta hau dela nere herria*». Juan Carlosen lumaren adierazpen txiki honek «Ni ez naiz hemengoa» leloa dakarkigu gogora. Egia esan, *Atlantic River eta Hau berua!* lanen hitzak goi-mailakoak dira, iradokorrak eta irudiz gainezka. Itoizen surrealismoa alde batera utzita, esistentzialismoaren bidean abiatu da mutrikuarraren bidaiak. «*...Ihes egingo dugu urrutira Portugal gutxienez ...agian Berlin*». «*Non dago nere lurra, izenik ere ez dakidan lur hori, non dago nere lurra agian Caledonia, Harek dio. Agian zure begiradaren atzean nere zain dago*». □

## AMA TIERRA

Non dago euskal zinema? Munduko zinemagintzaren puntaren puntan kokatu dela ezin dugu ukatu. Horra hor Canneseko sail ofizialean proiektatu zen *Tierra* filmea. Halaber, Tokion, Montrealen, Madrilen... saritu egin dituztela euskal herritarrek buruturiko zenbait filme azken sei urteotan. Euskal zinema zeruan dagoen bitartean euskaldun zinema amildegian desageratu zen. Gogoratu bestela, 1968an, *Ama Lurra*, Basterretxea eta Larrukerten filme ederra, pantailan agertu zen une magikoa. Euskarak gaingitu zuen garaiko zentsuraren muga eta euskal zinemaren ikurtzat izan genuen urteetan zehar. Xedea argi eta garbi Euskal Herriko sustraiekin bat egitea zen. Gaurko euskal gizarte modernoak ez ditu sasoi hartako premiak eta horregatik *Ama Lurra Tierra* bilakatu zaigu.

Julio Medem donostiarraren zinta bikaina da eta zinez ez du lotsarik izan behar munduko zinemagintzaren onenarekin batera ibiltzeko. Alabaina, nire kezka ez dago kanpoan nire bai-

tan baizik. Euskal zineak goia jo duela ez dut zalantzan jartzen. Baina zer nolako euskal zinea? Gaztelaniaz pentsaturiko lanak eta askotan Espainiari begira eginikoak, euskaldun gizarte-ari bizkarra emanez.

Julio Medemen kasua, berriz, oso berezia da. Juan Carlos Pereren azken emaitzekin pareka daiteke (hizkuntzaren aukeraketa alde batera utzirik), biak esistentzialismoan murgildurik baitaude. Hemengoak ez balira bezala baina bertokoak izanda. *Tierra*-ren istorioak horretan jolasten du. Unibertsoaren edozein lur gorritzko eremu batean kokatzen dira pertsonaiak. Ondo jakin barik nora doazen eta nondik datozen, dinbi-danba, bizitzaren bidaiari ekingo diote. Fikzioa ala errealitatea, amodioa ala sexua... biziaren etengabeko dikotomia. Itsasoan ala sutondoan, edo bietan, zintaren amaieran ikusten dugun legez.

Esan bezala, filmea kalitate handikoa da. Medemen hirugarrena eta biribilena. Sormenaren ertz arriskugarrian kulunkatzen den horietarikoa. Gainera, ikuslegoaren erantzun arrakastatsua bereganatu du. □

#### ZELULOIDEA BARRA-BARRA

Euskal zinemaren udaberria emankorra izan da. Alex de la Iglesia, Juanma Bajo Ulloa, Ibarretxe anaiak, Ana Diez eta Koldo Azkarreta errodiatan aritu dira. Produkzioa egoera gozoan dago. Euskarak, berriro ere, industria honen marjina-tua izaten jarraituko du. Eta nik ez dut uste arazo ekonomiko hutsa denik. Artisten sentikortasunean datza gakoa.

Aipaturiko filmeetan berrikuntzarik antzeman daiteke. Juanma Bajo Ulloak estreinako enkargua beteko du, bertan Asegarce enpresaren zine-bataioa izango delarik. *Jaun eta Jabe* telesail zorrotzaren eskutik sukaldari bat Ajuria Eneko pasilueta ikusi dugu. Oraingoan, benetako sukaldaria, Argiñano, aktore-lanetan estreinatuko da. Komunikatzaile baten komunikazio-mugak aztertzeke aukera emango digu, ezbairik gabe.

Koldo Azkarreta zine-arlo bihurri honetako frankotiratzaille amorratua dugu. *Hitchcock en el puente colgante* laburme-

traia interesgarriarekin irabazi zuen euskal zinemaren saria Bilboko zinemaldian orain dela sei urte. Tematia denez gero, azkenik lehenengo luzemetraiaren errealizazioa eskuratu du. Aurrekontu urria alde batetik eta bestetik, Imanol Arias protagonista, euskal zinemagintzaren ohizko ezaugarrien ildoari jarraitzen dio. Jauzia ez dadila hutsera izan. □

#### KALE EGIN BARIK

Lekeitiarrak ez dira nekatzen eta seguraski arrazoi dute: itsas herri hau bezalakorik ez dago munduan. Herriminak herrimin, ni seguru nago kale-antzerkia plazaratzeko Lekeitio dugula Europako eszenatokitik ederrenetako bat.

Zazpigarren edizioa kaleratu da, iazko udan kale egin ondoren. Paisaiarik onena, tradizioz luzeena, ikuslegorik beroena duen jaialdia bertan behera geratzea ez zen oso ulergarria baina dagoeneko krisia gainditu da.

Aurten kaleko jaiaren paradak belak betean nabigatu du itsaso ondoan. Euskal Herriak honelako kalealdia merezi du. Euskal usadioa kalean baitago. Horra hor, maskaradak eta pastoralak. Dena dela, geure kale-jokuak inoiz baino biziago dauden bitartean, sekula baino antzuago ikusi dugu kale-antzerki garaikidea. Hamabost urte luze ondoren aurten ez da estreinaldi nabarmenik izan. Kalea hustuz joan da eta gero eta talde gutxiago kokatzen dira hirugarren antzerkia deritzon esparru honetan.

Europar, Frantziar batik bat, egundoko pizkundea gertatu denean, Euskal Herriak geldiune latz bat jasan du. Datorren urteari begira baikor jar gaitezke. Trapu Zaharra, Markeliñe... hasi dira lanean.

Hau dela eta, Lekeitioko kalealdian izan den aipagarriena atzerritik etorri zaigu. Mediterraneoko ereduak, berriz ere, ekarri du ikusgarriena. Sardinia, Rossellon eta Castelloneko antzekigileek badute zer erakusterik gure lurrean.

Hurrengo gaiari heldu baino lehen, aipatu beharrean nago Eusko Jaurlaritzaren Kultur sailean izan den jokaera berria. Oraingo ordezkarien lanak ez dauka zer ikusirik Joseba Arregiren agintaldi itxiarekin. Gaur egun antzerkigintzaz interesaturik badabil han-hemenka Amaia Rodriguez kultur arduraduna. Eskertzekoa da antzerkigileei eskatu dien hitza. Hastapena ezin hobea eta zalantzarik gabe, Lekeitioko Kale Antzerkialdiaren berreskurapenean partaide erabakiorra. □

## 25 URTE KONTRABANDOAN

Marc Legassekin bat nator. Euskal Herria kontrabandoz bizi den herria da. Ez dugu existitu ere egiten. Hala erakutsi digu Telenortek (Madrileko Telebilbao esan behar nuen, agian) 25 urte bukaezin hauetan. Zer da Euskal Herria orain gutxi arte gehien ikusten zen eguerdiko informatibo erregionalarentzat? Ez da gai makala tesia burutzeko.

Telenortek ez du gutxienezko errespeturik izan. Lurraldetasunari dagokionez, Santander nahiago izan du Nafarroa baino. Euskararen erabilpena ikusirik, Job santu ororen itxarotea gainditen duen haserraldia sortarazten du. Kazetari-lerroak azoka merke batean erositako dirudi. Irudien lana antzineko garaietan galdurik dago. Ezinezkoa da okerrago ibiltzea (edo maltzurrago esan behar nuen). 25 urte bete berri du herri honetako amildegia sakontzen. Noiz antolatuko da telebistarako zer-gei intsumisioa?

Amildegiaz beste aldean, *Egin* egunkariak aurreneko ikus-entzunezko ekimenari amaiera eman dio. *Ikusmira* izena zuen hilabeteko bideo-informatiboak. 12 zenbaki agindu arren, arrazoi komertzialak direla medio, 3 baino ez dira kioskoetara heldu. Hirurak aztertuz gero, oso asmo ederra eta aurrerakoia zela deritzogu. Beste telebista ofizialetan izkututzen zutena agerian utzi nahi zuen eta zenbait erreportaiatan bete-betea eman du. Preso baten alaba (1. zb.), Itoiz (2. zb.) eta txirotasunari buruzko (3. zb.) dokumentuetan esku fina azaldu dute *Ikusmira*-ko taldekideek.



Kioskoetan hamar mila bideo saldu omen dute hilabeteko. Pena handia da esperientzia honi segida ez ematea, aniztasun eza nabaria baita telebista-kate instituzionaletan. □

#### LIVE IN EL CARMEN

El Carmen Bilboko bihotzean dago. Ez da Londoneko Covent Garden. El Carmen eliza azpiko areto ttipi bat da. Ez da Arriagaren anaia txikia. El Carmen musika akustikoaren zaleen topagunea da.

Hiru urtez Indautxuko El Carmen aretoa Euskal Herrian sortu den nazioarteko musikaren aterperik nabarmenena izan da. Tauletara igo diren gonbidatuen zerrenda ametsik ederrena baino ederragoa da. Aurten, sentsazioen zeruan murgildu gara honako hauek aditzen: Elliot Murphy, John Martyn, Liam O'Flynn, Rory McLeod, Phil Cunningham, Robin Williamson, June Tabor... Honela hogeitamar kontzertu akustiko. Begira akustikoaren itzulera!

Europa mailan zail baino zailagoa da honelako programazioa aurkitzea. Gurean dugu eta artean nahiko ahantzirik. Batezbesteko ikusle-kopurua 200 pertsona izan da 500 pertsonentzako aretoan. Ez da emaitza eskasa, baina nik uste dut ikusmin handia falta dela gaur egungo kultur kontsumitzailengan.

El Carmengo formato txikiko kontzertuak munduko harribixirik preziatuena bezalaxe zaindu beharko genituzke. Bestela entzun Euskal Herrian bizi den irlandarraren iritzi hau: «*Irlandako usadio musikala erraldoia izan arren ez dago bertan El Carmengo eskaintza bikaina aurkitzerik*». Aho bete hortz zegoen Bilboko bihotzean deskubritu zuena dastatu ondoren.

Irailen hasiko den 1996-97ko egitaraua osatu dute. Beraz, laugarren edizio hau galtzeko aitzakiarik ez dago. Gogoratu, ostegunetan Bilbon lehen mailako nazioarteko zita dagoela. «Probatu ez duenak ez daki zer den hau». □

# UNIBERTSITATEA

---

LONTXO OIHARTZABAL

## EUSKARAZ GAUZATZEN DEN IRAKASKUNTZA

Unibertsitate elebiduna da gure hau, Euskal Herrikoa alegia. Elebiduna beharko luke izan behintzat, egungo legediak horrela behartuta. Beren ikasketak euskaraz edo/eta gaztelaniaz burutzeko aukerak eskaini behar baitizkie bertaraten zaizkion ikasleei Euskal Herriko Unibertsitateak.

Horretan ahalegintzen ari da gure erakunde garratzitsu hau azken urteetan zehar, zenbaitzuk hori ukatu nahi badiote ere. Eginkizun honetan eten ezineko abiadura daramala ere esango nuke nik, bertako zenbait irakasle ez euskalduni larridura sortarazterainokoa, zenbaitzuren adierazpenak zuzen interpretatzen baditut behintzat. Batzuk horientzat abiadura azkarregia den bitartean —zorabiatzeko zorian jartzen omen ditu eta—, makalegia da beste hainbatentzat, legediak dioena ez baita betetzen, oraindik, bere osotasunean. Iritziak iritzi eta jarrerak jarrera, aurrera goaz, eta abiadura onargarrian gainera, nire ustez, datuek agertzen dutenez:

- 1990ean burutu zen normalkuntzarako plangintzan adierazten zenez, unibertsitatean garai hartan lantzen ziren irakasgai guztietatik % 32,2 eskaintzen ziren euskaraz. 1994-95 ikasturteko datuak begibistan hartuz, berriz, % 49 jotzen du euskaraz lantzen diren irakasgaien kopuruak. % 3,4 batezbesteko gehikuntza, beraz, ikasturte bakoitzeko.

- Datu horiek zuzen ulertu ahal izateko bada kontuan hartu beharreko beste gertakari garrantzitsu bat ere: 1990ean guztira 1.565 irakasgai ezberdin ematen ziren bitartean, 3.540 ziren 1994-95 ikasturtean eskaini zirenak, ikerketa-plan eta titulazio berrien eraginaren ondorioz. Euskaraz landu diren gaien kopurua nabarmenki ugartu da zenbaki absolutuetan azken hiru ikasturteetan zehar.

• Datu zehatzik ez badago ere, beste 400 irakasgaitik gora dira datozen bi ikasturteetan euskaraz eskaini asmo diren gai berriak (% 10 inguru).

• Hona hemen beste hainbat zehaztapen, euskarak unibertsitatean duen egoera argi eta garbi isladatzen duena:

<b>1994-95 ikasturtea</b>	<i>Guztira</i>	<i>%</i>
Euskarazko irakaskuntzarik gabeko titulazioak	12	15,8
% 15eraino euskaraz ematen duten titulazioak	8	10,5
% 15-29 euskaraz ematen duten titulazioak	9	11,8
% 30-49 euskaraz ematen duten titulazioak	6	7,9
% 50-74 euskaraz ematen duten titulazioak	17	22,4
% 75-99 euskaraz ematen duten titulazioak	13	17,1
% 100 euskaraz ematen duten titulazioak	10	13,2
<i>Guztira</i>	76	100

76 titulazioetatik 40 dira irakaskuntza-gaietatik % 50etik gora euskaraz eskaintzen dutenak. Nahikoa ez bada ere, bada zerbait. Eta hori guztia azken hamabost urteetan lortu dela pentsatzen bada, norberak atera ditzake ondorioak (IKEIk duen txostenetik jaso ditut datuok).

Hiru ohartxo ginez amaitu nahi nuke atal hau.

1) Unibertsitate-mailako irakaskuntza euskaraz emateko gai izango diren profesionalak prestatzea ez da gauetik goizera lortzen den eginkizuna. Aurrez eginiko ikasketa guztiak beste hizkuntzetan burutu behar izanak, euskaraz idatzitako baliabideen eskasiak ez du batere errazten lan hori. Hala eta guztiz ere, aurrera goaz.

2) Unibertsitatean euskaraz dihardugun irakasleetako askok eta askok ez genuen ezertxo ere euskaraz landu gure unibertsitate-ikasketetan. Euskaraz irakastera eta idaztera jarri gara gure ahalegintxoari esker. Guztiak ez bada ere, ikasgaietako zenbait euskaraz lantzeko aukera izan duten ikasle ohiek gu baino trebatuagoak atera beharko lukete unibertsitatetik eta, ondorioz, euskaraz irakasteko erraztasun handiagoa beharko lukete. Gehitu horri azken urteotan euskaraz argitaratzen ari diren eskuliburuak eta bestelakoak, eta orain hamar urtekoa

baino itxaropentsuagoa ikus daiteke etorkizuna. Honetan ez dut nik zalantzarik egiten.

3) Datozen hamar urteotan (eta hori ez da asko) erabakiko da gure unibertsitateak euskaraz eskainiko duen irakaskuntzaren etorkizun luzea. Legediak dioena bete-bete gauzatu ez bada ere, ikasketak euskaraz egin nahi dituzten ikasleei esku-bide hori bermatu egin behar zaie, ikasi beharreko gaietan oinarrizkoak eta beharrezkoak euskaraz lantzeko aukerak sortuz. Irakaslego euskalduna ezezik, irakurgaiak ere euskaraz jarri beharra dago legeak aurrakusten duena beteko bada. Zuzena da unibertsitateari zuhertasuna eskatzea plangintzak eratze-ko orduan. Zuzena den bezalaxe unibertsitateari, bere bete-beharra duintasunez aurrera aterako baditu behintzat, ezinbesteko baliabideak ahalbidetzea. Eta azken hau herri honetako politikarien esku dago eta beraien erantzukizuna da nagusiki. □

#### UNIBERTSITATE BAKAR BATEAN BI UNIBERTSITATE?

Galdera baino gehiago kezka da hori. Aldizkari beronetako beste ale batean nioenez (*Jakin 93-94*), irakasle batek eman beharreko dozentzia guztia (24 kreditutakoa) euskaraz emateko beharra frogatu behar izan dute unibertsitateko sailek ardurara osoko irakasle euskalduna lortu nahi izan duten bakoitzean. Aipatutako lantxo hartan nioenez, hiru eta lau irakasgai ezberdin prestatzera eta ematera beharturik legoke, horrela, irakasle euskalduna (euskaraz irakatsi behar duena, alegia). Berez bada hori nahiko arazo eta zailtasun irakatsi beharreko gaiak gutxiengo duintasun batez prestatzeko.

Sail ezberdinetako zenbait arduradunek hala nahita, horrela erabakita, ez dago ia harremanik euskal eta erdal adarretako irakasleen artean. Elkarrekiko aurkakotasuna eta mesfidantza ere eragin da, behin baino gehiagotan, honako eta halako fakultate eta ikastegietako hainbat eta hainbat sailetan; euskaraz irakasten dutenak alde batetik, gaztelaniaz irakasten dutenak bestetik. Itxurazkoa ez bada ere, gauzak horrela egin dira han eta hemen.

Antza denez, gainera, elkarren aurkako bikoiztasun horren alde jokatu nahi du aurrerantzean ere sail batek baino gehiagok. Ez da irakasle euskaldunik onartu nahi erdal adarrerako. Euskaraz ez dakiten irakasleak nahi dira, inondik ere, erdal adarrari bere-berean iraunarazteko. Badago horretarako bere bekadunez bakarrik osatu nahi duen sailik gaur bertan.

Gauzak horrela, sail bereko irakaslegoaren artean bi elkarre ezberdin moldatzeko arrisku handiegia dago. Jadanik bada irakaslegoamarteko aurkakotasun hori nozitzen ari den sailik Euskal Herriko gure Unibertsitate honetan. Ez da, gainera, ikastegi bakar batera mugatzen den arazoa.

Errektorego-talde berriaren irizpideak bestelakoak direla dirudi. Hitzez adierazi zaigunez, behintzat, erdarazko eta euskarazko irakas-beharrak batera har daitezke kontuan —ala batera hartu beharko lirateke?— ardura osoko irakasle baten 24 kredituak kalkulatzekoan. Aurrerapauso egokia eta bikaina litzateke hau irakasle elebidunarentzat, irakasgai berdina euskaraz eta gaztelaniaz emateko aukera irekiko bailioke, arauzkotasun osoz, jokamolde berri honek.

Arestian aipatutako aurkakotasun-arriskuari ere ateak itxiko litzaizkioke horrela. Ez litzaizkioke gehiago zabalduko behintzat. Ikuspuntu honetatik begiraturaz ere bere garrantzia du urrats berriak.

Urrats bat gehiago eskatuko nuke nik, ordea, ildo honetatik. Ikastegietako arduradunei eta sailtako zuzendaritza-taldekoen argi eta garbi adierazi beharko litzaieke irizpide hori. Ez dela aukerazko irizpidea, baizik eta irakasle berrien beharrak aztertzerakoan eta kalkulatzekoan derrigorrez kontuan hartzea dela ezinbestean. Ez dago eta beste biderik benetako unibertsitate elebiduna eratu eta moldatu nahi bada: gero eta irakasle gehiago izan daitezela beren gaiak euskaraz eta gaztelaniaz landuko dituztenak.

Bide beretik doa —nik hala uste dut behintzat— jatorriz euskaldunak izanagatik irakaskuntza gaztelaniaz ematen ari diren irakasleei euskaraz trebatu daitezen eskaini nahi zaizen aukera ere. Honelatsuko kasuak ugariegiak ez badira ere, kon-

tuan hartzekoak dira direnak, eta buruhauste larri ugari konponduko litzaizkioke bide honetatik sail bati baino gehiagori. Beste urrats bat da. Aurrera goazen adierazgarria, beraz.

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu, bai lantxo hone-tan, baita aurreko beste batzuetan ere, euskal adarrean diharduten irakasleen betebeharraren arintzeak irakaskuntzaren kalitateari ekarriko liokeen onura. Irakasgaiak euskaraz prestatu beharrak berez du, oraingoz behintzat, gainkarga berezia, euskarazko liburu eta bestelako idazkien eskasiagatik. Horretaz gain, hiru eta lau irakasgai ezberdin prestatu beharrak egoera eta eginbeharra zaildu egiten dio, eta nola zaildu gainera. Egoera honetaz ere jabetua da, inolako zalantzarik gabe, unibertsitateko errektoradutza-talde berria. Halaxe agertzen da «EHUko plantila teorikoa eratzeko iripideak» izenez zabaldu den idazkian. Hitzez hitz itzultzen saiatuko naiz.

Adar elebidunetara inkorporatu daitezten eta gutxienez bi irakasgairen (edo gehiagoren) ardura har dezaten irakasleei 6 kredituraino arindu ahal izanen zaie beren eginbeharra baliabideen (eskuliburu) eskasia agirikoa denean, EHUren deialdietan ezar daitezten baldintzei jarraituz beti ere (adibidez: materialak argitaratzeko edo itzulpena egiteko derrigorrezkotasuna erabaki daiteke, edo euskara-institutuak edo antzeko beste batek antolatutako hobekuntza ikastaroetan parte hartze-koa). Aldi batekoa izan da kreditu-arintze hau...

Ofizialki onartu nahi da, beraz, euskaraz lanean diharduen irakasleak aparteko eragozpenak eta zailtasunak dituela, bere eginbeharra itxuraz burutu nahi badu bederen. Bada zerbait! Aurreratzen goaz. Euskarazko irakaskuntzaren kantitateari begiratze soiletik irakaskuntza horren kalitateaz arduratzera dagoen urratsa da oraingoa. Ez bedi azkenengoa izan!□

#### ERREKTOREORDETZAK ETA SAILAK

Beste batean adierazia dut, ikastegietako sail ezberdinei dagokiela irakaskuntza edo jarduera akademikoa antolatzea, araudi ezberdinek erabakitakoaren arabera beti ere.

Sailetan daudenak daude arduradun. Aspalditxotik unibertsitean beren lekutxoia egin dutenak asko eta asko. Unibertsitea euskalduntzeko xedez burutu zen plangintza taxutu aurretik bertan lanean zihardutenak ez gutxi. Euskararekiko inolako sentiberatasunik agertu ez dutenak ugari. Horien esku eta horien erantzukizunpean utzi da sail askoren euskalduntze-prozesua garatzea.

Zenbait titulaziotan euskalduntze-prozesua ia ehuneko ehunera iritsi den bitartean, hamabitan ez zen ezertxo ere lantzen euskaraz 1994-95 ikasturtean. Beste zortzitan % 15era iristen zen soilik euskaraz ematen zena. Gehitu horri % 30era iristen ez ziren beste bederatzi, eta titulazio guztietatik (76 orduan plan zaharrekoak) % 38tan euskalduntze-prozesua hasteko edo hastapenetan zegoen oraindik (eta dago zoritxarrez).

Legediak, nik uste, ez du bereizketarik egiten titulazio ezberdinak eskuratu asmoz dabiltzan ikasleen eskubideen artean. Bistan da, beraz, zenbait ikasleren eskubideak ukatzen ari direla unibertsitate beretik. Edo zailtasunak jartzen, gutxienean ere!

Galdera eta kezka bapatean datozkit niri: ikastegi bakoitzeko sailen eskura utzi ote daiteke, aurrerantzean ere, unibertsitateko ikasketa-plangintzen euskalduntze-prozesua? Ala orain artean gertaturikoak ikusirik, beste norbaiti ere badagokio hainbat eta hainbat saili erantzukizunak eskatzea? Unean uneko arduradunen kontua da unibertsitateko ikasketak euskaraz ere eskaintzea? Ala errektoregoak berak eta unibertsitateko gobernu-batzarrak ere badute erantzukizunik afera honetan? Erakunde politikoez ez ote dute zer esanik kontu hauetan?

Euskaraz ikasi nahi duten ikasleen kopurua asko ari da ugaltzen azken urteotan. «*UBI euskaraz ikasten duten ikasleen kopuruak gora egin du*», zioen unibertsitateko euskararako errektoreordetzak argitaratzen duen *Campus* berripaperak 1995eko ekaineko alean. Ikasleak, beren eskubideak errebindikatu, gatazkak sortzen has daitezen bitartean lo egon behar ote dugu unibertsitatean nolabaiteko erantzukizuna dugunok! Ezin harrituko gara mendiak su hartzen badigu, magalean pizturik ikusitako sutxoa itzaltzen ahalegindu ez garenok. □

# SOZIOLINGUISTIKA

---

KIKE AMONARRIZ

## EZKORTASUNA

Duela gutxi adiskide batek, euskara-teknikaria bera, aldizkari honetan idazten dudan kronika ezkorregia dela adierazi zidan. Ni ezezkotan eta bera baiezkotan. Kutsu goibela omen darie idatzi hauei eta euskalgintzan berriz, ba omen dira kronika honi ukitu argiagoa emango lioketen albisteak.

Hitzaspertu hartan kronika honen nondik norakoak azaldu nizkion adiskideari, eta berak bezala pentsa dezakeen beste norbait egon daitekeelakoan, egokia iruditu zait, uki zitezkeen gaien artean, gorderik neukan bati ekitea: euskararen egoeraren inguruko ezkortasuna/baikortasunari, alegia.

Gauza jakina da, datu berberaren eta egoera berberaren inguruan oso ondorio desberdinak atera daitezkeela, eta norberaren kokapenak baldintzatzen dituela bizitzaren aspektu desberdinen inguruan egin genitzakeen interpretazioak.

Euskalgintzan dihardugunon artean, erabateko baikorrak eta erabateko ezkorrak gutxi direla iruditzen zait; ez genukeen bestela lortu dugun dinamismoa erdietsiko eta ez ginatkeen iritsi garen lekura iritsiko.

Zalantzarik handienak ordea, gure egoera gizarteratzerakoan azaldu behar dugun tonua dela eta ez dela sortzen dira. Tonu baikorregiak jendea akuilatu edo lokarrarazi egiten du? Tonu ezkorregiak jendea atzendu ala suspertu egiten du?

Nireustez, giltzarria jasoleengan dago neurri handi batean. Oso modu desberdinean landu beharko lirateke, euskararen inguruko informazioak, informazio horien jasoleen arabera. Informazioa inoiz ez da neutroa, eta euskarari buruzko informazioa ere ez. Horregatik oso garrantzitsua da, eta horretan arrazoia ematen diot artikulu honen aitzaki den adiskideari, euskara-



ren inguruko informazioetan tonu arreek nagusitasun handiegia izan dutela.

Hori dela eta, nik neronek pertsonalki eta euskalgintzan lanbide dudan elkarteak ere, baikortasun erreflexiboa bultzatu nahi izan dugu gizarteratutako mezuetan (eta esan beharra daukat, batzuk ezkorregizat jotzen gaituzten bezala, beste batzuk baikorregizat jotzen gaituztela. Gustu guztiak ez daude munduan). Azken batean axola diguna, mezuaren hartzailea, dagoen abiapuntutik, hizkuntz normalizaziora daraman bidean, abiatzea eta norabide egokian abiatzea gainera, baita. Eta horretako ezinbestekoa da ilusioa piztea, baikortasun-giro batean, baina beti ere euskararen ahulezia eta arriskuak ahaztu gabe. Oreka lortzea da erronka.

Artikulu hauen irakurlegoa berezitat jo izan dut beti (bide batez esan dezadan nahikoa meritu eta pazientzia ere baduzue-la), eta oro har euskalgintzan txertatutakotzat. Horregatik, hausnarketarako aztarnak eta informazioak eskaintzen ahalegindu naiz idatzion bidez. Eta ikuspegi honetatik normala den bezala, gehiagotan plazaratu ditut kezkatzen nauten gaiak, bide onean doazenak baino.

Irakurleak era honetakoak direla/zaretela pentsatuz beraz, ez diot beldurrik artikuluek izan dezaketen tonu ezkorriari; balizko ezkortasun hori ez baita geratzailea, lanerako pizgarri baizik.

Artikulu hauetan beraz, normalean nire kezkek aurkituko dituzue. Hala ere, eta nahiz eta nire alderdi baikorra ezagutzeko beste bitarteko batzuetara jotzeko aukera izan, uda partean gaudenez, opor-usaina inguruan dabilkigunez, eta txoko honetan gehiegizko ezkortasuna sumatu uste duten guztiei zapore gozoagoa gera dakien, ahaleginduko naiz, geratzen zaizkidan le-rootan, ahalik eta albisterik baikorrenak komentatzen. □

ZE ARRAROA EUSKARARIK GABE NAFARROA

Nafarroako Gobernuak Taller de Sociología Kabineteari eskaturiko «Euskara Nafarroan zertan den» azterlana burutu eta

aurkeztu berri da. Datuek, azken urte hauetan nafar gizarteak euskararekiko izan duen bilakaera azalarazi dute.

Emaitzek adierazten dutenez, nafar gizarteak gero eta maila altuagoan onartzen du euskara kultur ondare bezala eta etorkizunari begira euskararen aldeko apostu garbia egiten du.

Zonalde erdaldunean, euskararekiko erreparrak handiagoak baldin badira ere, eta nahiz eta euskararen aurrean uzkur ageri den multzo bat egon, gehiengoak euskaraz hitz egiten jakitea gustatuko litzaiokeela eta euskara Nafarroan sustatu egin behar dela erantzun du.

Datu hauek bat datoz, azken urte hauetan Nafarroan euskara inguruan burutu diren ikerketa desberdinetako emaitzekin eta nafarren euskararen aldeko jarrera orokorra berresten dute.

Hazi emankor hau lora dadin, behar bezala zaindu behar hemendik aurrera.□

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Maiatzaren hasieran Hizkuntz Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentzia ospatu zen Bartzelonan, bertan mundu osoko hizkuntz komunitate desberdinetako ordezkariak bildu zirelarik.

Konferentzia honetatik Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena atera da. UNESCOk bere gain hartu du Adierazpena eta konferentzia antolatu duten aditu eta gobernuz kanpoko erakundeen hurrengo helburua, berea Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioaren osagarri bihurtzea litzateke.

Testua osatu duten pertsonen artean EHuko Zuzenbide Fakultateko irakasle den Xabier Iriondok «Hizkuntzen arteko bake-hitzarmen» modura bataiatu zuen. Definizio hau hizkuntz eta etnia minoritarioen inguruan zabaltzen ari den diskurtso berriaren islada izan daiteke.

Helburu horretarako bidean, tresna baliagarria suerta daiteke beraz, adierazpen hau.

Euskal Herrira etorritz, Frantziak «Hizkuntza Gutxituen Europako Karta» sina dezan lagun dezake adierazpen honek.

Hilabete hauetan, Frantziako Gobernuaren inguruko hainbat politikariri (Jacques Chirac berari!) entzundakoak entzun ondoren, badirudi jakobinismoaren lurraldean aniztasunari atetxoren bat zabaltzeko aukerak indartzen ari direla. Allande Boutinek *Egunkarian* zioen bezala, «*Frantzian zerbait mugitzen hasi delakoan nago*».□

#### ATOMOTIK UNIBERTSORA

Euskaldunak beti izan gara artxipiela goen antzeko. Itsaso erdaldunaren erdian, euskaldunak barreiatuta eta elkarren arteko zubirik gabeak.

Egoera hori definitzeko «atomizazioa» hitza erabili dute Euskara Elkartek, eta berau gainditzeko, Euskal Herriko udalerrri desberdinetan zehar barreiatutako Euskara Elkartek Federazio batean bildu dira: Euskara Elkarteen Topagunea.

Atomizazioa gainditu eta elkarteen dinamika indartzea du helburu.

Ez dira ordea Euskara Elkartek izan indarrak biltzen ahalegindu diren bakarrak. Beste bilgune bat ere osatu da eta oraingo honetan asmoak ez dirudi txantxetakoa. Izenak helburuen sendotasuna eta indarra adierazten du: unibertsoa.

Unibertsoa: elementu independenteez osaturiko globalitate orekatua. Berez dena. Bilakaera etengabea, mugimendua...

Kezka batetik sortu zen Kezka. Unibertsoa ordea, kezkatik baino hausnarketatik sortu dela esatera ausartuko nintzateke. Helduago sumatzen dut. Kezka baino kezka bizi ditu, sakan eta sakonean.

Sortu berri den unibertso honen egitekoa garrantzitsua eta erabakiorra izan liteke euskalgintzaren garapenean.

Bildu diren izenen pisua, ordezkatzen dituzten esparruen zabaltasuna, eta planteamenduetan aurkezten den seriotasuna

nak mugimendu erreferentzial baten aurrean gaudela adierazten digu.

Eta gainera ezin ahaztu beste alor batzuetan ere hasiak direla bilgune berriak osatzen: Euskalkom jardunaldien inguruan sortutakoa, helduen euskalduntze-alfabetatze alorrean diharduten erakundeen artean...

Bilgune hauek guztiak bitarteko ezin egokiagoak bihur litezke, euskararen normalizazio-prozesua, zabaldu, sakondu eta azkartzeko.□

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1.C  
TEL.(943) 21 80 92  
FAX (943) 21 82 07  
20009 DONOSTIA

